


# EUSKARAREN GAINEKO DISKURTSOAK LAN MUNDUAN

Debagoienan lanean ari direnen  
zazpi kontakizun.



# AURKIBIDEA

## Edukia

|                                                                           |    |
|---------------------------------------------------------------------------|----|
| AURKIBIDEA.....                                                           | 2  |
| 0.- SARRERA:.....                                                         | 3  |
| 1.- OINARRI TEORIKOA: .....                                               | 4  |
| 1.1.- Jarrerak – Portaera – Motibazioa .....                              | 4  |
| 1.1.1.- Jarrera .....                                                     | 4  |
| 1.1.2.- Portaera .....                                                    | 6  |
| 1.1.3.- Motibazioa .....                                                  | 6  |
| 1.2.- Euskararekiko diskurtsoak.....                                      | 7  |
| 1.2.1.- Konpromiso maila epela dutenen edo Bai bainakoen diskurtsoa ..... | 13 |
| 1.3.- Hizkuntza plangintza lan munduan .....                              | 15 |
| 2.- ARLO METODOLOGIKOA .....                                              | 21 |
| 2.1.- Diseinua .....                                                      | 22 |
| 3.- SAKONEKO ELKARRIZKETAK .....                                          | 25 |
| 3.1.- UNAI .....                                                          | 25 |
| 3.2.- KOLDO .....                                                         | 35 |
| 3.3.- ABEL .....                                                          | 41 |
| 3.4.- JOSU.....                                                           | 48 |
| 3.5.- MIKEL.....                                                          | 56 |
| 3.6.- RUBEN.....                                                          | 64 |
| 3.7.- EGUZKIÑE .....                                                      | 70 |
| 4.- EDUKIEN AZTERKETA.....                                                | 75 |
| 4.1.- Elkarrizketatuek osatutako diskurtsoaren gakoak: .....              | 78 |
| 4.1.1.- Euskararen erabilera enpresan: .....                              | 78 |
| 4.1.2.- Euskararen normalizazioa:.....                                    | 78 |
| 4.1.3.- Instituzio edo erakunde publikoen babesa eta laguntza:.....       | 79 |
| 4.1.4.- Euskara Plana: .....                                              | 79 |
| 4.1.5.- Euskararen balio erantsia:.....                                   | 80 |
| 4.1.6.- Komunikazio funtzioa: .....                                       | 80 |
| 4.1.7.- Euskara inposizio bezala: .....                                   | 80 |
| 5.- ONDORIOAK .....                                                       | 82 |
| 6.- BIBLIOGRAFIA: .....                                                   | 84 |

## 0.- SARRERA:

HIZNET gradu ondoko ikastaroaren barruan burututako sakontze egitasmo honen xedea lan munduan euskararekiko dauden diskurtsoetan sakontzea izan da, egon daitezkeen ideia edo faktore gakoak eta aurrera begira landu daitezkeen edo kontutan izan beharreko lan ildoak aurkitzeko ahalegina eginez.

Abiapuntu horretatik hasita, ikerketa tresna kualitatiboetan oinarrituz, Debagoiena eskualdean lan egiten duten langileek osatzen dituzten diskurtsoei erreparatuko zaie. Egiteko horretan, bereziki, aintzat hartu dira euskararen normalizazioaren eremuan, azken urteetan, egindako beste lan batzuk, hala nola jarrera eta motibazioen ingurukoak, euskararekiko dauden gizarte diskurtsoen gainekoak edota lan munduan burutzen diren euskararen normalizaziorako plangintza eta euskara planen arloari dagozkionak.

Horrela bada, Debagoiena eskualdeko industri eremuko lantegietan lan egiten duten hainbat pertsonekin sakoneko elkarrizketak burutu dira. Elkarrizketa hauen bidez, pertsona hauek euskarak lanean duen egoeraren gaineko zein balorazio egiten duten eta zein iritzi ematen dituzten jaso ahal izan da.

Jasotako informazioa ahalik eta sakonena zein egokiena izatearren aintzat hartu dira hainbat aldagai, hala nola, lan egiten duten enpresan euskara planik dagoen edo ez, euskaradunak diren hala ez, edota euskarak beraien lantegi edo enpresan duen presentziarekiko erakutsi dezaketen jarrera zein portaera. Lehen bi aldagaiak objektiboak diren arren, ageriko jarrera aintzat hartzea subjektiboagoa gertatzen da, aurreiritzi eta balorazioek pisu handia har baitezakete, beraz, aldagai honekiko zurruntasunez jokatu beharrean iritzi ahalik eta ezberdinenak jasotzeko baliabide bezala landu da.

Azken batean, lan honetan bildutakoak zazpi kontakizun dira, orokortu ezin diren zazpi kontakizun baina neurri handi batean euskarak lan munduan duen egoeraren eta euskararen normalizazioaren inguruko iritzi eta balorazioak biltzen dituena. Ezinbestean, euskararekiko dauden jarreretan eragin beharra izango dugu, gizarte mailan zein lan munduan, eta horretarako premiazkoa izan daiteke jendartean dauden iritziak ahalik eta ondoen ezagutzea. Horrela bada, lan honen azken atalean zazpi narrazio hauetan jasotako ideia edota iritzi gakoak aztertu dira.

## 1.- OINARRI TEORIKOA:

Lan honen marko teorikoa osatu edo irudikatzeko hiru eremu ezberdinen gaineko eduki teorikoak jasoko dira ondorengo lerroetan. Hiru zutabe hauek gaiari eta lan honen helburuei lurzoru egokia ematea ahalbidetuko dute:

- ✧ Jarrerak – Motibazioa – Portaera
- ✧ Euskararekiko diskurtsoak
- ✧ Hizkuntza normalizazio-lan munduan

Beraz, lan munduan euskararen erabilerarekiko diskurtsoetan sakontzeko lanabes edo oinarri teoriko egokiak hiru gai hauen bidez zehaztu eta azalduko ditut.

### 1.1.- Jarrerak – Portaera – Motibazioa

Egitasmo honen helburua lan eremuan lankideek osatzen dituzten diskurtsoak izanik eta gai baten inguruan pertsona batek osatzen duen diskurtsoa gai horrekiko duen jarreraren adierazpen den heinean beharrezkoa izango zaigu jarrerak zer diren ezagutzeko eta ulertzeko ahalegina egitea. Bestalde, gradu ondoko honen xedea hizkuntza plangintza izanik garrantzitsua da jarrerak portaera nola bilakatu eta horretarako erabil ditzakegun bideei erreparatzea. Hau lortzeko burutuko dudan ibilbidea egiteko Joxpi Irastortzak egindako ikerketa-tesia baliatuko dut, "Lan munduko euskara planetako langile euskaldunen jarrera, portaera eta motibazioa"<sup>1</sup> sakontze egitasmo honen beharretara ezin hobeto doitzen baita.

#### 1.1.1.- Jarrera

Jarrera, gure inguruari, munduari, begiratzeko erabiltzen dugun betaurrekoak direla esan dezakegu. Errealitatea antzemateko darabilgun iragazkia, ingurutik jasotzen dugun informazio kopuru ikaragarria sinplifikatzeko mekanismo bezala ulertu dezakeguna. Kasu honetan Joxpik ondorengo definizioa ematen digu.

"Jarrera, objektu baten (gizakia, egoera soziala, pentsamendua, iritziak, ideiak...) ebaluazioaren bitartez adierazten den joera psikologiko bat da. (...) Jarrera joera gisa definitzean, pertsonaren barne-egoera bat dela ulertzen dugu. Beraz, ez da kanpoan aurkitu dezakegun zerbait. Hala ere, ez da adierazi edo ikusi daitekeen erantzun bat ere. Arestian esan bezala, jarrerak inguruaren -grafikoko estimuluak- eta pertsonaren erreakzioaren artean -ebaluazio-erantzunak- bitarteko eta interbentzio lana egiten duten zerbait dira."<sup>2</sup>

---


1 IRASTORTZA MADARIAGA, Joxpi (2009). *Lan munduko euskara planetako langile euskaldunen jarrera, portaera eta motibazioak: pentsamendua garatzenetik helburuak lortzera*. Eskoriatza: MONDRAGON UNIBERTSITATEA (HUHEZI)

2 IRASTORTZA MADARIAGA, Joxpi (2009); 46 or.

Bestetik jarrerak hiru osagai edo dimentsiotan irudikatu daitezke. Hiru osagai hauek ez dira elementu zurrunik, aitzitik elkarrekin harremanetan daude eta elkar uztartzen dira:

- ✧ Osagai afektiboa: emozio eta sentimenduak
- ✧ Osagai kognitiboa: jarrera objektuarekiko subjektuak duen ezagutza oinarritzen da.
- ✧ Osagai konatibo-konduktuala: aurreko bi osagaien ondorioz subjektuak agertzen duen portaera joeran oinarritzen da.

Beraz, jarrera goiko hiru osagaiek iradokitzen duten erantzunen bidez adierazten da. Ikus ondorengo irudia<sup>3</sup>:



8. irudia: Jarreraren ebaluazio erantzunak (Eagly eta Chaiken, 1993)

Illo horretatik, Joxpik diosku jarrera estimulu edo objektu horrekiko norbanakoak dituen esperientzia guztien batura dela, hots, prozesu kognitibo, afektibo eta konduktualen bidez izandako esperientzien metaketa.

Jarrerei dagokionez Joxpik azpimarratzen duen beste ideia edo elementu bat, pertsuasioarena dugu. Pertsuasioa, pertsonek jarrera aldatzea bilatzen duen komunikazio mekanismoa litzateke.

"Pertsuasioa diogunean, komunikazio baten azalpenaren ondorioz pertsonek jarreretan gertatzen den edozein aldaketaz ari gara (Petty eta Cacioppo, 1986), gainera, delako komunikazioak jarrera aldatzea eragiteko dadin intentzio osoz diseinatua eta exekutua izan behar du."<sup>4</sup>

Bestalde, pertsuasioa prozesu konplexua dugu non faktore ezberdinek eragiten duten: igorlea, mezuaren edukia, hartzailea eta testuingurua. Aitzitik, bi lirateke hartzaileak mezua onartu edo ez erabakitzeke erabil ditzakeen estrategiak. Batetik, erdiko ibilbidea, non mezuaren ebaluazio kritikoa egiten duen aurkeztu zaizkion argudioak aztertuz, ondorioak ebaluatu eta aurretik duen ezagutzarekin alderatuz. Bestetik, ibilbide periferikoa legoke, non mezua aztertzeke motibazio edo

3 IRASTORTZA MADARIAGA, Joxpi (2009); 55 or.

4 IRASTORTZA MADARIAGA, Joxpi (2009); 63 or.

gaitasun nahikorik ez eta bestelako elementuek pisu handiagoa hartzen duten, hala nola igorlearen erakargarritasunak edo saritua izateko aukerak.

### 1.1.2.- Portaera

Kontutan izan behar dugu jarrerak ez direla portaerak. Portaerei so eginez pertsona baten jarrera antzeman badezakegu ere jarrera jakin bat portaera ezberdinetan gauzatu daiteke. Nolabait esatearren, portaera jarrera batetatik abiatu eta helburu bat lortzeko asmoarekin abiatzen dugun ekintza multzo edo prozesua da. Ildo horretatik, portaera horren nolakotasunaren oinarrian koherentzia beharra legoke, hau da, pentsatu/sentitu/uste dugunaren eta egiten dugunaren arteko koherentzia beharra.

"Bestalde, pertsonon motibaziorik oinarritzkoena koherentzia beharra litzateke (Abelson, Aronson, McGuire, Newcomb, Rosenberg eta Tannenbaum, 1968). Gizabanakoen gehiengoa bere sistema psikologikoa orekatuta eta gatazkarik gabe mantentzen ahalegintzen da, bere ingurua hobeto esplikatu, aurreikusi eta kontrolatu ahal izateko. Horregatik, pertsonok uste, sinesmen eta emozio kontrajarriak mantendu baditzaiegu ere, gizabanakoon joera nagusia desadostasunak edo barne dibergentziak gutxitzea da (Festinger, 1957; Heider, 1958). Modu anitz daude desadostasuna gutxitzeko: desadostasun egoera horri inportantziarik ez eman eta arazoari ihes egitetik, elementu disonanteetako bat aldatzeraino, disonantzia kognitiboaren paradigma klasikoari jarraiki (Festinger, 1957)"<sup>5</sup>

### 1.1.3.- Motibazioa

"Motibazioa, organismo baten bizitza hobetzeko eta mantentzeko helburuen lorpenarekin zerikusia duen oinarritzko prozesua da" (IRASTORTZA MADARIAGA, Joxpi; 2009), portaera baten atzean dagoen indarra edo *gasolina*.

Oinarritzko prozesu hau aztertzen saiatu diren eredu ezberdinak aurki ditzakegu gizarte psikologia eremuaren baitan:

- ⤴ Espektatiba/balentziaren gaineko teoriak: oinarritzko elementutzat intetzionaliatea, asmo argi bat edukitzea jotzen dute teoria hauek.
- ⤴ Akzioaren kontrola aldarrikatzen duten teoriak: asmo argi bat edukitzea ez da nahikoa, beharrezkoa da intentzioa baino haratago jotzea helburuko emaitza bermatzeko.
- ⤴ Kausa-egozpena aintzat hartzen duten teoriak: hauek gertaera baten ondoren norbanakoak egiten duen hausnarketak duen indar eta garrantzia azpimarratzen dute.

Hiru teoria edo ikuspegi hauek, hala ere, ez dira elkarrekiko baztertzailatzat hartu behar, aldiz, izaera osagarria dute:

"Aldaketarako konpromiso sendoa azalduz gero, gure portaeren ondorio positibo ala negatiboak buruz hausnartuz jakingo dugu ea ohiko portaerekin jarraitzea komeni zaigun

---

5 IRASTORTZA MADARIAGA, Joxpi (2009); 103 or.

ala beste batzuk inplementatu beharko ditugun. Helburuak lortzeko ikaskuntzan oinarritzen diren pertsonak, ikasten dihardutenarekiko kontzienteki informaturik daude, eta ikasten dutenari balio funtzionala ematen diote. Auto-kontrol hori dela-eta, lorpenen edo balizko porroten gaineko egozpen zehatzak egiteko gai izaten dira. Lortu nahi den helburuaren ezagutza errealista izanez, dituen baliabideak neurtuz eta lortzeko egindako ahalegina, ekina eta esfortzua kontuan hartuz, pertsona hauek egozpen positiboak eta egokigarriak egingo dituzte."<sup>6</sup>

Beraz, jarrerak aldatzeko beharrezkoa da motibazioaren eremua lantzea eta horrela pertsonen portaerak aldatzea lor baitezakegu.

Atal honekin amaitzeko, Joxpiren ikerketa lanean jasotako ondorioetatik esanguratsua iruditu zaidan ideia ekarri nahi nuke. Bere ikerketan ikusitakoaz, jarrera eta portaera iraunkorra eta egonkorra izango bada, igorritako mezu, komunikazio edo argudioek pentsarazi egin behar dute. Bestela esanda mezuek pentsamendu kritikoa bultzatu behar dutela diosku.

"Euskarari buruz gehiago jakiten saiatuz, euskararen gainean gogoeta eginez, gehiago erabiltzeko arrazoiak bilatuz eta esperientziak metatuz, azken batean, gure pentsamendua edo kognizioa garatuz, esatetik egitera jauzi egingo dugu."<sup>7</sup>

## **1.2.- Euskararekiko diskurtsoak**

Esan daiteke bizi dugun errealitatea sozialki eraikia dela. Errealitatea, pertsonok, elkar ekintzan eta elkar komunikatuz eraikitzen dugu. Era horretan gure ingurunean gertatzen denaz jabetzen gara, errealitatea ezagutuz eta interpretatuz (BERGER eta LUCKMAN; 1979). Horrela bada, egiteko horretan, lengoaia eta diskurtsoa oinarritzko osagaiak dira.

"La vida cotidiana se presenta como una realidad interpretada por los hombre y que para ellos tiene el significado subjetivo de un mundo coherente"<sup>8</sup>

Baina zeintzuk dira euskararen egoeraz, erabileraz, biziberritzeaz edo normalizazioaz jabetzeko eta ulertzeko baliatzen ditugun interpretazioak, ematen ditugun azalpenak edota gaiari egozten dizkiogun esanahiak? Hau da, zeintzuk dira euskal gizartean osatzen edo sortzen ditugun diskurtsoak? Honetan sakondu eta gaia aztertzeko ahaleginak izan dira gurean. Kasu honetan Nekane Jausoro, Iñaki Martinez de Luna eta Esti Amorrortuk egindako hainbat ikerketa lanetan jasotakoak ekarriko ditut eta euskararekiko diskurtso nagusienak zeintzuk izan daitezkeen eta hauen ezaugarri azpimarragarrienak azaltzen saiatuko naiz.

Oro har, euskararen gaineko gizarte diskurtsoak hiru bloke edo talde nagusitan bereiz ditzakegu. Batetik diskurtso euskaltzalea izango genuke, bestetik indiferentea eta azkenik kontrakoa. 1986-88


---

6 IRASTORTZA MADARIAGA, Joxpi (2009); 126 or.

7 IRASTORTZA MADARIAGA, Joxpi (2009); 220 or.

8 BERGER, Peter L. Eta LUCKMAN, Thomas (2001); *La construcción social de la realidad* 17. Ed. Buenos Aires: Amorrortu; 36. or.

urteetan euskararen inguruko gizarte posizioen gainean burutako ikerketa batean hiru diskurtso hauetatik bi diskurtso eraikitzea lortu zuten (JAUSORO, Nekane; 1997): diskurtso euskaltzalea eta indiferentzia diskurtsoa. Kontrako diskurtsoa eratzerik ez zuten izan garai hartan ez baitzuten diskurtso horretan kokatuko zen inor ikerketan parte hartzera hurbiltzerik izan. Dena den, indiferentzia diskurtsoan kontrako ezaugarriak irudika zitzakeen hainbat elementu azaleratu ziren, hala nola *modernitatearen paradigmaren* ideia. Euskararen gizarte tokia nola eratzten den diskurtso bakoitzean ikus daiteke ondorengo irudian:



Iturria: JAUSORO, Nekane (2010) *HIZNET 3.6. Hizkuntzen inguruko gizarte diskurtsoak*. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista. Donostia-San Sebastián. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Bestalde, Nekane Jausorok, Iñaki Martinez de Lunak eta Andres Davilak "Gazte donostiarren hizkuntzarekiko harremanak" ikerlanean hiru diskurtso nagusi hauen hainbat ezaugarri ematen



dizkigute<sup>9</sup> (gaztetxoaren eremuan kokatutako diskurtsoak izanagatik balizko elementuak aurki daitezke bertan). Lan hau mamitzearen ondorengo aspektuak jaso zituzten:

- ✧ Hizkuntzaren irudia
- ✧ Hizkuntzaren funtzioak
  - Jatorrizko funtzioa:
  - Funtzio mitikoa
  - Transmisiokoa
- ✧ Euskaradun eta erdaradunen arteko harremanak
- ✧ Euskararekiko inplikazio maila

Honela bada, eta goian aipatutako arloak aintzat harturik, hiru diskurtso ezberdinen ezaugarrien berri ematen dizkigute: kontrako diskurtsoa, indiferentzia diskurtsoa eta euskaltzalea.

Kontrako diskurtsoa: euskararekiko jarrera urruna eta agresiboa erakusten du, izan ere, euskararen gizarte izaera guztiz baztertzen du (JAUSORO, Nekane; 2010). Euskararen gaineko irudia aldiz, negatiboa da, eta "obligazio" bezala antzematen da.

Era berean, euskarak ez du jatorrizko funtzioa betetzen, egiteko hau gaztelaniari dagokio. Beraz, nortasuna gaztelaniaren inguruan osatzen da eta nortasun kolektiboaren erreferentzia bakarra Espainia da. Ildo honetatik euskara lekuko hizkuntza bezala ikusia da, beraz euskaradunak ez direnez, euskaldun edo "vasco" oso ezin izan direnez espainiar sentitzen dira.

"(...) azken finean esan gabe adierazten dutena hau da: zuen planteamenduak ez ditugu onartzen baina horrela nahi baldin baduzue, hala bedi, ez gara *vascos* ez dugulako onartzen *vasco* osoak edo erdipurdikoak egotea. Mekanismo perbertsoa da hau: beste muturreko diskurtsoaren elementuak norberaren argumentu bezala onartu bestearena kritikatzeko, eta aldi berean, norberarena babesteko."<sup>10</sup>

Hala ere, aipatutakoaren haritik, euskara eremu pribatura mugatzen dute, hots, euskara "*vasco*" batzuek duten hizkuntza da baina gizarteko hizkuntza gaztelania da oro har. Era berean, transmisioko hizkuntza gaztelania da diskurtso honetan, bai Euskal Herrian bertan, barrura begira, euskara gutxi batzuen hizkuntza baita eta gainera borondatezkoa, zein kanporako harremanei begira.

Antzera gertatzen da erreferentzia funtzioari eta funtzio mitikoari erreparatuz gero. Funtzio hauek kulturari eremu sakratu edo magikoari lotuta daude nagusiki eta kasu honetan euskararik ez

---

9 JAUSORO, Nekane; MARTINEZ DE LUNA, Iñaki eta DAVILA, Andrés (1998): *Gazte donostiarren hizkuntzarekiko harremanak*. In BAT, Soziolinguistika aldizkaria, 27. zk. Donostiako Udaleko Euskara Patronatoarentzat eginiko ikerketa (1994/95).

10 JAUSORO, Nekane (2010) HIZNET 3.6. *Hizkuntzen inguruko gizarte diskurtsoak*. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista. Donostia-San Sebastián. Euskal Herriko Unibertsitatea; 13. Or.

dakitenez diskurtso hau darabiltenentzako euskarak ezin dezake funtzio hauek bete. Euskara eta bere kultura, bere izatea, arrotza zaie eta ez dute ezagutzen.

Euskaradunekin dituzten harremanetan aldiz, komunikazio hizkuntza gaztelania da, euskarari komunikazio funtzioa betetzeko zilegitasunik eman ez eta ez dute onartzen tartean dauden euskaradunek euskaraz aritzea beraiek presente badaude. Azken batean hau koherentea da beraiek euskararekiko duten irudiarekin, pribatua eta borondatezkoa.

Azkenik, inplikazio funtzioari dagokionez, diskurtso honen jabeen inplikazioa hutsaren parekoa da. Euskara urrun eta arrotz modura bizi dutenez eta gaztelaniaz arazo gabe bizi eta jarduten direnez ez da inolako inplikaziorik ematen.

Indiferentzia diskurtsoa: diskurtso honetan ez da euskararekiko interes berezirik adierazten baina kontrako diskurtsoan ez bezala euskara ez da baztertzen. Euskararekiko ikuspegia estatikoa da, euskarak duen egoera dagoenetan onartzen baita eta ez da aldaketa beharrik sumatzen.

Oro har, euskararen gaia ez da problematizatzen, Euskal Herriko beste hizkuntza bat da, gaztelaniarekin batera, baina batzuek bakarrik ezagutzen dutena. Azken batean, euskara bertako hizkuntza badenez onartu egiten dute. Hala ere, euskara ez dute nortasunarekin lotzen eta euskalduna izatea bi elementurekin erlazionatzen dute: euskalduna da bertan jaio dena eta bertakoa sentitzen dena. Beraz euskarak ez du euskal nortasuna mugatzen edo baldintzatzen, hori beste batzuek sartzen duten elementua da. Era berean, diskurtso honetan hizkuntza kulturaren adierazle jotzen duten arren euskarari dagokionez ez dute zuzenean euskal kulturarekin atxikitzen. Hots, esan nahi da euskal kultura gaztelaniak zein euskarak osatzen dutela, honela euskara euskal kulturaren azpi-kultura bezala antzematen dutelarik.

"(...) euskararen kasuan ideia hori matizatu egiten da, ez da hain garbi ikusten: euskal kultura (cultura vasca) bi hizkuntzez osatzen da eta gaztelania jakinda gero ezagutzen duzu kultura hori. Testuinguru honetan, euskararen ezagupenak ematen dizun gauza bakarra kultura horren azpi-kultura bat ezagutzea da, hau delako kultura euskaradunaren irudia diskurtso honetan (...)." <sup>11</sup>

Zentzu honetan azpimarragarria da kanpora eta barnera begira azalerazten den dikotomia. Kanpora begira euskara bereizgarri den heinean barrura begira bereizlea dela irizten diote. Hau da, beste lurralde batzuekin berezitasun bat da euskara, barrura begira aldiz ez du nortasun bateratu bat osatzeko balio, aitzitik euskaldunak bereizten ditu dakitenak eta ez dakitenen artean.

Bestalde, hizkuntza komunikazio tresna bezala ulertzen delarik euskaraz edo gaztelaniaz harremanak izateari ez diote garrantzi berezirik ematen, beraien komunikazio hizkuntza gaztelania baita eta beraiek hizkuntza horretan bakarrik komunikatzen dira.

---

11 JAUSORO, Nekane (2010) *HIZNET 3.6. Hizkuntzen inguruko gizarte diskurtsoak*. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista. Donostia-San Sebastián. Euskal Herriko Unibertsitatea; 16. Or.

Hizkuntzak betetzen dituen funtzioei dagokionez aldiz kontrako diskurtsoa darabiltenen bestelako postura erakusten dute. Euskarak gaztelaniarekin batera betetzen du jatorrizko funtzioa, batzuentzat gaztelaniak besteentzat euskarak. Funtzio mitikoa aitzitik gaztelaniak beteko luke nagusiki, gaztelaniari zabalagoa dela irizten baitiote eta transmisio funtzioa berak betetzen baitu. Euskarak bete dezakeen funtzio mitiko a bere ezaugarri bereziek ematen diezaioketena da: jatorri ezezaguna duena, ezaugarri morfologikoak...

Transmisio funtzioa gaztelaniari dagokio. Gaztelania da euskaldun guztiek ezagutzen dutena beraz berak bakarrik bete dezake funtzio hori. Zentzu honetan euskara bigarren mailako hizkuntza da. Euskarak ez du balio euskaldun guztion artean komunikatzeko batzuk bakarrik ezagutzen dutelako, beraz gaztelania da balizko komunikazio hizkuntza. Ildo honetatik legitimazio ezberdina ematen diote gaztelaniari eta euskarari. Gaztelania hiri hizkuntza eta komunikazio hizkuntza nagusia den heinean hizkuntza legitimoa da (denek baitakite). Euskara aldiz herrietan bakarrik da hizkuntza legitimoa ez hirietan. Herrietan euskara normala da, ezagutza maila handiagoa delako, hirietan gutxi ezagutzen duten bitartean. Horrela hirietan, euskarak, hiru elementuk baldintzatutako legitimitatea du: errespetua, edukazioa eta komunikazioa. Halaber, lan munduari dagokionez euskarari legitimazioa onartzen diote zerbitzu/erakunde mailatan baina ez beste mailatan (idatzizkoan, harremanetan...).

Euskara ezagutzen duten eta ez dutenen arteko harremanei dagokionez indar berezia erakusten duen ideia komunikazioarena da. Komunikazioa dago beste ororen gainetik. Unean uneko egoeran komunikazioa baimentzea edo bideratzea da garrantzitsua, eta euskararen erabilera horrek baldintzatzen du nagusiki. Euskaradunek bi hizkuntzak dakizkitenez erdaldun bat tarteko dagoen komunikazio egoeretan gaztelania erabiltzeko betebeharra dute, bestelakoan errespetu falta izango litzateke. Hala, goian esandakoaren haritik, edukazioa eta komunikazioa. Euskaradunen diferentzia onartzen bada ere, banakako ezaugarri modura, erdaradun eta euskaradunen arteko integrazioa lehenesten dute. Nekane eta honi *borondate oneko asimilazioa* deitzen diote.

"Adibidez, unibertsitatean, hizkuntz ereduen bereizketa -euskal adarra egotea- *murritzaitzat* jotzen da ikasleen arteko harremanekiko; harreman hauek zabalagoak izango lirateke ez balira eredu ezberdinak egongo, hau da, azken finean, denek gaztelaniaz ikasiko balute. Honek ez du esan gura euskal adarra ez denik onartzen; euskal adarra onartzen da euskaraz ikasteko eskubidea onartzen delako, baina, integrazioaren ideia hor dago eta ezberdintasunak onartu beharrean berdintasunak bilatzen dira."<sup>12</sup>

Diskurtso honetako kideek euskara beraien harremanetan batez ere arazoa dela ikusten dute. Euskarak berezitu egiten ditu eta komunikazio zailtzen du (eztabaida batean norbaitek euskara erabiltzen duenean adibidez, hark esandakoa denek ez baitute ulertu). Honela sarri euskaradunek taldean euskara erabiltzen duten bitartean bakarrik daudenean gaztelania erabiltzen dutela iruditzen zaie eta hau onartezina zaie, gutxietsi egiten baititu.

Euskararekiko inplikazioari dagokionez bi maila bereiz daitezke. Batetik , maila ideologiko batean

---

<sup>12</sup> JAUSORO, Nekane (2010) *HIZNET 3.6. Hizkuntzen inguruko gizarte diskurtsoak. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista*. Donostia-San Sebastián. Euskal Herriko Unibertsitatea; 22. Or.

euskarari gizartean leku bat onartzen zaio, arestian aipatu bezala, herrietan hitz egiteko maila minimoa eta hirietan ulerpen maila. Bestetik, goiko inplikazio hori praktikara eramaterakoan ez dute urratsik gauzatzen, ez gazte bezala ez guraso bezala. Azken batean euskararekiko kokapen positiboa izan arren jarrera eroso hartzen dute.

Euskaltzale diskurtsoa: diskurtso honetan euskararekiko interes nabarmena dute. Euskarak gaur egun duen egoera dena da baina hau arrazoi jakin batzuegatik da eta alda daiteke. Era berean, beste diskurtsoetan ez bezala, euskara nortasun osagarri garrantzitsua da.

Euskara berezia da, ez da beste hizkuntzen berdina, Euskal Herriko hizkuntza izaki beraien berezko hizkuntzat dute. Gaztelania euskararekin batera Euskal Herrian dagoen beste hizkuntza bat da, baina hau nolabait inposatutakoa izanik euskara hobesten dute (euskara dakiten zein ez dakiten euskaltzaleen artean). Dena den, euskara nortasun osagarri izanagatik ere ez da funtsezkoena. Nortasun kolektiboari dagokionez, funtsezkoa atxikimendu sentimendua izango litzateke. Euskaradun abertzale eta ez abertzaleak bereizten dira, hots, euskaradunak bi taldeetan aurkitzen dira, beraz atxikimendu sentimendua lehenesten da.

"Diskurtso honetan, bi *atxikimendu komunitate* bereizten dira: *euskararen atxikimendu komunitatea*, kasu honetan, euskal-abertzale munduari soilik lotuta (euskaltzaleak izango lirateke), eta *gaztelaniaren atxikimendu komunitatea*, euskal- ez abertzale munduari lotuta (hots, ez-euskaltzaleak nahiz eta euskaradunak izan). Honen arabera, euskaradunak komunitate bietan daude (gehiago daudela euskararen atxikimendu komunitatean azpimarratu arren). Honela, atxikimendu mota hizkuntza baino gehiago azpimarratzen dute. Horren ondorioz, jendearekin eta beste gazteekin ez dute hizkuntza komunitateak dakartzan eragileak erabiltzen (euskaraduna/erdaraduna izan), atxikimendu komunitatearenak baizik (euskaltzalea izan ala ez)."<sup>13</sup>

Hizkuntzak duen jatorrizko funtzioari erreparatzen badiogu, diskurtso euskaltzalea dutenen artean euskarak betetzen du nagusiki funtzio hau, bai euskara etxeko hizkuntza izan duten euskaradunentzat zein gaztelania izan dutenentzat, sinbolikoki bada ere. Bestetik, euskarak betetzen du batez ere funtzio mitikoa, euskarak izaera berezia baitu: Europako zaharrena da, hizkuntza bat da eta ez dialekto bat, beste hizkuntzengandik berezitua...

Transmisio funtzioa aldiz gaztelaniak betetzen du, egunerokoan gaztelaniaz bizi baitira nagusiki. Adibidez hirian komunikazio funtzioa gaztelaniak betetzen du batez ere. Hala ere, funtzio honek duen garrantzia nabarmena denez, diskurtso hau darabiltenek euskararentzat komunikazio funtzioa aldarrikatzen dute, euskara *ofiziala* eta *gure hizkuntza* baita. Laburbilduz, esan daiteke euskaraz aritzeko komunikazio legimitaterik ez dela sentitzen oro har nahiz eta hori izan helburu ideologikoa. Era berean, erreferentzia funtzioa ere gaztelaniak betetzen du, gaztelaniazko kultur erreferentziak jasotzen baitituzte gehienbat.

Euskaradun eta erdaradunen arteko harremanei dagokionez euskaradunak errespetua eskatzen

---

13 JAUSORO, Nekane (2010) *HIZNET 3.6. Hizkuntzen inguruko gizarte diskurtsoak*. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista. Donostia-San Sebastián. Euskal Herriko Unibertsitatea; 25. Or.

dute, errespetua maila kolektiboan, euskal hiztunek euskara bertako lehen hizkuntza den heinean eta hitzun moduan errespetua eskatzen dute. Bestetik, ez da euskara ezagutzea eskatzen baizik euskara maitatzea, gaztelaniaz egin arren euskararekiko atxikimendua. Oro har, euskararekiko ardura sentitzen dute diskurtso honetan aurkitzen direnek, euskararen arazoa behar lukeen bezain ondo ez dagoela da eta bi hizkuntzen arteko harremana gatazkatsutzat jotzen dute besteak beste gaztelaniari egozten baitiote euskararen galera (erabileran batez ere).

### **1.2.1.- Konpromiso maila epela dutenen edo Bai bainakoen diskurtsoa<sup>14</sup>**

Esti Amorrortu eta beste kide batzuek erdaldunek euskararekiko duten iritzi eta jarrerak ikertzeko egin ikerketan bai-bainakoa izendatu duten giza-taldea identifikatu eta talde honek irudikatzen duen diskurtso edo jarreraren ezaugarriak azaldu dituzte. Bai-bainako hauek euskararen alde egonik, bere aldeko politikari mugak jartzen dizkiote eta euskararekiko jarrera konplexu, epel eta askotan kontraesankorra erakusten dute.

Bai-bainakoez azpimarratzen dituzten ideia nagusiak ondorengoak lirateke:

- ✧ Euskararekiko kokapena
- ✧ Bi munduko egoeraren bizitzea: euskarari uztartutako mundua, mundu ezezaguna
- ✧ Euskarari eta hizkuntza-politikari ematen zaion babesari mugak
- ✧ Euskara ikasteko edo euskaraz hitz egiteko motibazioak
- ✧ Seme-alaben hezkuntza-eredua aukeratzeko norberaren edo besteen arrazoiak
- ✧ Bai-bainakoen euskara ikastea
- ✧ Aurreiritziak, usteka eta balorazio orokortuak eta euskararen moduko hizkuntza gutxituen ahulezia gutxiesten duten arinkeriak.

Giza talde honek euskararen gainean egiten duen balorazioa orokorrean positiboa da eta bertako hizkuntza bezala antzematen da. Alde honetatik ez da nahikoa babesten eta mantentzearen aldeko ahalegin nahikorik egiten. Hala ere bide honetan garatu beharreko hizkuntza politikari mugak jartzen dizkiote.

Era berean bi mundu bereizten dituzte, euskararen mundua eta gaztelaniaren mundua. Badakite euskararen mundu oso bat dagoela baina ez dira bertan kokatzen eta beraz ez dute ondo ezagutzen. Ezjakintasun hau aurreiritzi eta beldur jarrera bihurtzen da maiz. Ildo honetatik euskara sustatze aldera egin beharreko hizkuntza politikari mugak jartzen dizkiote. Batetik, euskara ez da edozein gaitasun baino garrantzitsuagoa. Bestetik, tokian tokiko egoera aintzat hartu behar da eta ez da gauza bera Zeanuri edo Barakaldo. Era berean, adostasuna hobesten dute eta ezarri beharreko ezein politikan beharrezko jotzen dute bi hizkuntza komunitateen adostasuna, maiz euskara inposatua antzematen baitute eta norbanakoaren aukeratzeko eskubidea bermatu beharra aldarrikatzen dute. Azkenik erdaradunekiko errespetua aipatzen da, edukazio ona edukitzea

---

14 AMORRORTU, E. ORTEGA, A. IDIAZABAL, I. BARREÑA, A. (2009) *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak*. Gasteiz: Eusko Jaurilaritza.

euskararik ez dakien norbait tartean dagoen egoeretan.

Halaber, aurreiritzi eta uste orokortu asko erakusten dutela diote Amorrortu eta besteek: elebitasunaren ingurukoak, bigarren hizkuntzaren ikaskuntzaren gainekoak, hizkuntza ezberdinen balioei buruzkoak zein euskarari buruzkoak, bai positiboak baina baita negatiboak ere. Hauetako batzuk goian aipatutako bi munduen gaineko pretezipzioarekin loturik daude baina beste batzuk agerian ez dauden jarrera negatiboekin dute zerikusia. Aurreiritzi hauen artean honakoak identifikatu dituzte:

- ✧ Hobe hizkuntza bakarra, hizkuntza bakarraren abantailak azpimarratzen direlarik.
- ✧ Ezinezkoa da elebiduna izatea, ezinezkoa pertsona batek bi hizkuntza maila berean menperatu eta erabiltzea.
- ✧ Zaila/ezinezkoa da heldutan bigarren hizkuntza bat ikastea.
- ✧ Lehen hizkuntzan ikasi behar da arrakasta akademikoa izateko.
- ✧ Euskara oso zaila da.
- ✧ Eredu elebidunen eta euskara prestigiatzearen alde hartutako neurrien bitartez euskarak etorkizun zoriontsua izango duenaren gaineko adierazpenak.

Bestalde, ikerketan jasotako euskararekiko diskurtsoen artean euskarak enpresa munduan duen erabileraren ingurukoak ere aztertu dituzte.

"Euskarak enpresa pribatuan duen presentziaz mintzo den informazioa zenbait mahai-ingurutako partaideek sektore honi egindako erreferentzietatik dator, baita, enpresa-munduko goi-mailako karguekin izandako hiru elkarrizketetatik ere: Eibar (talde elkarrizketa), Sorluze (banakakoa) eta Bilbo (banakakoa)." <sup>15</sup>

Orokorrean, euskara enpresa pribatuetan eta lan-munduan normalizaziotik urrun dagoela sumatzen da, ez du funtzio argirik betetzen eta besteak beste gune soziolinguistikoaren araberakoa da batez ere bere presentzia. Beste balio edo irizpideak gailentzen dira euskararen gainetik, hots, irabaziak, lanpostuak, errentagarritasuna, nazioarteko komunikazioa... zama eta kostu bezala antzematen delarik.

Beraz, enpresa mailan ez da euskara nahikoa erabiltzen:

- ✧ Enpresetan euskalduna den langile-kopurua urria edo txikiegia delako.
- ✧ Enpresa kokatzen den ingurune soziolinguistikoak baldintzatzen du, euskaldunen masa kritiko baten existentziari eta sendotasunari eraginez.
- ✧ Euskara dakiten gazteak aurkitzea ez da zailtasuna.
- ✧ Euskaldun "peto-petoak" diren guneetan erabilera arrunta dela sumatzen da.

---

15 AMORRORTU, E. ORTEGA, A. IDIAZABAL, I. BARREÑA, A. (2009) *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak*. Gasteiz: Eusko Jaurilaritza. 133. Or.

- ✧ Lan-munduan euskararen eta gaztelaniaren erabilerari dagokionez bi mailatan adierazten den egoera diglosikoa:
  - Erabilera-esparru gisa, euskal gizartean euskararen komunikazio-funtzioa ez dago enpresa-munduarekin identifikatua.
  - Euskara erabiltzen den enpresetan, komunikazio funtzio batzuetan bakarrik ematen da
- ✧ Euskararen presentzia enpresa txiki edo familiarretan handiagoa da beste handi eta multinazional izaera dutenenena baino.

Bestetik, euskararen balio instrumentalari eta integratzaileari erreparatuz gero, ondorengo bi ideiak nagusitzen dira:

- ✧ Euskarak ez dirudi balio-integratzaile argirik duenik enpresa munduan.
- ✧ Euskarak, berez, ez du balio instrumentalik, eta enpresari ez ohi dio balio erantsirik ematen.

Azkenik, enpresa munduan euskara normalizazio bidean urratsak eman ditzan dituen oztopo eta zailtasunen gaineko ideia ezberdinak jaso dituzte. Oro har bi alde edo alderdi bereizten dira jasotako diskurtoetan. Batetik, euskararen alde aktiboki agertzen diren kideek erabilera bultzatzearen aldeko neurriak hartzea balioesten dutenak egongo lirateke, bestetik aurkakotasuna erakusten dutenek enpresa mundua arau eta interes propioez zuzentzen dela eta beste interes batzuk lehenetsi behar direla argudiatzen dute.

- ✧ Zuzendaritza edota langileen inplikazio falta.
- ✧ Euskara zama gisa, batez ere zama ekonomiko gisa.
- ✧ Inposizio-pertzepzioa eta enpresaren beraren helburu eta erritmoaren arabera erabateko adostasunaz jokatzearen ustea.
- ✧ Esparru pribatuan euskararen normalizazioaren aldeko parte-hartzearen mugak.
- ✧ Normalizazio-bidean enpresa pribatuetan abian dauden neurriak eta lortutako aurrerapausoen pertzepzioa.
  - Hizkuntza plan baten beharra
  - Euskararen normalizazio ISO-rako eskakizuna izatea
  - Euskara lanpostu batzuetarako beharrezko eskakizuna izatea
  - Enpresako egunerokotasunean euskararen presentzia indartzea: idatzizko komunikazioan eta kartelak euskaraz zein gaztelaniaz egotea, baita bilerak euskaraz egitea lor dadin ahalegina egitea
  - Langileei euskara ikasi edo hobetzeko aukerak eskaintzea

### ***1.3.- Hizkuntza plangintza lan munduan***

Gaur egungo erronka garrantzitsuenetarikoa dugu arlo sozio-ekonomikoa eta lan mundua

euskalduntze aldera urrats esanguratsuak ematea. Azken hamarkadetan, dudarik gabe, aurrerakada nabariak eman izan dira hainbat arlotan, hala nola irakaskuntza, kultura edota komunikabideetan. Azken batean, batetik lan eremuari gure bizitzetako zati esanguratsu bat eskaintzen diogu. Bestetik aintzat hartu behar da gaur egungo gizartean lanak duen zentralitatea zein arlo sozio-ekonomikoak duen pisu nabarmena.

Hala bada, Fishman edo Txepetxek ere beraiei lanetan edota teoretan aintzat hartu izan dute. Fishmanek (FISHMAN, J; 1991) hizkuntza biziberritzeko 8 maila aipatzen ditu eta horietan 3.a da lan munduaren bere "Graded Intergenerational Disruption Scale" izenekoaren arabera. Txepetxek (SÁNCHEZ CARRIÓN, J.M.; 1987) aldiz, hizkuntza funtzioen sailkapena zehazterakoan lana, familia eta identitatearen ondoren kokatzen du; hizkuntza normalizazioan hizkuntzak galdu dituen funtzioak berreskuratzea nahitaezkoa dela dio. Halaber, gaur egun euskara sustatzeko abian dauden bi plan orokorrek kontutan hartzen dute: Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak (Eusko Jaurlaritza, 1999) zein Bai Euskarari Akordioak (Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua, 1999).



Iturria: Emun Koop. E. (2006)


Bestalde, lan munduan euskararen erabilera bultzatzeko zenbait arrazoi eman izan dira<sup>16</sup>:

16 EMUN KOOP. E. (2010) *HIZNET 5.3. Lan Munduko hizkuntza plangintzak; HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista*. Donostia-San Sebastián. Euskal Herriko Unibertsitatea. 8. or.



- ✧ Bezeroak gusturago izateko aukera ematen du
- ✧ Langileei aukera ematen die euskaraz egiteko, gogobetetzea handiago izango litzatekeelarik horrela
- ✧ Enpresari aukera ematen dio inguruan duen gizartean hobeto txertatzeko
- ✧ Enpresari lehiakortasun irudia ematen dio, zerbitzu osoagoa ematen duelako
- ✧ Aldaketarako gaitasuna adierazten du enpresa euskara bultzatzeko gai izan denean
- ✧ Kanpoko merkatuetan kalitatearen adierazgarri izan daiteke, globalizazio garai hauetan enpresek nortasun adierazgarriak behar dituztelako, eta horietako bat izan daiteke euskara

Era berean, badirudi, lan mundura helduko diren belaunaldi berriek nahiago izango dutela euskaraz lan egitea, besteak beste horretarako prestatuta ere izango direlako (irakaskuntza izandako aurrerapena kontutan hartzen badugu behintzat). Honen erakusgarri dugu Emunek 1999.ean MUko (Mondragon Unibertsitatea) hiru fakultatetan egindako galdetegiaren erantzunak:



Iturria: Unanue eta Intxausti (2002)<sup>17</sup>

Hala ere, lan munduan euskarak duen presentzia txikia dela-eta, sarritan ikasketak oso-osorik euskaraz egindako gazteek lanean hasten direnean hizkuntza aldatu eta gaztelaniaz lan egin behar izaten dute.

Beraz, lan munduan eta enpresa pribatuetan euskararen erabilera bultzatzeko arrazoi sendoak badaude. Baina noski, oztopo eta zailtasunak ere badaude:

- ✧ Egoera politikoaren ondorioz euskararen presentziak, bereziki Espainiako zenbait sektorerengan, izan dezakeen eragin negatiboa.
- ✧ Bertako bezeroen aldetik maiz ez da euskarazko produktuen eta zerbitzuen eskaririk antzematen, batzuetan hizkuntz kontzientzia faltagatik eta beste batzuetan, berriz, enpresek zerbitzua euskaraz emateko duten prestakuntzaren faltagatik.


<sup>17</sup> UNANUE, A. eta INTXAUSTI, N. (2002): *Kooperatibak eta euskara. Historia eta aro berri baten oinarriak*. Arrasate: EMUN Koop. E. eta LANKI Ikertegia (Mondragón Unibertsitatea).


- ✧ Langile asko ez daude behar bezala prestatuta euskaraz lan egiteko.
- ✧ Zenbait alorretan oraindik ere terminologia hutsune handiak daude euskaraz, eta horrek zailtasunak sortzen ditu enpresaren funtzionamenduan.
- ✧ Administrazio publikoaren aldetik kasu batzuetan euskara sustatzen den arren administrazio bereko hainbat atalekin dokumentuak euskaraz tramitatu ahal izateko zailtasunak izaten dira.

Euskara ez da berria lan munduan, nahiz eta XX. Mendeak aurrera egin ahala gaztelania nagusitu zen lan munduan egoera politiko eta sozialaren ondorioz. Deba ibarrean euskalduntzat dugun kooperatiben mugimendua ere gaztelaniaz sortu zen eta euskara baztertua izan zen 1950eko hamarkadako hasiera haietan (Unanue eta Intxausti, 2002). 70. hamarkadaren aldera, egoera politiko eta sozialaren eraginez euskalgintzaren loraldi berri bat ezagutu zen eta horrek ere bere isla izan zuen Euskal Herriko enpresetan. Unanue eta Intxaustik bi bide erabili zirela aipatzen dute:

- ✧ Euskalgintzaren bultzada: mugimendu askok bat egin zuten euskararen ofizialtasunaren alde, eta tartean enpresetan euskara ikasteko erraztasunak eskatzen zituzten. EKBk ere langileek osatutako euskara komiteak bultzatu zituen.
- ✧ Langileen ekimenak: 1978. urtean bilera garrantzitsu bat egin zuten Lazkaon Gipuzkoako zenbait lantegietako ordezkari eta hainbat neurri adostu zituzten.

80. hamarkadan jasandako krisi ekonomikoak, gizartean euskararen aldeko giroaren epeltzeak eta hizkuntza ikasteko prozesuaren iraupen luzeak, enpresetan euskara bultzatzeko metodologiaren hutsuneekin batera mugimendu haren beherakada azkarra eragin zuen. Honela bada, hamarkada honen bukaerarako zenbait eragile kezkatuta ageri zen. Testuinguru honetan, HPIN, HABE eta Elhuyar Kultur Elkarteak talde bat osatu zuten enpresetan euskararen erabilera bultzatzeko metodologia prestatu eta probatzeko. Lehen plan pilotua Antzuolan eman zen, Elay S.A.n. Zuzendaritzarekin euskara planari ekitea adostu zen eta Eusko Jaurlaritzak eta Elhuyarek plana diseinatu zuten, gerora Beasaineko CAF eta Arrasateko Ikerlan enpresetara zabalduko zen.





Iturria: Emun Koop. E. (2007)

Esperientzia pilotu hauen ondorioz ere 1998rako gorakada handia izan zuen euskara plana duten enpresen kopuruak.

Euskara plana duten enpresarik gehienak Gipuzkoan daude, horietako asko Debagoienan. Bizkaian gora egin du euskara plana duten erakunde kopuruak. Araban badira plan gutxi batzuk eta Nafarroa eta Ipar Euskal Herriari buruzko informaziorik ez badugu ere, lurralde horretan administrazio publikoak euskararekiko duen jarrera kontuan hartuta ez litzateke harritzekoa batere planik ez egotea horko enpresetan.

Enpresetan eta lantegietan euskararen erabilera bultzatzeko egun darabilgun metodologia Quebecen frantsesa normalizatzeko erabiltzen dutenetik hartuta dago. Herrialde honetako metodologia ezarri duen beste herrialde bat Katalunia dugu. Herrialde hauetan administrazioak hartu izan du arlo sozio-ekonomikoan hizkuntza normalizatzeko ardura (honela bada, normalizazio teknikariak ere administrazio langileak dira). Euskal Herrian, erakunde pribatuak ari gara administrazio publikoaren diru laguntza gabe enpresei aholkularitza teknikoak ematen, honek plana ezarri nahi duten enpresentzat zama ekonomiko handiagoa suposatzen duelarik.

Enpresetarako euskara planaren metodologiak 3 oinarri nagusi ditu:

- ✧ Helburua euskararen erabilera bultzatzea da: norabide horretan motibazioa eta ezagutza ere landu behar dira.
- ✧ Helburu lorgarri eta mailakatuak ezartzea
- ✧ Enpresako eragile guztien adostasuna lotzea

Oro har, planen nolakotasunari dagokionez ondorengo ezaugarriak izan beharko lituzkete:

- ✧ Borondatezkoak izan
- ✧ Parte hartzaileak
- ✧ Malguak
- ✧ Enpresari egokituak

Bestalde, plangintzaren barruan eman beharreko urrats ezberdinei dagokionez lau fase edo momentu bereiz ditzakegu:

- ✧ Planaren diseinua
  - Egoeraren diagnostikoa burutu
  - Helburuak eta ekintzak zehaztu
  - Egitura sortu
- ✧ Inplementazioa edo planaren ezarpena
- ✧ Etengabeko ebaluazioa
- ✧ Ekintza zuzentzaileak

## 2.- ARLO METODOLOGIKOA

Atal honetan, lan hau burutzeko aintzat hartutako irizpide metodologikoak azaltzen saiatuko naiz eta bereziki kontutan hartu ditudan aldagaiak zein erabilitako teknikaren gainekoak. Azken batean, sakontze egitasmo honen helburua euskarak lan munduan duen presentziaz ematen diren diskurtsoetan sakontzea izaki, bide horretan eman ditudan urratsak laburbilduko ditut.

Lehenik eta behin, Debagoienan lan egiten duten pertsonen euskarak lan munduan duen egoeraren gainean duten iritzia eta erakusten dituzten jarreraren berri jasotzeko orduan ondorengo aldagaiak zehaztu ditut:

- ✧ Euskararen ezagutza: bi taldetan banatuko dira, euskal hiztun osoak eta erdaradunak, hau da AB/BA
- ✧ Euskararekiko jarrera aitortua edo agerikoa
- ✧ Euskara planaren ezarpena enpresan

Diskurtso hauetan sakontzeko erabilitako ikerketa teknika aldiz "Sakoneko Elkarrizketa" izan da. Gizarte diskurtsoa birsortu eta aztertzeko garaian "Eztabaida Taldeak" egokiak izan daitezke ere baina lan honetarako eta bereziki goian aipatutako aldagaiak aintzat hartzekotan burutu beharreko eztabaida talde kopurua eta azterketaren dimentsioak zailtasun eta konplexutasun handiak ematen dizkio. Alde horretatik lehengo teknikaren aldeko apustua egin dut.

Sakoneko elkarrizketaren bitartez pertsona batek, elkarrizketatuak, gai bat, kasu honetan euskarak lan munduan eta bereziki berak lan egiten duen enpresan duen egoera nola ikusten duen, berak zein bizipen dituen eta oro har zein iritzia dituen ezagutu genezake. Horrela, gaiaren gaineko informazioa (euskararen egoeraren nondik norakoak) eta berak dituen iritzia pertsonal eta sentipenak jaso genitzake. Azken batean, lortuko duguna da, pertsona ezberdinek gaiaren gainean duten ikuskera pertsonalak irudikatzea.

Dena den, sakoneko elkarrizketak bere abantailak izanagatik ere baditu hainbat muga. Abantailen artean ondorengoak aipatu genitzake (JUARISTI, Patxi; 2003):

- ✧ Sakoneko elkarrizketetan sortzen den konplizitatea edo etxekotasun giroa egokia da anonimatua edo intimitatea eskatzen duten gaiak aztertzeko.
- ✧ Aztertzen diren gaien arrazoiak, zergatiak edota ondorioak sakonean ezagutzeko, eta informazio aberatsa lortzeko aukera ematen du.
- ✧ Teknika oso ona da gai bati buruz informazio gutxi dugunean.
- ✧ Elkarrizketak ikerlariak berak egin ditzakeen heinean, beste teknika batzuk baino merkeagoa izan daiteke.

Desabantailen artean aldiz:

- ✧ Elkarriketatuek arazoak izan ditzakete euren iritziak behar bezala egituratzeko eta azaltzeko.
- ✧ Ikerlaria, ia gehienetan, elkarriketatuaren menpe dago. Elkarriketatuak zehazten du zer den garrantzitsua eta zer ez, eta ematen digun informazioa berak nahi duenaren arabera dago.
- ✧ Elkarriketatuaren itxurak, galderak egiteko moduak, ahotsak e.a. Eragina izan dezakete elkarriketatuaren erantzunengan, eta hori balio gabeko datuen sorrera izan daiteke.

Beraz, elkarriketen kalitatea zaintza aldera komenigarriak izan daitezke ondorengo aspektuak kontutan hartzea:

- ✧ Aurkezten diren gai edota galderak argiak izan behar dira.
- ✧ Ahots tonua, galderak egiteko modua, gaiak aurkezteko era edota elkarriketaren jarrera orokorra ahal bezain egokienak izan beharko dira.
- ✧ Informazioa grabatzeko erabiltzen diren gailuen eragina ahal bezainbeste murriztu behar da.
- ✧ Elkarriketatuen adiera eta, oro har, elkarriketa oztopatu dezaketen inguruneak ekidin.
- ✧ Gidoi berbera erabili eztabaida guztiak egiteko.

## 2.1.- Diseinua

Beraz, goian esandakoak kontutan hartuz, zehaztu ditugun aldagaiei jarraiki zortzi pertsona elkarriketatzena joko dugu, hauekin eremu guztiak hartuko baititugu. Ondorengo taulan irudikatuta ikus ditzakegu:

|                         | Euskara Plana abian |               | Euskara Plana ez |               |
|-------------------------|---------------------|---------------|------------------|---------------|
|                         | Euskal hiztuna      | Erdal hiztuna | Euskal hiztuna   | Erdal hiztuna |
| Aurkakoa / Indiferentea | A                   | B             | C                | D             |
| Borondatetsua Eragilea  | E                   | F             | G                | H             |

Aitortutako edo ageriko jarrerari dagokionez beharrezkoa da aldagai honek duen konplexutasuna kontutan hartzea. Hau da, elkarriketatuek euskararekiko duten jarrera aldekoa edo

epela/aurkakoa izateak eragin nabarmena du beraiek osatuko duten diskurtso eta emango dituzten iritzi eta balorazioetan. Baina era berean, arlo hau kontutan hartzeak bere zailtasunak ditu eta erakusten edo antzematen diren jarrerak interpretatzerakoan aurreiritziek eta bestelako mugek pisu nabarmena dute. Bestalde, hainbat jarrera gizarte mailan desagokitzat edo politikoki ez zuzentzat jotzen diren heinean hauek ezkutuan gelditu ohi dira. Era berean, jarrerak orokortu eta sinpleegi taldekatzeak ere nolabaiteko distorsioa sor dezake.

Beraz, elkarrizketatuengan ez da beti alde aurretik esperotako jarrera aurkituko. Alde honetatik, elkarrizketatuen jarrera irizpidetzat erabili bada ere helburua iritzi edota ikuskera ezberdinak aurkitzea izan da eta ez hainbeste elkarrizketatuak jarrera jakin batetan ezartzea, aurreiritziek eragin handia izan dezaketen taldekatze batean kokatuz.

Azkenik, elkarrizketatuen artean nolabaiteko homogeneousutasuna zaintze aldera eta eskualdean industri sektoreak duen eta izan duen pisu nabarmenari jarraituz elkarrizketatu guztiak Debagoienako industri erako lantegietako langileak dira.

Bestalde, elkarrizketak aurrera eramaterako orduan ondorengo gidoia erabili da:

SAKONEKO ELKARRIZKETARAKO GIDOIA:

Nire burua aurkeztu. .

Elkarrizketaren zergatia; HIZNET – SAKONTZE EGITASMOA,

Elkarrizketaren helburu orokorra azaldu:

- ✧ helburua enpresan euskararen egoera nola ikusten duen eta berak zein iritzi duen jakitea dela azaldu.

Azpimarratzekoak:

- Anonimotasuna zainduko da eta azken helburua bere iritzi zintzoa jasotzea dela.
- Galdera edo gai batekin deseroso sentitzen bada mesedez argi esateko eskatu eta helburua momentu atsegina izatea ere badela adierazi.
- Elkarrizketa egiteko prestutasuna eskertu eta grabagailua erabiltzeko baimena eskatu

Aurre-beroketa:

- ✧ Nor den, nongoa den, enpresan zenbat denbora doan, aurretik beste nonbaiten lan egin duen...

a.- SARRERA: (10')

- ✧ Euskararekin izan duen harremana: etxean jaso duen, ikastolan ikasi duen, euskararik ikasteko aukerarik izan duen, zein bizipen izan dituen
- ✧ Euskararen egoera nola ikusten duen gaur egun.

b.- EUSKARAREN ERABILERA ENPRESAN (15')

- ✧ Zein da euskararen erabilera, enpresako egunerokotasunean
  - ahozko erabilera, bileretan, enpresako organoetan
  - kafe orduan, laneko kontuez eta bestelakoez,
  - dokumentuetan, komunikazioan, megafoniako ohar eta telefono deietan.

- Lan tresna, makina, ordenagailu eta erabiltzen diren softwareetan.
- Bezeroekin, hornitzaileekin, administrazioarekin.
- dokumentuetan, lan-orri eta betetzen dituzten fitxa zein bestelakoetan.

c.- EUSKARAREN NORMALKUNTZA LAN MUNDUAN (15')

- ✚ Euskarak lan munduan asko egin al du aurrera?
- ✚ Zein aurrerapen eman dira
- ✚ Eta zure enpresan/lantegian?
- ✚ Zein zailtasun eta oztopo ditu euskarak lan munduan
- ✚ Instituzio / gobernuak babes nahikoa ematen al diote lan munduko euskararen normalizaziori

d.- EUSKARAREN NORMALKUNTZAREN GAINEKO JARRERAK ENPRESAN (20')

- ✚ "garrantzitsua ez da zein hizkuntza erabiltzen den baizik lan ondo egitea eta enpresa aurrera ateratzea"
- ✚ Zein leku izan beharko luke euskarak lantegiko erabileran,
  - maila formalean? Eta maila informalean?
- ✚ euskarak enpresan leku gehiago izan dezan aldeko lankideek zein iritzi eman ohi dituzte?
- ✚ euskarak enpresan nahiko leku edo egoera ona duela dioten lankideek zein iritzi/argumentu eman ohi dituzte?

e.- EUSKARA PLANA: (20')

- ✚ Enpresan euskara plana abian dute:
  - Noiz jarri zen euskara plana abian
  - ezagutzen al du enpresako euskara planaren nondik norakoak. Zein helburu dituen? Zein lan edo egiteko burutzen dituen? Zein baliabide dituen (teknikaria, euskara batzordea...)
  - Berarentzako euskara planak duen garrantzia. Zergatik? Beharrezkoa al da?
  - Enpresako aginte organoak inplikaturik al daude euskara planarekin. Euskara planak babes instituzionala ba al du?
  - Zer onura ekartzen dio euskara planak enpresari.
  - Zer kalte ekartzen dio euskara planak enpresari.
- ✚ Enpresan euskara planik ez dute:
  - Enpresak ba al du interesik euskara plana martxan jartzeko? (euskara plana zer den azaldu beharrezkoa bada)
  - Euskara Plana beharrezkoa edo komenigarria ikusten duen euskararen normalizazioan aurrera egiteko
  - Euskara Plan bat abian jartzekotan zein funtzio eta egiteko izan beharko lituzke.
  - Zein lehentasun.
  - Euskara planak bideratzeko Elhuyar edo Emun bezalako aholkularitza enpresaren laguntza beharko al lukeen edo komenigarria litzatekeen.



### 3.- SAKONEKO ELKARRIZKETAK

#### 3.1.- UNAI

Unai gazte oñatiarra dugu. Ama hizkuntza euskara du eta bere lehen hizkuntza da, bere harreman gehienetan euskaraz aritzen delarik, lagunekin, etxean, lankideekin... Halaber, ikasketak euskaraz egin ditu nagusiki eta lan mundua da gaztelania erabiltzen duen gunen nagusia. Euskaltzalea ere bada Unai, bertsolaria, Oñatiko bertso eskolan irakasle dabil eta lanean ere enpresako Euskara Batzordeko kide da.

Oro har, ez du gaizki ikusten euskararen egoera bere inguruneari begiratuz gero behintzat, Oñati.

"Nire ikuspegia da, Oñatin behintzat euskara ondo mantendu dugula, baina Oñatitik kanpora irteten bazara eta gazteengan batez ere..., ikusten dot Oñatin jendea nahiko kontzientziatuta dagoela euskararekin"

"Orokorrean bestela ez dut ikusten euskara, esaten dute galbidean dagoela baina nik Oñatin ez dut ikusten ez hobeto ez okerrago, bai kalidadearen inguruan baina (...)"

Aldiz, egun Euskal Herrian ezarritako hizkuntza politika era negatiboan baloratzen du.

"(...) nire iritzia pertsonala da desastre bat dela"

Unaiek, euskararen erabilerari dagokionez, lan munduan sartzerakoan aldaketa sumatu du. Hala ere, bere enpresan ezagutza handia denez euskaraz aritzeko aukera badagoela iruditzen zaio eta batez ere erdalduna den mundua izan arren poliki-poliki dinamika horri buelta ematen ari zaiola baloratzen du.

"Lan munduan bai izan da aldaketa bat, ikustea kalean euskararekin zein erabilera egiten den eta gero lanean zer egiten den, bai, niretzako *txokantia* izan da"

"Hala ere, zortea izan dut eta laneko nire gunen naturala, nire inguruan lanean ari direnen %90 euskalduna da eta alde horretatik nahiko aukera daukat euskaraz aritzeko"

"Hemen zortea dugu euskararen ezagutza oso altua dela"

"Gutxiengo batek euskaraz ez dakielako denok erdaraz egin behar al dugu? Beno orduan, hori aldaketan goiaz poliki-poliki"

"Nik uste dot dinamika batetan sartuta gaudela non erdara erabili behar zela bileretan, erdara erabili behar zela gauza inportanteetan. Orduan, hortik irtetea kosta egiten zaie. Beraz, adibidez, jende horrek ni ikusten nau eta euskaraz egiten dit, baina beste euskaldun baten kasua izanez gero hari erdaraz egiten diote. Dinamika hori oraindik apurtzeko dago."

Bestalde, kooperatibetan euskararen erabilerari dagokionez egoera hobetzat jotzen du.

"Orokorrean euskararen egoera lan mundua horrela dago. Kooperatibatan hasi gara zaintzen pixka bat gaia baina SA-tan ez dakit nola egongo den egoera, pentsatzen dut ez dela oso ona egoera. Badakit Cegasan zerbait ari direla baina Zahorren ez da ezer egongo..."

Berarentzat lan munduan euskararen normalizazioaren oinarrian, batez ere, euskaradunon hizkuntz eskubideak bermatzea dago eta oso beharrezkotzat jotzen du.

"Guztiz beharrezkoa ikusten dut lan munduan"

"pertsona bat lanera datorrenean, sartzen den ordutik irteteko ordura arte euskaraz aritzeko bere eskubidea bermatuta izatea da niretzako normalizazioa"

Beraien kooperatibari dagokionez euskararen normalizazioan aurrera urratsak ematen ari dira. Erabilera hobetu da baina bereziki kontzientziazio fase batean daudela uste du Unaiek. Hala ere, negozioaren nolakotasunak normalizazio prozesua baldintzatzen duelakoan dago: bezero nagusiak Euskal Herritik kanpora, nazioartekotzeak...

"Aurrera pausoak eman ditugu. Azken urtetako neurketak hartzen badituzu asko aurreratu dugu. Ahozkoan, komunikazioak, oharrak elebitan, e-mailak, pertsonaleko mezuak... Hori dana askoz euskaldunagoa da orain"

"Gure enpresan orain gaude kontzientziazio momentu baten, hau da hobetze orokor batetan. Orain konturatzen ari gara %90a euskaldunak garela baina ez dugula euskaraz egiten"

"Gertatzen zaiguna beti arazo berdina da, delegazioetako jendea dugu, Madrileko jendea eta horrela beraz... "Madrileko tipo hau dator eta ezin dugu euskaraz egin", beti, beti dugu arazo berdina."

"Gure negozioa nolakoa den, kanpoan gaude, estatuan zehar ere lekua askotan gaude, horiek ere bazkideak dira gure modura. Zentzu horretan oso zaila gertatzen da euskarak hor behar duen garrantzia izatea."

Bestalde, instituzio eta erakunde publikoetatik ez du behar den babesik edo laguntzarik antzematen, batzuetan oztopo ere badira. Ildo honetatik kooperatibak ere, erakunde modura, ez dira benetako eragile, kooperatibistak beraiek baizik.

"Erakundeengandik... horregatik da hain garrantzitsua gure kontzientzietan eragitea, zeren erakundeetatik ez gaituzte ezertan laguntzen. Gero eta folklorikoagoa da (...) nik daukadan inpresioa hori da".

"Beste alde batetatik administrazioan arazo izugarria dago, gura dot esatea, normatibak, arauak, danak eta batez ere Europatik eta datozen normatibak, beti ageri da gutxienez gaztelaniaz egon behar dutela. Orduan inoiz ez dizu esaten euskaraz egon behar duenik baina gaztelania bai. Orduan horrek egiten dizuna da gaztelania bermatzera jotzea"

"Ez Kooperatiba eta hizkuntza lotura bereziki, baizik kooperatibatan ari den jendea hizkuntza gaiarekin mugitu egin dela. (...) Ez dut ikusten kooperatiba erakunde modura arduratuta baizik bertan lanean dabilen jendea"

Unaienez gako nagusietako bat euskaldunon jarreraren eta jokaeran aurkitzen da. Euskal hiztunok gara maiz euskara ez erabiltzeko hautua egiten dugunak eta horri buelta eman behar zaio. Alde horretatik hiztun bezala dagozkigun eskubideak aldarrikatu eta gauzatu beharko genituzke. Erdararako joera indartsua da, barneratuta dugu, eta askotan inguruneke erreferentzi ezberdinei segika imitazioa jotzeko ohitura dugu.

"Nik sumatzen dudana da jendearen jarrerarekin duela zer ikusi zuzena, baina zuzena ehuneko ehunean. (...) Uste dut kontziente izan beharko ginatekeela zer egiten dugun euskaraz eta zer erdaraz"

"Nik uste dot euskaldun jendea gaur egun garela arazo handia. Jarrera kontua da, ez daukagu kontzientzia puntu hori eta orduan horrek eramaten gaitu, errazenera edo beti ikasi dugun mekanismo horretara, dela gaztelara jotzea"

"Gure kasuan, ikusita %90ak euskaraz dakigula, arazoa motibazioa da. Motibazioa da arazoa. Eta nik horregatik diot gure arazoa jarreretan dagoela. Eta ez bakarrik enpresan munduan, gizarteari begira ere bai."

"Argi izan behar duguna ezin didala inork behartu niri erdaraz egitera. Eta hori zergatik ez dago argi oraindik, ba hemen guda zibil bat egon zan, euskara debekatuta egon da urte askotan... eta jende horrek hori hemen ezagutu egin du. Guk ez dugu hori ezagutu baina jende horrek hori ezagutu du eta ulertzen dut jende horrek gaur egun ere horrela jotzea."

"Bai uste dut horrelako jendea dagoela, lanetik kanpo euskaraz bizi dena, etxean, kalean, lagunekin, baina lanera etorri eta erdaraz egiten duena nagusiki, batez ere gure aurreko generazioek. Hor gu sartu behar gara, kontzientziazte kontu horrekin, eta esan behar dugu aizu gu euskaldunak gara eta euskaraz egin behar dugu"

"Zuzendaritza mailan, horrelako lanpostuetan euskararik ez dakien jendea sartzen baldin baduzu inguruko lankideen joera beraie hizkuntzarako da. Horrek asko baldintzatzen du"

Halaber, euskararen alde aritzeko borondatea nabarmentzen du. Euskararen alde lan egiteko borondatea badago, eta noski, baita lan munduan bertan ere. Bada bulkada bat hor.

"Niri adierazgarria egiten zait, adierazgarria da, hizkuntza kontuagatik ez bada zuk jartzen duzu hor beste egitasmo bat eta ni ziur nago ez zuela hainbeste jende batuko, hor badago beste zerbait. (...) Ikusi zenbat jende dagoen prest euskararen alde lan egiteko. Guri lan denbora kentzen digu, gure nagusiendako beste buruhauste bat da. Baina, hala ere, borondate hori dago. Beraz harrigarria da hori egotea. (...) energia hori hor dago"

Euskararen erabilera sustatu edo lan munduan leku gehiago izan dezan aurkako jarrerak batez ere erdaradunekin lotzen ditu, euskaraz ulertzeko gaitasunik ez dutenekin. Hauen aldetik beldurra sumatzen du, eroso bizi dira gaztelaniaz eta euskara lan eremuan zabaltzea arrisku bezala antzematen dute. Jarrera hauen aurrean euskaraz aritzeko eskubidea aldarrikatzen du. Dena den, erdaldunengana hurbildu eta gauzak azaltzea komenigarria dela nabarmentzen du.

"Ni euskalduna naiz, eta beraz nire lehen hizkuntza euskara danez nik ez dut horrelako ondo azalduko esan nahi dudana beste hizkuntza batetan. (...) niri erderia eskatzen ari zaidanak argi izan behar du hori"

"Ez dot ulertzen jende horren jarrera, zeren azken batetan nik berari uzten diet beraienarekin jarraitzen, erdaraz egitea dute nahi duten dena, nik ez ditut behartzen euskaraz egitera, orduan, berak zergatik behartzen nau ni gaztelaniaz egitera."

"Orduan zer gertatzen da beldurra duzula. Nik Oñatin 30 urtez bizi den pertsona batek ez ulertzea asteko egunak euskaraz, ezinezkoa da hori. Hor beste konponente bat dago, beste elementu bat dago, eta elementu hori da oso komodo sentitu diela hemen joan daneko 30 urteetan. (...) hori aldatzea euskaldunen esku dago, euskaldunok sentitu arazi behar diegu jende horreiri euskararen behar gehiago"

"beldurra izatea normala da... kontutan izan behar dugu jende honek ez duela bat ere arazorik izan urteetan gaztelanieraz bizitzeko, baina orain bat-batean jendea hasten zaio euskaraz, deseroso sentitzen den egoera batetan dago eta ez daki horri nola aurre egin. Askotan dira zentzu gabeko beldurrak, ostia honek euskaraz daki nik ez hemendik kendu egin behar naute... dira zentzurik ez duten gauzak, gaur egun gure enpresan hizkuntza politika eta lan politika ez daude batuta."

"Askoz ere errazagoa da Euskal Herrian gaztelaniaz bizitzea euskaraz baino, errazagoa. Orduan, guk egin behar duguna da jende honi... kontzientziatzea. Nik oso argi daukat nik euskaraz egin gura dudala eta zuk ezin didazu esan ezetz"

"Bi motatako erantzunak izaten ditugu, guk euskaraz hasten garenean (kontseilutxoan), badau baterenbat eskua altxatu eta kexa adierazten duena. Orduan guk azaldu egiten diogu zer dagoen, zergatik den horrela eta ez da ezer gertatzen, onartu egiten delako, eta badakigulako arrazoia dugula eta gehiengo batek onartzen duela. Baina badauz beste batzuk isildu egiten direnak eta gero atzetik kexaka dabiltzanak eta hori bai, hori oso peligrasua da."

"Ea, gu euskaldunak gara, nik euskaraz egiteko eskubidea daukat eta zu zara euskaraz ez dakiena,

zu zara arazoa daukazuna, informazio guztia idatzirik daukazu erdaraz, baina nik ez dudana egingo da beste denei erdaraz egin zuk euskaraz ez dakizulako. Hori ondo adieraztera heltzen bagara, ondo eta lasai, ez dute arrazoirik, tripetatik esanda bai baina arrazoituta ezin digute esan euskaraz ez egiteko. Gutxiengo batetan egonda ere, nik eskubidea daukat euskaraz egiteko"

Enpresak abian duen Euskara Plana, 2006an ezarri zen nahiz eta jada 2002an euskararen erabilera bultzatzera zuzendutako mugimenduak eman ziren kanpoko enpresa batekin lehen diagnostikoa burutuz, baina lau urte pasa behar izan ziren diagnostikoa ikusitakoei era egituratu batetan heldu arte.

"Ni hemen nagoenetik 2002tik edo hasi zan pixka bat mugimendua euskararen inguruan zerbait egiteko. Eskaera batzuk egon ziren Kontseilu Errektoreari, Kontseilu Sozialarekin ere hitz egin zen eta saiatu zen jartzen, kontseilu soziala dagoen modura area bakoitzeko pertsona bat dagoena ordezkari gisa, ba horrelako zerbait egiten euskararekin. Zer gertatu zen? Ba ez zegoela egituratuta, ez zegoela, gure artean batu arren ere ez zuela estruktura bat. Orduan, hor, lehenengo kontaktuak hasi ziren kanpoko enpresa batekin eta lehen diagnostiko bat egin zen, puntu batera arte heldu zen. Baina gero, horren jarraipenarekin... ez zen lortu. Ez dakit zein politika erabili zen baina ez zen aurrera eraman hori dena. Hor, frustantea izan zen hor parte hartu genuenentzako ikusten duzulako lan bat egin duzula baina ez dela aurrera eraman."

"Gero, 2006an edo erabakia hartu zen eta hor erabaki zen hau aurrera eramateko estruktura bat jarriko dugu, pertsona bat ekarriko dugu kanpotik, lagunduko diguna hau dena aurrera eramate, batzorde bat egingo dugu, euskara talde batzuk egingo dugu... Eta horrek lagundu diguna da batez ere, ba, estruktura bat badaukazu, heldu leku batzuk badaukazu..."

Euskara Plana garrantzitsua da, euskarak abian jarri zenetik aurrera egin baitu bere enpresan, helburu nagusi bezala euskal hiztunen eskubideak bermatzea duelarik. Euskara planetik egindakoen artean, bereziki, egindako komunikazioa eta diagnostikatzea edo neurtzea azpimarratzen ditu.

"Esango nuke gure enpresan euskara plana martxan jarri denetik euskararen egoera asko hobetu dela, asko, batez ere jendea kontziente egin delako erdaraz zenbat egiten dugun."

"Gure misioa da, gure enpresan jendeak euskaraz lan egiteko eskubidea bermatuta izatea. Eta euskara batzordea horretara bideratuta dago."

"Euskara Batzordeak ondo egin duena izan da komunikatzea, jendeak jakitea zer egiten ari dan eta zein dan enpresan euskarak duen erabilera"

"Azkenean guk zer egiten dugu, neurtu, ikusi zer hobetu daitekeen eta azkenean daukagun lan tresnekin, ba, horretara goaz."

Euskara Planak urratsak eman ditzan eta euskararen normalizazioan aurrera egitekotan funtsezkoa iruditzen zaio enpresako organoen inplikazioa. Alde honetatik garrantzi handia ematen dio

Kontseilu Errektoreak emandako babesari. Hala ere, oraindik, euskara beste edozein arlo bezala enpresak berak kudeatzeko pausuak eman behar dituela uste du. Hots, enpresako gestio planetan bertan txertaturik beharko lukete euskararen normalizaziora begirako helburu eta neurriek. Hor dago aurrera begirako erronketariko bat.

"Garrantzitsua izan da ere Kontseilu Errektorearen babesa. Azken batetan hori ez badaukazu ez daukazu ezer, zeren Euskara Batzordea osatu genezake lau pertsonak baina gu ez gara ezer. Orain, Kontseilu Errektoreak badio eskubide batzuk bermatu behar direla ba hori bada"4

"Hor asko balio izan du, Kontseilu Errektoreak guri babesa ematea eta gero jendeari adieraztea, jendeak ikustea, estruktura bat dagoela hor eta lan bat egiten duela jendeak horren alde. Nik uste horrek asko baldintzatu duela eta hortik goazela hobetzen."

"Kontseilu sozialetik bai, gero orain arte izan dugun presidentea nik uste du nahiko sartu dela, oso aktiboa izan dela euskararen alde eta... erakundeko organoak, ba ez dakit, kontseilu errektoreak babesa beti adierazi izan digu baina ez du pausorik eman bere aldetik, diru laguntzak eta eman direnak destinatu dira baina ... agian, baleike jende hori gehiago inplikatu ahal izatea. Zuzendaritza batzordean berdina."

"Hor dago gauza bat azpimarratu behar dena. Gaur egun Euskara Batzordeak badauka gestio plan bat baina egun ez dut uste hori enpresako gestio planean sartuta dagoenik. Eta nik uste dut hori dela pauso bat, enpresako gestio planak esatea: ah bale, euskara bultzatzea ez da Euskara Batzordearen ardura bat, gure ardura da. Oraindik pauso hori emateko dago, ez dago barneratuta. Baina beno nik uste dut jarrera hori aldatzen doala, gero eta gehiago ikusten delako batzordearen lan hori eta erakutsi egiten delako. Jarraipena, Kontseilu Errektoreak, ez du egiten baina guk bai egiten duguna da deskargu bat Kontseilu Errektorean. Eta hori da oso inportantea, bai kontseilu errektorean eta bai kontseilu sozialean, jendeak jakiteko gu zertan gabiltzan"

"Ideala zer izango zen? Kontseilu Errektoreak hori barneratuta eduki, zuzendaritza batzordean sartuta egotea hori"

"Aurrerapausoa izan da, guk bai baina kontseilu errektorea ere gurekin dago eta jendeak badaki guk zer egiten dugun. Orduan, jada ez da bost pertsona daudela hor euskararen alde beraien gauzak egiten, hor Kontseilu Errektorea dago pertsona hauei egiteko esaten. Bai, hori ezberdina da."

"Falta zaiguna instituzionalizazioa da oraindik."

"Gure estatutuetan ere jartzen du, bi hizkuntza direla ofizialak."

Bestalde, Euskara Plana kudeatzen eta ezartzen laguntzeko komenigarritzat jotzen du aholkularitza enpresa baten laguntza, bitarteko tekniko eta esperientzia baitute. Hala ere, azken helburua, arestian aipatutakoaren haritik, enpresa berak euskararen gaia beregain, era integral eta natural batean, hartzera heltzea litzateke.

"Guretzako oso baliagarria izan da, zeren askotan galduta zaude, eta hor izatea norbait laguntza ematen dizuna, beste esperientziak ezagutzen dituen... ba horrek egiten dizuna da askotan begiak erai"

"Euskara Batzordean erabakiak hartzerakoan pertsona hori ez badago kontatuko dotzuna beste enpresa batzutan nola egiten den ba erabakiak hartzea askoz zailagoa litzateke. Baina beti enpresa horren ardura poliki-poliki gutxitzen joan eta gu ardura gehiago hartzen."

"Helburua izan behar du azkenean lehen esaten genuena, Zuzendaritzako gestio planean euskararentzako apartadu bat egotea"

Euskara planak ekar ditzakeen onuren artean bi azpimarratzen ditu: lankideak euskaraz lan egiteko aukera izatea, horrela erosoago arituko baitira, eta bestetik hizkuntza aniztasunaren kudeaketan esperientzia eta eskarmentua hartzea. Hau baliagarria izan daiteke beraien enpresan, nazioarte mailan presentzia garrantzitsua baitute.

"Estruktura hori sortu aurretik jendearentzat bai zen gehiago zerbait folklorikoa".

"Argiena, bertako jendeak gusturago lan egingo duela."

"Jartzen badidazu aukeran, bi enpresa egoera berdinen, ezaugarri berdinekin, baina bat euskalduna eta bestea ez, duda gabe ni euskaldunera joango naiz. Eta ni bezala jende asko"

"Jendea gusturago lan egitea, jendeak ahal izatea bere hizkuntzan aritzea, eta beste askatasun bat emango du horrek enpresan"

"Bi hizkuntzatan trebatzen baldin bagara hemen, eta nazioartekotzeari begira, hizkuntza ezberdinetan moldatu behar gara eta alde horretatik bai ikusten dut positiboa (...) erdara eta euskararekin moldatzen bagara, gero errazagoa izango da..., beste baten izango da ingelesa, beste baten frantsesa..."

Planak ekar ditzakeen kalteak aldiz: denbora, esfortzua eta dirua. Baina ohartarazten digu hau sarri aitzaki modura erabiltzen dela eta maiz aztertu beharko litzatekeela benetan zenbatera arte den kostua.

"kaltegarriak esfortzua eta dirua, azken batetan hori inbertsio bat da, baina beno hori ere aztertu egin beharko litzateke, aitzaki bezala ere erabiltzen da eta baina... Hemen pasatu zaigu inori ezer esan gabe euskaraz jarri zerbait, errotuluren bat kasu. Lana ondo egin, natural egin, bateren bat etorri den arte eta esan hori ezin dela egon euskaraz. Orduan, zein da hor gain-kostua, erdaraz jartzea, hori da gain-kostua. Zein da arazoa orduan, legeak behartu egiten zaituela batzutan erdaraz jartzea"

Euskara planik ez duten enpresei begira, hasiera baterako, aholkularitza edo kanpo laguntza gomendatzen die, betiere aintzat hartuta helburua kanpo laguntza murriztuz joatea eta ardura guztia enpresak berak bereganatzea dela.

"Lehengo kontua egin behar dutena da beraien buruari galdetu: gura dozue edo ez. Zertarako nahi duten, pittin bat lehen esan duguna, gura dozue folklorea edo benetan... ostra hemen ikusten dugu sakondu egin behar dela. Orduan, hala pentsatuz gero nik behintzat egingo nuen da aholkularitza enpresa batekin diagnostikoa egin, zeren horretarako ez daude jantzita eta ohiturarik ez dute. Gero aholkularitza hori kontratatu aurrera egiteko... gure kasuan behintzat balio izan du ekturura bat martxan jartzeko, bizkar hezurra emateko. Bizkar hezur hori enpresak jarri dezakeela... hobeto, askoz hobeto. Baina nik oso zaila ikusten dut, egun dugun ingurune linguistikorekin hori lortu ahal izatea."

Orokorrean, Unaiantzat euskarak lan munduan balio gutxi dauka, bereziki nazioarteko testuinguruari begiratzen badiogu, eta bere enpresa testuinguru horretan ari da. Bestalde ideia hau euskarak komunikazio hizkuntza bezala duen zilegitasunarekin ere lotzen du. Hau da, egun, enpresan euskarak ez du komunikazio funtzioa betetzen eta horretarako zilegitasunik ez duela dirudi, baina aurrera begira horrekin hautsi egin behar da.

"Nola esaten dizuten zuri, bertsotan eta euskeriaz, horrekin ez zoaz inora, Soralezetik aurrera horrekin ez daukozu ezer, alperrik zabiltza, zuk ikasi erdaraz, ikasi ingeles... bai, bai, baina nirea euskeria da"

"Argi dagoena da euskarak ez digula dirurik ematen. Euskarak dirua emango baliguke, denok egingo genuen euskaraz"

"Nik ez dut uste euskaraz lan egitearren errazago egingo dugunik, ezta ere diru gehiago irabaziko dugunik. Gure merkatua ez da Euskal Herrira zuzendutako merkatua, gure bezeroa ez da euskalduna eta ez da berak nahi duena guk euskaraz egitea, berak nahi duena da produktua ona izatea."

"Bai ulertzen dut egoera ekonomiko zail batetan, ez egotea euskararentzako egon beharko litzatekeen laguntza dena, ahalegin ekonomiko guztia... nik ulertzen dut ezin dela dena goizetik gauera aldatu."

"Gaur egun egiten dena da ulermena jarri beste ezereen gainetik. Orduan, erdaraz denok dakigu, eta egiten dena da gaztelaniaz. Nik uste dut hori etorkizun batetan apurtu egin behar dela. Zentzu horretan guk egin dugu kontseilutxoan, gehienak euskaldunak dira, bi erdaldun edo badaude eta orduan guk egin duguna da beraiekin egon, adierazi %98a euskalduna den leku batetan dena gaztelaniaz egiteak ez duela inongo zentzurik eta jaso dugun erantzuna nahiko positiboa izan da, positiboa bai erdaldunen aldetik"



Azkenik argi nabari da Unaiantzako euskara oso barruko zerbait dela, bere nortasunaren osagarri garrantzitsua, gurasoengandik eta arbasoengandik jaso duguna eta zaindu beharrekoa. Gaztelaniarekin gatazka sumatzen du, gatazka euskaldunoi euskaraz aritzeko eskubidea aitortzen ez zaigulako. Hala ere, gatazka honi itzulia emateko aukerak eta bideak badaudelakoan dago, aintzat hartuz desio duen Euskal Herri euskaldun hori ere neurri batetan idealizatuta dagoela. Bestetik, ardura euskal hiztunengan dagoela irizten dio eta jarrera aldatu beharra azpimarratzen du, ohitura eta erdararako joerak gaindituz.

"Gure hizkuntza da, hizkuntza ez da arazoa, gu gara arazoa. Guk hori jaso egin dugu, jaso dugu gure gurasoengandik, gure gurasoen gurasoengandik eta ez dakigu nondik datorren (...) eta gustuko dugunok erabiltzea gura dugu, eta etorkizun bat eman gura diogu horri. Orduan, ez dago beste erarik hizkuntzak aurrera egiteko, gure hizkuntza berreskuratzeko horrelako gauzak ez baldin baditugu egiten. Zentzu horretan uste dut ere gure aurrekoekiko, jaso dugunarekiko, zor bat dugula."

"Askotan ikusten dut, egoera horietan jendeak beldurra duela edo, kontra egiten dizun jende horregatik... baina zu lasai bazoaz eta euskaraz egiten baduzu naturaltasunez ikusten da jende hori desmuntatu egiten dela. (...) gertatu izan zait Corte Ingelesera joan eta euskaraz egin eta besteak erdaraz erantzun, baina euskaraz ez egiteko esan gabe, horrela aritu, bera erdaraz eta ni euskaraz, eskerrik asko eta eskerrik asko, eta ondo, natural. Eta gero, ostra, erosketak euskaraz egin ditut!"

"Erdaldunen espirala da, zuk daukozu beharra erdaraz jakiteko, zuk, ez nik euskaraz jakiteko"

"Errespetuan kontua, betikoa, euskaldunak tartean bat erdalduna, errespetua eduki behar da"

"Honek badaki euskaraz? Jo ba niri sekula ez dost egin euskaraz. Hori oso kurioa da, eta asko gertatzen zaigu. Eta zergatik da naturala harekin euskaraz egitea eta nirekin ez, ni euskalduna izanik. Lehenengo harremana gaztelaniaz egin dugu eta gero kosta egiten zaigu aldatzea."

"Holako beldurrak kudeatzen jakin behar ditugu. Horrelako beldurren aurrean euskara bultzatzen ari garenok egin behar duguna da beraiek lasaitu, lasai hau horrela eta horrela da, honek horrela irtengo dau eta (...) eta beti izango duzu jende bat aurka dagoena baina nik ez nieke kasu handirik egingo. Lehen esaten nizuna, arrazoiaren bidetik joaten bazara ezinezkoa da beraiek zuri esatea ez daukazula eskubiderik euskaraz egiteko. Orduan, ikusten duzu pertsona horrek ez duela ezer jakiterik nahi euskararen gainean, beno ba nahiko, utzi bere bidetik. Kontseilu Errektoreak onartuta dauka hau eta guk egingo dugu Kontseilu Errektoreak esaten duena eta ez zuk esaten duzuna."

"Gure kontraesana gu gara"

"Gu gara gure hizkuntzari balioa kendu diogunak"

"Helduko da momentu bat non nik egingo doten euskaraz berak erantzungo dit erdaraz, nik egingo dut euskaraz eta berak erantzungo dit erdaraz eta horrela, nik euskaraz berak erdaraz. Hori litzateke egoera elebidun bat, ez?, baina hizkuntzez dakitenek diote hori ezin dela pasatu hori ez dela posible."

"Azkenean pena da baina, nik uste dot Euskal Herrian ez dugula inoiz izango guk gurako genukeen egoera hori, Euskal Herrian denok euskaldunak eta... ez dakit baina, oso zaila izango da hori"

### 3.2.- KOLDO

Koldo 55 urte inguruko Arrasatearra dugu eta Eskoriatzan kokatutako kooperatiba batetako lehendakaria da. Gurasoak erdaradunak izaki ama hizkuntza gaztelania du eta euskara ikasteko hainbat saiakera egin dituen arren ezin izan du ikasketa hauei jarraipenik eman. Aldiz, bi alaba ditu eta hauek badakite euskaraz, besteak beste Koldok eta emazteak argi izan zutelako alabak ikastolara bidali behar zituztela euskara ikas zezaten. Koldoren enpresan, orain urte batzuk, saiakera egin bazen ere, egun ez dute euskara planik martxan.

Koldoren ustez, gaur egun euskarak duen egoera hobera doa, aurrerapausoak eman dira eta inoiz gaztelaniak duen egoera berera helduko dela iruditzen zaio. Bestalde, gune geografiko bakoitzaren ezberdintasunak aintzat hartu beharra nabarmentzen du.

"Yo creo que sí va a mejor, poco a poco se van dando pasos y llegará un momento en el que estará al mismo nivel que el castellano. Pero hay que tener en cuenta las diferencias que hay en las diferentes provincias de Euskadi. (...) En fin, no es lo mismo la zona de Markina que Portugalete. Pienso"

Berak lan egiten duen kooperatiban euskal hiztunak beraien artean euskaraz aritzen direla dio baina erdaradunak gehiengoa izanik gaztelania da enpresako hizkuntza nagusia. Bestalde, enpresaren irudiari dagokionez, hala nola errotulazioa edo telefonoaren erantzungailua, euskararen presentzia zaintzen da.

"Sí en la empresa, los que saben euskera sí que hablan entre ellos. Pero bueno, quizás en esta empresa seamos más los castellano parlantes"

"En las empresas... (...) pues sí entre la gente que domina el euskera es algo habitual. Aquí en otras zonas no conozco. Concretamente en las cooperativas y así, pues sí, un poco como en la calle"

"En general, (...) la rotulación en la empresa sí esta en bilingüe (...) incluso el tema del contestador tenemos en euskera y castellano."

"Las reuniones en general se realizan en castellano, por el predominio del castellano. Con los clientes también predomina el castellano"

"La asamblea general concretamente es en castellano y el consejo rector también somos mayormente castellano parlantes y aparte me toca a mi dar bastantes explicaciones... pues sí, la reunión se hace en castellano"

Koldok normalizazioa bi hizkuntzak, gaztelania eta euskara, maila bera edukitzearekin lotzen du baina lehentasunak ezarri. Normalizazioa gutxienean instituzio publiko eta administrazioan eman behar da eta batez ere hizkuntzaren ezagutzarekin alderatzen du. Bestalde, aldagai geografikoaren

aipamena ere egiten du.

"La normalización quiere decir que tanto en la administración pública como..., por lo menos en la administración pública, que los dos idiomas estén equiparados. Es decir, que cuando vaya a un juzgado que el juez me pueda entender tanto en euskera como en castellano. Y creo que habría que empezar por ahí, por las instituciones. De hecho creo que se está haciendo así"

"Todo depende el ámbito donde se... pretender implantar el euskera... en Londres, pues no tiene sentido, pero aquí sí. Pretender implantar un plan de normalización del castellano en Nueva York, pues probablemente puede que tenga sentido, porque en cualquier parte de Nueva York te pueden hablar en castellano... con el spaninglish que están montando por allí ahora. Entonces, depende todo del ámbito geográfico en el que te muevas."

Euskararen normalizazioa enpresan, neurri batean, berez etorriko dela uste du, irakaskuntzaren bidez, hezitako generazio berriak euskaldunduta datozen neurrian. Beraz, normalizazioa batez ere ezagutzarekin lotuta daude eta gaur egun enpresan dagoen generazioa nagusiegia delarik euskara ikastea lortzeko etorriko diren gazteei erreparatzen die.

"No cabe duda que las nuevas incorporaciones, los chavales ya vienen en euskera (...) en el momento que nos vayamos jubilando los demás ese grupo generacional que viene... Pero ahora mismo que la empresa se normalice en cuanto al euskera lo veo un poco más complicado."

"La normalización del euskera... pienso que es más una labor más bien venidera, de los que vienen detrás"

"La normalización en la empresa... entre los que saben euskera no va ser muy difícil, entre los demás, los otros dos tercios, no es tan fácil. Uno tiene el ordenador ya lleno (...) Lo que puedes llegar es, con cierta edad, igual es a entender"

Bestalde, enpresa barruko komunikazioa bi hizkuntzatan egiteko gai izatea izango litzateke euskara normalizatzearen helburu nagusia, lekuan lekuko ezagutza maila kontutan izanik. Ildo honetatik zerbitzua egoki ematearekin (bezero euskaradunei dagokionez) ere lotzen du.

"Que la comunicación dentro de la empresa pueda realizarse tanto en castellano y en euskera, la documentación pueda realizarse tanto en castellano..., depende de la reunión, igual no... parece absurdo que tengas que presentar doble documentación cuando la reunión se puede dar en euskera solo. En caso de que estés con un grupo de personas que solo dominen el castellano pues la documentación en castellano"

"Si hay documentación que tienes que sacar para todo el colectivo de la empresa, pues tendrás

que sacar en las dos, en euskera y castellano"

"En caso de los clientes... tanto de lo mismo, hay que saber a quien se dirige, no es lo mismo a un cliente de Oñate que uno de Zaragoza. Es decir, tenemos que dirigirnos al cliente con el idioma adecuado"

Egiteko honek, euskara normalizatzek, bere zailtasunak ditu Koldoren irudiko. Hizkuntzaren ezagutzan gora egiteko denbora behar da eta, besteak beste, idatzizkoan nahikoa gaitasun ez eta gaur egungo langile asko alfabetatu gabe dagoenez irakaskuntzak jokatzeko duen papera azpimarratzen du. Zentzu horretan instituzio publikoetatik laguntza gehiago beharko litzatekeela pentsatzen du eta erakunde pribatuaren egoera administrazioan euskararen ezagutza garatzeko egiten denarekin alderatzen du.

"Pienso que la gente trabaja sus ocho horas, la jornada laboral que tiene que trabajar y bueno pues... y ese esfuerzo que supone aprender un idioma, y además como el euskera tan..., bueno pues si fuese el portugués que tiene raíces latinas... pues igual es más fácil. El euskera requiere su tiempo."

"Por eso la normalización del euskera en la empresa no solo es hablar en euskera sino que la rotulación... presentaciones y esas cosas... Por esto, para estas cosas hace falta escribir y tiene que venir por la educación de las generaciones venideras."

"A la hora de las empresas, yo creo que más ayudas debería de haber, si es lo que queremos claro."

"Tengo claro que las primeras personas que tienen que aprender euskera son los que están en las instituciones... el funcionariado... me parece correcto. Luego para que el funcionariado aprenda, todos aportamos, es decir, deja su trabajo y va a aprender euskera. Pero claro, todo eso en una empresa como se traduce, quien paga todo eso."

"Por lo menos más ayudas."

"Si nosotros tuviésemos las ayudas que tienen en la administración, seguramente nosotros también iríamos a aprender euskera."

Euskararen inguruan enpresa barruan urratsak ematerakoan ez dio enpresako organoen inplikazioari berebiziko garrantzirik ematen. Beraien kooperatiban ere egindakoak lankide batzuek izandako iniziatiba edo eskaeraren ondorioz izan dela dio eta bereiziki bi norabidetan: euskara eskolak hartzeko aukera sustatuz eta enpresaren irudi, errotulazio eta dokumentazioa euskaratuz.

"No ha habido una decisión de un órgano concreto. Vamos a ver, ha habido una predisposición por

parte de unas personas"

"Lo organizamos en dos líneas de acción. Una poner a disposición clases de euskera y la otra... rotulación, poner documentos en euskera, albaranes y tal... el teléfono..."

Enpresan euskararen presentzia hobetzeko hartutako neurrien onurarik nagusia irudiarekin erlazionatuta dago, bezeroek edo kanpokoek ikus dezatela euskararekiko ahalegina egin dutela.

"Yo creo que más que nada a la imagen de la empresa... que la persona que viene de fuera... que diga por lo menos estos algo se han movido. (...) y luego la documentación que se ha creado. La persona que luego viene, eso ya lo tiene."

"El contestador del teléfono... Pero claro como nosotros trabajamos tanto en el país vasco como para fuera pues tenemos que tener en dos."

Euskara Plana martxan jartzea interesgarria eta positiboa delakoan dago Koldo. Lehenetsuna hizkuntzaren ezagutza izan beharko litzateke eta, oro har, beharrezkoa ikusten du plana aurrera ateratzen lagunduko duen kanpoko enpresa edo aholkularitza zein laguntza tekniko.

"Yo creo que es interesante... siempre es positivo ¿no?"

"Yo creo que la prioridad debería de ser el conocimiento del propio idioma... sí, sí. Una vez que la gente empieza a expresarse en el idioma lo demás viene añadido"

"Tienes que hacer con una empresa de fuera porque... dentro ya tienes tus tareas de trabajo y no tienes tiempo para hacer algo más. Y es que... cuando tienes que hacer traducciones de manuales, tienes que tener una persona muy técnica para hacer esas traducciones (...) Entonces tiene que haber una persona que te ayude a desarrollar eso."

Oro har, Koldok ez du uste euskarak enpresari balio erantsi esanguratsurik ematen dionik, ez bada, goian jada aipatu den bezala, bezero euskaldunen aurrean eman dezakeen irudiagatik. Euskara enpresarentzat, funtsean, kostua eta ahalegin bat gehiago da.

Euskarak, oraindik ez du komunikazio funtzioa betetzen enpresa eremuan baina erabilera hobera doala sumatzen du eta ERKIDeko batzarretako esperientzia ekarri du gogora, non aurkezpenetan erabilitako gardenkietako hizkuntza eta hizlariaren hizkuntzarekin jokaten den. Joera hau egokia iruditzen zaio baina komunikazio funtzioa gaztelaniari dagokio nagusiki, denok ezagutzen duten hizkuntza baita.

"Finalmente cuando hubo falta de trabajo, lo primero que hicimos junto a otras medidas fue dejar el plan de euskera"

"Si tengo que dirigirme a un cliente que habla euskera, y yo no..., pues no da muy buena imagen... depende de..."

"Por ejemplo nosotros somos parte de ERKIDE (...) y se ha notado una diferencia terrible desde que las cooperativas de enseñanza se han integrado en ERKIDE. La persona que venia de una de estas cooperativas, en la asamblea general de ERKIDE, dijo lo que tenia que decir en euskera, y la presentación (...) era en castellano, es decir, se ve que se tiende. (...) yo creo que es una buena política que se está desarrollando"

"En otras reuniones se hace en euskera y castellano (...) cuando son cortas, de cinco minutos. Lo que no puedes pretender es que en una reunión que va a durar dos horas y pico que tengas que traducir en castellano y en euskera."

Koldorentzat euskara bada nortasun kolektiboaren ezaugarri garrantzitsu bat, bertako hizkuntza delako. Hala ere bertakotasun edo nortasun ezaugarri hori euskarak gaztelaniarekin batera konpartitzen du eta euskara bertako hizkuntzatzat badu ere, eta funtzio mitikoa ematen badio ere, kanpora begira komunikazio funtzioa zein prestigioa gaztelaniarena da nagusiki. Bestalde, Koldok euskararen mundua ezagutu nahiko luke, euskaraz ez jakitean zerbait galtzen ari denaren sentrazioa baitu.

"Ojala yo supiese euskera porque... porque sí, porque yo e nacido aquí, forma parte de la cultura de aquí. (...) esto no quiere decir que la lengua de Cervantes haya que abandonarla, con el cual te mueves por medio mundo."

"Como me gustaría saber euskera... cuando oyes la televisión y así... en euskera... porque intuyes que hay algo que te estas perdiendo"

"Además, pienso que... puedo estar equivocado pero... si no es la más antigua es de las más antiguas de europa"

"Es importante en el sitio que estas respetar la cultura de allí (...) de hecho yo a mis hijas, cuando eran pequeñas decidí que tenían que ir a la ikastola."

"Para mantener parte de una cultura... para mantener vivo un idioma... Lo mismo que en la calle, que en tu casa, en el trabajo..."

Azkenik, behin eta berriz azpimarratu duen gaia, dudarik gabe, belaunaldi berrien euskalduntzea eta irakaskuntzak jokatzeko duen papera izan dira. Koldoren ustez euskararen normalizaziorako

funtsezkoa den gaia.

"Las nuevas generaciones sí van a saber tanto hablar en euskera y castellano como escribir en euskera y castellano"

"Casi no se concibe que un chaval no sepa en euskera, aquí, en Álava no sé."



### 3.3.- ABEL

Abel errioxarra izatez, aspalditik bizi da Eskoriatzan eta bertako kooperatiba esanguratsu bateko kide da, lantegiko kontseilu errektoreko kide izaki. Euskaraz ikasteko saiakera ezberdinak egin izan ditu eta ulertzen duela eta erabiltzen saiatzen dela kontatzen du, besteak beste kontseilu sozialetan eta bestelakoetan euskaraz egitea ere egokitu baitzaio.

Euskararen egoera ez du gaizki ikusten euskararen ezagutzari dagokionez, bereziki berak euskararen normalizazio prozesua geldoago joango zelakoan baitzegoen.

"Yo en el trabajo me quedo extrañado... chicos, chavales que sus padres son andaluces que no saben ni decir bai, dominan el euskera perfectamente. Y han estado en las escuelas públicas y tal... Yo, personalmente estoy contento."

"Yo... bien por la edad que tengo, o no sé porque, el concepto que tengo del euskera... Yo por allí que empezó toda esta movida del euskera, las ikastolas y tal y cual... yo soy un hombre casado, que tiene dos hijos, me dije, si mis hijos son capaces de tener como lengua materna el euskera y hacer los estudios primarios en euskera, y si mis nietos... tengo una nieta también, es capaz de hacer una carrera en euskera... yo daba con el ciclo cerrado. Pero ha sido al revés, mis hijos han hecho una carrera universitaria en euskera... pues digo... se me ha adelantado en una generación."

Berak lan egiten duen kooperatiban euskararen erabilera egunerokoa da, ezagutza maila altua delarik. Alde horretatik positiboki baloratzen du enpresan dagoen euskararen erabilera. Ez bakarrik komunikazio eta errotuluetan zein dokumentuetan presente dagoelako baizik eta bilera eta batzarretan ere erabiltzen delako.

"Además es que toda la organización... hoy mismo ha venido la directora, a empezado con la reunión, en erderaz, luego en euskera, pum, pum, pum... y así ha ido..."

"En nuestro departamento se habla en euskera, con fluidez, casi todos saben y se relacionan en euskera."

"Esta más o menos... por ejemplo el tema de maquinas... tenemos en euskeraz y en erderaz... y bien en eso... siempre que tenemos que definir algo, en erderaz y en euskeraz"

"Y tenemos el compromiso de que cuando sacamos algo, algun comunicado y tal, de sacar en erderaz y en euskeraz."

"Nosotros cuando tenemos que hacer un pedido, y te puedo enseñar, está todo en euskera, o sea... pone nori eskatua, quien aprueba nork baimendua... y tal."

Bere kooperatiban 70. hamarkadan lehen urratsak eman zituztela diosku, baina laurogeigarren hamarkadako krisiaren ondoren geldialdia izan zela eta 90. hamarkadan berrartu zela euskararen gaia. Gerora, euskara plana abian jarriko zen gogoz. Zentzu honetan, pozik dago urrats garrantzitsuak eman baitira euskararen erabilera hobetze aldera.

"En el año 76 empezamos un poco con los programas de euskera. Nos quedábamos después del trabajo en clases de euskera. (...) y esas horas no computábamos. (...) Pero haya por los ochenta, con la crisis de los ochenta y tal, lo primero que se quita el euskera."

"Hacia los años noventa ya empieza la cooperativa a tomar el tema del euskera más en serio. Y se empieza a organizar talde, para ir al euskaltegi y tal. Y nos apuntamos un montón."

"Y en nuestra empresa se está haciendo mucho por mejorar el uso del euskera."

"El uso del euskera a mejorado mucho, increíble, ... desde que el año pasado que han ingresado una chica y Andoni, que saben euskera... se utiliza mucho."

"El ambiente del trabajo... se está mejorando mucho. Además se está forzando la máquina.. jo... en el consejo rector yo seré el que menos nivel tiene de euskera... pero es que hemos pasado del 30 al 50%... (...) no sé si bien o mal pero mis sudores me costaba, pero muy bien. (...) Yo ahí... sí, estoy contento."

Euskararen erabilera enpresan normalizatzeari ikusten dion zailtasun nagusienetakoa lan terminologia da. Ohitura falta edo zailtasunagatik lan terminologia gaztelaniaz erabiltzen da batez ere.

"Nosotros en el departamento hay muchos euskaldunes y tal, y se habla en euskera pero... sabes lo que pasa, que cuando empiezas con tecnicismos y tal, ahí ya se ha jodido"

"Yo con los compañeros les digo que me hablen en euskera pero cuando empezamos con tecnicismos... pues que se entienda... cambiamos al castellano, pero sino si, nos entendemos y tal"

"En las reuniones ha cambiado un montón. En nuestra reunión del consejo social, de nuestra planta, estamos ya a un nivel del 30% en el uso del euskera. A mí me ayuda mucho Asier, porque tengo que leer las actas en euskera... pero basta que empiece alguien a hablar en euskera ya empiezan todos. Pero claro cuando ya empiezan los tecnicismos ahí ya en erderaz"

"Intentamos hacer cosas, se han hecho pero a la hora de... yo creo que... se a frenado... ¿el salto cualitativo? ... que es lo que podemos hacer, cual es el mayor problema... yo creo que el tema de los tecnicismos y tal es la ostia. Y es el pasito que nos queda (...) porque aquí el 80% sabe euskera

y..."

Oro har, bere enpresan lan handia egin da, esfortzu handia eskatu arren ondo ari direnaren sentazioa du. Hala ere, lan asko gelditzen da bide horretan aurrera egiteko. Tartean, hizkuntza ezberdinen arteko elkarbizitza aipatu duelarik.

"A costado un montón... la normalización del euskera, yo casi me voy a otros diez o veinte años pero... es que para que sea fluido, sea estable y tal nos queda un montón de trabajo. Y nuestra empresa creo que está haciendo mucho esfuerzo, pero por normalización... creo que nos queda mucho todavía."

"Dar ese saltito... como normal, que el euskera sea normal... como el erdera o el inglés, nos va a costar mucho todavía. Claro, porque en erderaz y con el inglés tienes que convivir. Incluso en las relaciones internas... va a tardar... Creo que va tardar más tiempo en llegar al mundo laboral que en la calle, creo que va a tardar mucho más."

"Es que el mundo laboral es otro mundo... y así como el mundo exterior puede estar casi normalizado el uso del euskera, pero en las empresas nos queda mucho por hacer, porque es diferente, es otro mundo."

Instituzio publikoaren edo gobernuaren babesari eta ekinbideari dagokionez ez da oso optimista. Historikoki eragile sozio-ekonomikoak, bereziki enpresariak edo *burgesia* ez dira euskararekin konprometitu, eta gobernuaren jarrera agintean dagoen alderdiaren arabera dela ikusten du.

"Creo que la burguesía catalana por ejemplo, ha hablado más catalán de lo que se ha hecho aquí. Creo que históricamente la burguesía vasca ha hecho menos."

"Estén unos en la instituciones o estén otros... hace poco nos empezaron con que iban a eliminar el euskera para no sé que de un cargo público y tal... Es que, dependiendo de quién esté... a mí me parece bien que se exija el euskera, el EGA, y todas estas cosas... pero estén el PSOE, este el PP, estén los nacionalistas... cambia radicalmente. Se puede hacer muchísimo más."

"En las instituciones depende de quién esté se le puede dar un empuje o se le puede dar otro enfoque."

Dena den, lan munduan eta enpresa edo erakunde pribatuaren eremuan euskararen normalizazioak muga nagusi bat duela irizten dio: kostua. Euskararekin aurrera egiteko beharrezkoa da enpresaren inplikazioa, eta hori bere kooperatiban ikusten duen arren, zaila iruditzen zaio SA batek euskara normalizatzeko urratsak ematea.

"El coste... mira estamos en una empresa y olvídate de todo lo demás. Es la implicación. Nosotros ya te digo estamos como estamos y ya te digo que estoy contento. Pero en una SA... eso va a costar dios y ayuda.

"En el mundo laboral... que se va a gastar... una partida y tal para el euskera... muy difícil lo veo."

"Sobre todo cuando llegamos al principio siete del estatuto, la promoción del euskera y tal... yo suelo decirles, eh, en nuestra empresa estamos haciendo, ¿verdad? (...) les suelo preguntar ¿y aquí estamos haciendo? "

Orokorrean lankideak sentibilizatuta daudela uste du eta jendearen jarrera ona dela. Inoiz kexak izaten dira (bi aldeetara, bai bileraren batean euskara erabiltzeagatik edo euskara ez dakien teknikari berri bat kontratatzeagatik, adibidez) baina euskararen erabilera eta presentzia enpresako bizitzan nahiko natural bizi delakoan dago.

"Una vez uno sí que nos increpo... el director estaba con las transparencias en castellano y dando la charla en euskera y... oye tu, pero además uno que sabe perfectamente euskera. A que viene esto ahora"

"Creo que está bastante sensibilizada la gente, en que hay que recuperarla, y hay que utilizarla. Nos falta igual profundizar un poco más y preguntar a la gente que sensación tiene... pero estoy seguro de lo que va a salir... va a salir que le parece muy bien y que tenemos que seguir así. Aunque lo hiciéramos anónima."

"Si que se oye eso de... mucho euskera y mucho esto... y resulta que cogemos a un técnico que no sabe euskera"

"Y que es un coste y todo eso, aquí no lo he oído nunca, igual se piensa pero yo no le he oído nunca. Claro, es que aquí un coste puede ser todo... igual alguien también pude pensar que tengamos no sé que órganos, o que tengamos que informar de todo a toda la empresa es un coste."

Beraien enpresan martxan den euskara planari dagokionez, kooperatiba beraren inplikazioa azpimarratzen du.

"Con el Plan de euskera hacia el año 2000 o así se empezó con ganas."

"Incluso desde gerencia, oye tú que no te has apuntado, venga ya a apuntarte... porque desde gerencia tampoco se lo ha tratado como un coste. Yo pensaba que nos iba a pasar como en los años ochenta, cuando venga la crisis esto se paraliza, porque lo primero que se quita es el euskera,

pero no fue así."

"Estábamos un poco mediatizados por el entorno, por todo esto del euskera y tal... no éramos ajenos a la movida, digamos,... pero... luego... nosotros tenemos que hacerlo porque lo estamos diciendo, en los principios y estatutos y tal. (...) pero yo creo que desde el entorno se sentía presión, presión... de que estábamos haciendo cosas y apoyando a las ikastolas y tal... y que desde las empresas que no hiciéramos nada para promover el euskera... yo creo que esa situación nos estaba haciendo un poco de pupa o escocer un poco"

"Y que las instituciones... en ese sentido vale mucho... que las instituciones, los órganos de la empresa... que tengas una institución que sea proactiva yo creo que vale mucho."

"En nuestra empresa se ha hecho mucho desde la institución también, venga, venga, venga..."

Abelentzat euskara plana ezartzea funtsezkoa da. Beharrezkoa da gaia sistematikoki lantzea, neurtuz eta baloraturaz. Ildo horretatik ere euskara teknikariaren lana premiazkoa dela iruditzen zaio.

"Por ejemplo el tener un técnico de euskera, yo lo veía fundamental. (...) porque tu euskera no es el que pueda tener un chaval y tal... y el comité de euskera para que tracciones, para que impulse... también es fundamental."

"Por ejemplo, valoramos, cogemos el plan de gestión y valoramos como nos hemos quedado según los objetivos (...) y eso es el comité el que tiene que hacer un seguimiento y en un momento dado, lo que decíamos, pararse y... haber, qué tenemos que hacer para que el euskera se normalice."

"Yo creo que es fundamental... se marcha el comité, se marcha el esto de euskera y aquí... en tres años esto se acabo."

"Nosotros en el plan de gestión tenemos... tenemos los objetivos de euskera y tal. Además en la asamblea general también decimos. (...) nosotros sí, en nuestro departamento tenemos unos objetivos... en el de personal tienen unos objetivos más... en cuanto el uso."

Aldiz, euskara plana ezartzearen onura nagusi bezala horrek enpresari eta lankideei ematen dien gogobetetzea eta harrotasuna aldarrikatzen ditu.

"Aporta... joder pues ser diferentes... que decimos que hay que revitalizar el euskera... decir nosotros que... que no se pueden dejar perder los idiomas joder, que no puede ser. Yo creo que lo que nos tiene que aportar es satisfacción. Si miras qué nos aporta en los beneficios... pero joder

que eso no es todo."

Abelentzat euskarak ere lanean komunikazio hizkuntza eta lan hizkuntza izateko zilegitasuna badauka baina zalantzak ere baditu, esfortzu asko eskatzen baitu eta bere mugak baititu, hala nola, gorago jada aipatu den, laneko terminologiarena.

"Muchas veces... no te voy a decir que tengo sentimiento de culpabilidad, pero muchas veces... transparencias en euskera y tal... ¿pero si el objetivo que tenemos es el de informar estamos llegando? Parece que sí eh, pero... te queda la sensación de... Por eso yo empiezo en castellano, pongo las transparencias en euskera... Pero yo les animo a que hablen..."

"Por ejemplo... las intervenciones, este chaval, Garitaonandia, todas las intervenciones que hace, todo en euskera, pero todo."

"Es más fácil... por el termino... en castellano... que la pieza tal tiene fugas, que tiene poros y tal"

"Exige mucho esfuerzo, mucho esfuerzo... sobre todo esfuerzo personal."

Bestelakoan, euskarari lan munduan ez dio berebiziko baliorik sumatzen. Hala ere, euskara berreskuratzearen aldekoa da, euskara bertako hizkuntza baita eta hizkuntzak mantendu egin behar direlakoaren aldekoa baita. Alde honetatik, euskara mantentzeak duen goxotasuna aipatu du.

"Qué nos aporta empresarialmente, nada... hombre nada como empresa."

"Bueno yo me acuerdo de aquel que decía... y sus hijos saben euskera, pero decía aquello de... para que queremos el euskera si de aquí para fuera el euskera no vale nada. (...) pero oye, pero la dulzura de mantener un idioma no vale ¿o que?. Entonces hacemos una lengua internacional y nos olvidamos de todo... o que pasa. Es parte de nuestra cultura, te guste o no te guste, joder. Yo creo que eso está cambiando pero antes se pensaba así."

Azkenik, Abelek euskararekiko atxikimendua erakusten du, oso positiboki baloratzen du euskararen alde dagoen gizarte bulkada naiz eta garai batean euskarak izandako zapalkuntza eta prestigio eza ere aipatzen duen. Era berean, kooperatibek euskararekiko erakutsi duten jarrera ere baloratzen du.

"Yo suelo decir siempre, que si cuando yo vine aquí hubiese el ambiente que hay ahora con el euskera estaría haciendo bertsoz. Además es que era malo hablar en euskera... yo me acuerdo que en las tiendas y así los que eran caseros y tal, euskaldunes y tal hacían esfuerzos para hablar en castellano... yo me quedaba alucinado... pero era... era lo que había"

"La primera vez que tuve conciencia del tema del euskera fue en una asamblea de Fagor que se realizó (...) y uno del taller... empezó a hablar en euskera en la asamblea y se le abuchó.. o sea, que coño está pasando aquí. Entonces empecé a preocuparme un poco de toda la movida de las ikastolas, el nacimiento de las ikastolas y tal. (...) el que tu no entiendas el euskera eso no quiere decir que alguien no pueda expresarse libremente."

"Una lengua que ha tenido tan... tanta represión, pues hay que apoyar."

"Estamos en un valle donde las cooperativas han hecho mucho por el euskera, con las ikastolas... yo creo que el inguru es fundamental. Y todo el trabajo que se ha hecho desde las ikastolas... y eso hace mucho."

### 3.4.- JOSU

Josu 40 urteko Arrasatearra dugu, gurasoak euskaldunak ditu, Oñati eta Beasainekoak, eta ama hizkuntza euskara izan du. Gaztetatik ibili izan da saltsa ezberdinetan eta beti egon izan da euskararekin konprometitua: AEDko partaide (Arrasate Euskaldundu Dezagun), udalekuetan begirale, musika irakasle...

Jada hamarkada bat doa Arrasateko enpresa batean ingienari bezala lanean. Enpresa SA bat da eta nazioarteko enpresa talde baten barruan dago. Ezagutza maila zein den ez daki baina ziur dago eskualdeko beste enpresekin eta bereziki kooperatibekin alderatuta ezagutza maila dezente urriagoa dela.

Oro har, euskararen egoerak hobera egin duela baloratzen du, gutxienean ezagutzari dagokionez, baina euskararen erabileran bada zer hobetu.

"Erabileran ondion asko geratzen zaigu."

"Erabilerarena... saltzen digutena behintzat, grafiketan eta hori, ematen du apurka-apurka badoala gorutza."

"Eusko Jaurlaritzak egin dauen politikia... hemen euskarak izan dauen bultzadia... ba... esan dotsutena, hemen dau kanpotarren seme asko euskaraz dakitenak. Zentzu horretan bai irabazi dou, gero askok ez egin arren."

Enpresa barruan, nazioarteko talde batekoa izaki, berez hizkuntza ofiziala ingelesa dela diosku, maiz komunikatu edo zirkularrak ingelesez heltzen direlarik. Bestalde, zabaltzen diren oharrak gaztelaniaz izan ohi dira eta batzuk ele bietan, mezuak zabaltzen dituen pertsonaren arabera. Orokorrean euskararen erabilera lankideen arteko harremanetara mugatzen da eta batez ere ahozkoan (ezagutza maila nahiko txikia delarik). Hornitzaile eta bezeroei erreparatuz gero, bezero nagusienak estatutik kanpokoak dira baina hornitzaileekin, bera behintzat, euskaraz aritzen dela dio, nahiz eta idatzizko harremanetan gaztelania edo ingelesa erabiltzen duen.

"Euskaldunak garelako, azkenien euskara barik ez gara euskaldunak. Orduan, Euskal Herrian gauz, Ingalaterran bagauz ingelesez egingo genuen, ez? Baina... hori gerentearekin askotan... diskutitu ez baina... berak esaten du gure enpresa austriarra dela eta esaten du enpresako hizkuntza ingelesa dela, ez dela ez euskara ez erdara. Eta zentraletik komunikazioaren bat egiten dutenean beti ingelesez dago... eta oharretako... jartzen danienean beti ingelesez jartzen daue eta askotan itzuli ere ez dute egiten."



"Bueno, guk grupuakin ingelesez egingo dugu, baina guk hemen gure artean euskaraz egingo dugu... ez? Normalena, kakotx artean, normalena izango zan euskaraz egitea."

"Enpresako kliente fuertienak kanpotarrak die, kanpotarrak Espainia kanpokuak, alemanak, frantsesak... Euskal Herrian ia ez dugu saltzen. Orduan gure enpresak sekula ez dau ikusi biherria beste enprekin harremana izateko... euskararen kontuagatik..."

"Organoei begiratzuz gero, zuzendaritza mailan, inork ez daki euskaraz, beno, produkzio buruak badaki baina beste inork ez daki euskaraz. Orduan zuzendaritza mailan ez da hitz egiten euskaraz."

"Administrazio eremuan (enpresan) ere inork ez daki euskaraz."

"Tailerreko kasuan, gaztiekin... idatziz oso gutxi, fabrikazioko fitxak... eta horrela. Hor egin zen lan bat euskara planaz eztabaidan ibili gintzanean, gauza batzuk euskaraz jarri ziren baina gero... esan daiteke formatua dagoela bi hizkuntzatan baina gero idatzi... hori dana erdararaz dau."

"Pertsonalean euskalduna dago (...) horrek euskaraz daki baina apenas jarten dau... horrek bere ohartxuak eta horrela ez ditu euskaraz jartzen. Gero dau beste neska bat, eta berak hor jarten dauenien beti bi hizkuntzatan jartzen dau."

"Bestelakoan euskarazko harremanak ere lan hizkuntza edo hizkuntza teknikoak baldintzatzen du, lan hizkerak edo terminologiak."

"Askotan euskaraz hitz egin arren erdarako gauza batzuk sartzen dittugu... etorri da eta... grupo hidraulikua sartu barik dau... eta grupo hidraulikua erdarakada bat da."

"Klaru gure enpresaren prozesu orokorra ez dau beste inun hemen inguruan... gu bakarrik gauz. Orduan dauzkagu hitz tekniko asko erdararaz. Orduan gure artean euskaraz egin arren erdarakadan bat sartzen dozu."

"Hornitzaileekin eta... euskaraz baldin badakite nik euskaraz egingo diet, ahozkoa eta e-mailak eta... baina pedidoa jada edo ingelesez edo erdararaz."

Lan munduari dagokionez euskararen normalizazioan ez dela gehiegi aurrera egin irizten dio. Batez ere, Kooperatiben bultzada edo eragile lana aipatu du.

"Nik ikusten doten sensaziñue ez da aurrera egin denik. Kooperatiban eta horrela egin da baina ondion... nik oso berde ikusten ditut. Dauz enpresa batzuk, betikoak, Goizper... JMAk ere egin du zerbait... beno hemen ingurukoak eh?, adibidez Elay izan zela premia eman ziotena... "Bai Euskarari" eta ez dakit zer... Eta hor azkenian zuzendariak edo zuzendari taldea oso inplikatura zegoelako bestela..."

Bere enpresan aldiz ez du euskararen normalizazioan urratsik emateko beharrik edo interesik nabaritu. Zuzendaritzako kideak katalanak dira batzuk eta sentsibiltatea sumatu duen arren hauen jarrera erosoak izan da oro har. Hala ere, ezagutzari dagokionez, enpresa barruan langile berriak sartu ahala egoerak hobera egin duela uste du.

"Ni sartu nintzenean ehuneko laurogeia kanpotarra zan, kanpotarra esaten dotenien esan nahi dot Mirandatik behera, eta ni sartu nintzenean ez zegoen euskararekiko interes handirik."

"Tailerrean ere ez da ikusten bultzada berezirik."

"Dena den, gaur egungo egoerak ez du zer ikusirik orain 15 urtekoarekin, esan leike gaur sartzen dien gazte danak dakitela euskaraz. Egin ez dute egingo, baina jakin denek dakite."

"Lehen kafe makinan gertatu zaiguna... batek ez zekien euskaraz (...) orduan zer egiten duzu... edo hori alde batera utzi edo danok erdarara pasau? Azkenean gure enpresan gertatzen dena hori da.... azkenian denok euskaraz jakitera heltzeko ez dakit zenbat ziklo pasatu beharko diren. *Hombre* orain 30 urte baino gertuago dago, baina hortik dana euskaraz egitearena..."

"Gero hemengo zuzendariak ere ez dira euskaldunak, katalanak dira. Eta beno, katalanak izanda nahiko sentsibilizatuta daude baina ez dute nabaritzen behar hori... ez dute ikusten horrelako beharrik."

Bestalde, euskararekiko urrats batzuk emateko eskaria eta bultzada izan zen orain urte batzuk, gutxienean egoera diagnostikatu eta lan ildo batzuk zehazteko.

"Epe motzera... behintzat, eskatzen zena, orri guztiak bi hizkuntzatan egotea, harrerako neska edo mutila... giza baliabideei eskatzen zitzaien gutxienean euskalduna izatea, behintzat gai izateko telefonoa euskaraz hartzeko. Azkenean egin zer borroka mordo bat harrerakoak egun on esaera esateko..."

"Guk eskatu geniona enpresari zen, urtebete, urtebeteko proiektu bat egin plan bat martxan jartzeko. Eta plan hori izango zan guk eta zuzendaritzak esandakoa, guk gura douena,... onarte, onarte edo onarte,... baina behintzat ikusi zer behar dagoen, jendeak zer esaten duen..."

Josuk inguruko kooperatibak erreferentzia argitzat ditu, euskararen normalizazioari dagokionez, eta hauek bertan sustraituta egoteari garrantzia ematen dio, berak lan egiten duen enpresa ez bezala.

"Ni orain, jartzen banaiz zuzendari komertzialaren lekuan, Bilbotik datorrela... ziur hori pentsatuko nuela... beraiek egingo dituzte beraien gauzak erdararaz eta Alemanian daudenean ingelesez... Orduan zergatik egin behar dut nik nire gauzak beste hizkuntza batean... euskaraz... Hori da ez dutelako beharrik ikusten. Kooperatiba izango balitz... hor bai eskatzen dituzte informeak eta euskaraz... orduan, beste gauza bat izango litzateke baina... hemen nola kanporako dan eta barrurako erdararaz egitten duten ba..."

"Aparte gure enpresa bailara honetan isla bat da... ez daukagu ez harremanik kooperatiban... ez beste enpresekin... gauz... gu hemen egon edo Torreviejan edo Badajozen... edo Txekian, berdin berdina da. Jo, ba azkenien, horrelako gauza batek egitten dotsu soziedadiakin edo inguruakin lotura gehiago... jo beste harreman batzuk lortu zeike... (...) Askok ez dakite gure enpresa existitzen denik ere ez."

Halaber, bere enpresarako beste batzuk hartutako neurriak ere nahiko lituzke (Goizper, Elay...), euskararen ezagutza baino urrunago joan eta lanean euskaraz aritzeko aukera eta baliabideak izan: dokumentazioa, programa informatikoak, aukera denean bilerak euskaraz ere egitea, kanpora begirako irudiari dagokionez...

"Zer da?... ba nire emaztearen enpresan egiten dutena, Goizperren. Han dauzkate programa informatikoak euskaraz, lana euskaraz egin dezakete... lan orriak, eskaerak,... dan dana egiten dute euskaraz. Berdin, beste hornitzaile bat da Elay eta harekin, klaro lana egin leike, eta gainera bultzatu egiten dotsue... klaro, guk hemen ez daukagu jarraipenik... nik normalizazio moduen hori ikusten dot. Azkenean baliabideak edukitzea, bai lan orria, bai programa informatikoak, bai jendea, bai... azkenean... zuk bakarrik ezin duzu normalizatu, normalizatu behar duzu bai jentiaikin, bai baliabideekin"

"Aurrerapen nagusia da ikustea posible dela hori egitea. Azkenean beste enpresa batzuk lortu badute guk zergatik ez. Nik uste dot aurrerapen handiena hori dela, ikustea batzuk lortu dutela, batzuk egongo dira %30ean, %50ean... baina ikustea lortu dutela, ez?"

"Jo... nik ikusten dut nere emaztearen enpresa (...) eske... programa informatikoak euskaraz izatea, edo e-mailak euskaraz izatea... edo windows euskaraz edukitzea... hori hemen zientzia fikzioa da."

"Gure artean bilera batzuk euskaraz egitea eta akta batzuk euskaraz jasotzea posible balitz konformatuko nintzateke."

"Tailerrean ere... gutxienez ateratzen diren indikadore guztiak eta euskaraz ere egon beharko ziren."

"Esaten notzuna, errotulua bi hizkuntzatan jarri zien, baina zertarako balio dust niri biltegia almacen edukitzea gero dana erdara egiten bada. Ez dot esaten kanpoan... baina barruan... Adibidez hor sarrerako errotulua orain ez dakit nola dagoen, lehen erdararaz bakarrik zegoen... jo hi... Arrasaten gauz."

Dena den, beraien enpresan euskararen normalizazioan aurrera egiteko oztopo nabarmenak ere ikusten ditu. Alde horretatik, enpresa barruan euskaltzaletasunak edo abertzaletasunak duen indar eta pisu urria aipatu du bereziki.

"Oztopo bat da gure ugazabak ez direla euskaldunak, kanpotarrak die eta gainera orain momentuan salgai gaude. Orduan ez dakigu txinatar batzuk erosiko gaituzten edo beste aleman batzuk edo... Orduan, igual, hemendik bi hilabeteetara edo paper guztiak txinoz dauzkagu. Hori freno handixa da."

"Kontra ez dau... alde dau... baina klaro erdararaz be moldatu leike eta dauzkagun inertzia guztiekin ba... aldatzea oso zaila da."

"Nik uste dot... Euskal Herrian... enpresa modura ez dugu sustrairik... ez dugu bezerorik edo marketing mailan hemen ez dugu ezer... (...) eta enpresan ez da horren beharrik ikusten. Hemen egon edo txekian egon berdin-berdin."

"Baina noski gero ikusi beharko litzateke baita zein freno dauden hor kanpoan... tailerrean... enpresan indar gehien duen sindikatua UGT da... eta hor ikusten da zelako joera dauen..."

"Hemen gehiengoa abertzalea balitz... azkenean komitetik indar gehiago egitea... gehiago eskatuko zitzaion eta agian jarrera ere gogorragoa izango zan. Baina, klaro hemen abertzaleak igota gaz baina ez dakit gaur egun ere parean ibiliko ginenik."

Instituzio publiko edo gobernuari dagokionez ere oso kritikoa da eta bertatik ezer gutxi egiten dela iruditzen zaio.

"Nik behintzat... dauenik ere ez dakit.(...) Elhuyarrekoak eta egon zirenean aipatu ziguten laguntzak edo bazeudela baina nola euskara plan batetan ez garen sartu ez dakit laguntzarik badagoen edo trabak dauden edo zer dagoen... baina laguntza handirik ez dot uste bestela hemen eskatuko zuten."

"Lan munduan ez daue ezer egiten... behintzat nik ikusten dotena. Lehen PNV zegoenean zertxobait gehiago, orain PSOE dauenetik... atara dau kanpaina hori... "lehen hitza euskaraz" kanpaina hori.... baina lan mundutik... I+D+I bai, Patxi Lopezek askotan esaten dau baina... gainera hor astokeri batzuk ere entzun izan dira... euskarak ikerkuntzarako ez duela balio eta... eta ez kanpoan."

Euskararekiko aurkako jarrerarik ez du sumatzen Josuk, bere enpresan bederen, baina hori ez da bere ustez aurkako jarrerarik egongo ez delako, baizik eta euskararen erabilera ez delako oso nabarmena enpresa barruan. Harreman informaletatik gora egingo baluke erabilerak aurkakotasun hori egongo litzatekeela uste du

"Ea guk... horrela gure bilera tekniko fuerteak gazteleraz egiten ditugu baina... bestelakoan Gorkarekin eta gure gai nagusiak euskaraz dittugu... eta inor ez da etortzen esatera euskaraz edo erdararaz daukogun... gauza da... eskalo bat igoz gero horrelako kexak entzungo genituen."

"Sekula entzun izan dot *hablame en cristiano* eta... aspaldiko garaietan bezala... baina nik uste dut hemen ez gaudela hori entzuteko egon beharreko mailan... nik uste dut hemen erabilera ez dela horrelako erantzunik sortzeko. Hemen euskaraz entzuten baldin badotsue, gure departamenduan, inork ez dotsu esaten ezer. Ezin dozuna egin da lehen esaten nizuna... e-mail bat bidali a todo quisqui eta euskaraz. Ba segittuan esaten dotsue, eh, erdiak ez duela ezagutzen... edo jarri bi hizkuntzatan edo erdararaz jarri. Praka motzekin etortzen zarenien modura... hi, fraka motxekin ezin da etorri lanera."

Bestalde, berarentzat lankideen zein erakundearen beraren inplikazioa eta jarrera funtsezko elementuak dira, baina oraindik euskara folklore mailan ulertzen da eta eskaera sendorik ezean erosotasunerako joera nabarmena da.

"Komunikazioa bai da gauza garrantzitsua... aurten sorpresa izan dugu, informatiba antzeko batzar batean... (...) giza baliabideetako zuzendariak sarrera euskaraz egin zuen,... jo portau da, behintzat esfortzu bat egin du.(...) pozgarria izan zen. (...) horrelako gauzak sarriau eginez gero ba errezagoa izango zen."

"Nik uste dot jendearen inplikazioa dela funtsezkoa, jarrera kontua... nahiz eta igual errezena da hori esatea... baloiak kanpora botatzea... jendeak ez du nahi eta ... ez dou egiten. Askotan gure enpresan hori gertatu izan da, birritan egon gara euskara plan batean sartzeko... baina gero... beste askotan... harek ez du nahi eta *ya esta*."

"Lehen esan douen hori... hemen lan egitera gatoz eta berdin da zein hizkuntzatan egiten dugun"

"Giza baliabidetakoak... ba bai, ia ia euskara planarekin hastekotan egon ginenean ez ginen sartu berak ez zuelako beharrik ikusten... eta guk nahi genuena zen behintzat proba egin, diagnostikotxo bat egin, gauza batzuk bi hizkuntzatan jarri gutxienean... ez egun batetik bestera denok euskaraz berbetan jarri, bilera danak euskaraz... ez, ez.... hori, eta nik uste dot berak ez zuela beharrik ikusten. Lehen esan duguna, folklore ikuspuntua. Bere jarrera da, niri ez eman burukominik, niri gelditzen jaten urtiak holan eingo ditut, ni erdararaz ondo moldatzen naz eta gero etorten dan gaztiak egingo dau bultza nahi badau."

Goian aipatu bezala, Josuren enpresan euskararekiko pauso edo neurriak hartzeko bulkada izan zen orain urte batzuk. Testuinguru horretan euskara plan bat ezartzearen hastapenetan aritu ziren, bereziki eskolak antolatzea eta ezagutza hobetzea zuzendurik, Euskara Batzordea ere osatu zelarik. Gaur egun aldiz, jada ez dago Euskara Batzorderik.

"Enpresa komitetik beti gura izen dou sartu euskara plana eta horrela baina gaur da egune ez daukaguna euskara planik."

"Zegoen euskara batzordea ere ez dago jada martxan... azken hiru urteetan egin duguna izan da

mendi martxa bat... afari bat eta... ni ingenieritza ikasten hasi nintzenean jada inork ez zuen nahi erreleboa hartu."

"Lehenago Euskara Batzordean sartu nintzenean AEDrekin eta gure enpresan euskara eskolak eta antolatu ziren, eta hasieran kriston arrakasta izan zuten... baina klaro akaso orduan euskara plana gaizki enfokatu zen... hasieratik euskara eskolak... eta klaro, azkenean kriston zartatekoa hartu zen... lehen urtean 20, bigarrenean 10 eta hirugarrenean 2 pertsonakin..."

Zentzu horretan aholkularitza enpresa baten beharra nabarmentzen du, beraiek baitaukate eskarmentua eta laguntza teknikoa emateko gaitasuna. Batez ere, egoera diagnostikatu eta irudiaz gain erabileran ere aurrera egiteko baliabide funtsezko gisa ikusten ditu.

Aholkularitza enpresez "Aurrera eramateko behar beharrezkoa dela uste dot... baliabideak behar direlako bai... baina badago beste ikuspegi bat... enpresa askotan dabiltzalako eta badakitelako azkenien funtzionamendua gutxi gorabehera nola dan eta... guk azkenien guria bakarrik ikusten dou."

"Azkenean beraiek horretara dedikatzen dialako. Guk gogoia bai baina... eta barrutik egin genezakeela lana baina azkenean profesional baten eskua biher dozu... gu dedikatzen gara piezak egitera."

"Nik eskatuko nuke aholkularitza enpresa baten laguntza... batez ere diagnostiko on bat egitea. Behintzat noraino egin genezakeen, urte beterako sartzen bagara... behintzat... ea urtebetean noraino heldu gaitzkeen."

"Askotan errotulazioa jartzen baldin baduzu baina... baldin bada de postal... Bueno, batzuk horrekin konformatuko ziren baina... (...) neu konformatuko nintzateke jakinde ea jendeak zer pentsetan duen eta noraino joan gintzkeen. Noski, ni izango nintzatekeen apur bat anbiziotsuagoa... ikusi zein posibilitate dauden eta aurrera jotzea. Eta ez lau kartel euskaraz jartzea... biltegia almacen... eta *ya esta*... hor bukatzea."

Oro har, lan munduari dagokionez Josuk ez du aipamenik egin euskarak enpresari eskaini ahal dion balioaren inguruan (bezero nagusiak kanpoan dituela aipatu du), aldiz euskara gure nortasunaren ezaugarri garrantzitsutzat du eta hor ardatz nagusi bat kokatzen du: euskaraduna/bertakoa erdaraduna/kanpokoa. Ildo horretatik, berak lan egiten duen enpresaren *kanpotar* izaeraz hitz egiten du. Bestalde, euskarak politikoki duen irudiaz ere aipamenik egin du.

"Aurrekoan, lehen ez dizut esan baina badugu ere Iruñako bezero bat... eta aurrekoan bertan ezagutu nuen ingeniari euskaldun bat, bera Lekunberrikua, eta hasi zitzaidan euskaraz hitz egiten... eta sorpresa handia izan zan."

"Nafarroan ikusten da... euskaraz hitz egiten baldin baduzu jada politikoki identifikatzen zara... eta han... gehiago kostatzen zaie euskaraz hitz egitea."

“Zuzenean ez jako esan... baina zeharka bai... kontrataziñotan euskaraduna ere egitea... baldintza berdinetan euskalduna hartzen baldin badau, etorkizunera begira, bidea errazagoa izango da. Noski hemen pasatu da Extremaduratik etortea jendea lanera, gaur egun orain 40 urte bezela... eta klaro, esaten dozu... baina nola, hemen ez al dago jendea langabezian hala... tipo bat etorri dala Extremaduratik hemen lan egiteko? Zein entxufe edo ze... ze.... Nola ulertzen da hori, hemen bailaran jende gaztia izanda. Eta asko ez baina ikusten da, badaz hemen hiru lau extremeño lanian.”

“Euskaldunak gare... beraz guk ez baldin badogu defenditzen ea nork defenditu behar duen.”

“Jo... gure enpresa izan da hemen, ingurunean, ardi baltza ezta. Beti izan da maketolandia... extremeño asko, beti izan da guardia zibilak lanera etortzen ziren enpresa... beti... bai, nik izan dut sentimendu hori... egoera hori aldatzen joan da... baina bai, gure enpresa isla izan da zentzu horretan.”

### 3.5.- MIKEL

Leonekoa da Mikel baina gaztetan Galiziara joan zen ikasketak egitera, handik Bilbora eta gero Alemaniara, azkenik Arrasaten amaitzeko. Egun Arrasateko kooperatiba esanguratsu batetan lan egiten du. Oro har, gaztelania da bere lehen hizkuntza eta euskararekiko izan dituen bizipenak ez dira onak.

Euskararen egoerak, oro har, hobera egin duela uste du eta hori positibotzat baloratzen du. Berarentzat gizartean dagoen nahiaren isla da, gizartearen zati garrantzitsu bat, gehiengo, "nazionalista" baita eta hauek euskara bultzatu dadin nahi dute.

"Yo cuando llegue aquí, a Euskadi... jo el tema de la implantación del euskera en 20 años está hecho... pero... sin hacer una presión masiva... si la gente quiere hablar en euskera... que hable... ya ira subiendo en todos los sitios. Sí que veo que tiene que haber una estructuración... que sea homogénea... pero si aquellos que yo sí entiendo que son anti... pues bueno hacerles ver que hay mucha gente que quiere la utilización del euskera."

"Yo creo que es tema de... mezcla de tema político... Yo lo tengo súper claro... hay en el país vasco si seguimos lo que son las votaciones... hay dos tercios que son nacionalistas y un tercio no nacionalistas. Pues los nacionalistas quieren eso y... programaticamente tienen... esta el uso del euskera. Es un reflejo de la realidad el que se quiera introducir el euskera."

"Yo creo que sí, creo que se ha avanzado mucho. Yo cuando vine en el dos mil no había... Es más, igual te resulta raro oírlo, me alegro, me alegro la tira. Porque hay cantidad de gente que quiere que sea así."

Orokorrean bere enpresan euskararen erabilera arrunta da, euskaraz egin nahi duenak egiteko aukera du. Bestalde, euskarak organoetan, hala nola kontseilu sozialean eta errektorean, eta komunikazioetan bere lekua du. Euskararen presentzia hau, batzuetan gatazkatsua suertatzen da eta erdal elebakarrek informazioa jaso dezaten mekanismoak zehaztu beharra azpimarratzen du.

"Yo veo que la gente que quiere hablar euskera habla euskera y... el que quiere hablar en castellano, en las conversaciones informales, pues habla en castellano. Incluso... conversaciones asimétricas, que le llamáis, que uno habla en euskera y el otro (...) habla en castellano."

"En el caso del consejo social, por ejemplo... sobre todo en el pleno... el formato que habíamos alcanzado después de un año o dos de trifulcas... (...) tuve un rife-rafe con X en el cual intercambiamos mensajes entorno al uso del euskera en los plenos del consejo social ¿no?... y al final el formato que habíamos adoptado era que ellos intentaban hacer... o bien en euskera o bien en castellano... pero siempre sí hacían una parte en euskera esa... sí que hacían también en castellano... por que me parece que había un sesenta por ciento que entendía en euskera y otros un cuarenta por ciento que no



entendíamos euskera... entonces siempre tenían la precaución de traducir. Y luego estaban las traducciones... aquellos que hacían alguna intervención en euskera, se les contestaba en euskera y luego se hacía una especie de traducción al castellano de lo que había dicho de manera que se preservaba a aquellos que querían utilizar el euskera podían utilizar el euskera pero aquellos que no entendíamos el euskera podíamos entender el contenido de lo que se había tratado."

"Tenía que haber más traducciones del euskera al castellano... no del castellano al euskera... para que aquel que quiera escribir en euskera pueda hacerlo y no tener que hacer el esfuerzo de tener que traducirlo, porque es desanimar al que quiera escribir en euskera."

Lanean euskararen normalizaziorako emandako pausoen inguruan eta hartutako neurriei dagokionez hiru ideia nagusi aipatzen ditu: komunikazio funtzioa betetzen dela bermatu beharra, euskara sustatzeko plangintza beharrean hizkuntzen plangintza egin beharko litzatekeela eta norberaren ama hizkuntzari edo aukeratutako hizkuntzari errespetua.

Mikelentzat euskararen normalizazioa komunikazioa bermatuko duen sistema baten ezarpena da, euskaradunak euskaraz arituta ere erdaradunekin komunikatu ahal izateko. Beraz euskararen erabilerari muga ez dio hizkuntza batek edo besteak jartzen baizik eta komunikazio funtzioa ez betetzeak berak. Bere ustez ez da zilegi komunikazio funtzioan galera ematea euskararen alde, bereziki erdaradunek ez dutelako ulertzen zergatik galdu behar duten komunikatzeko gaitasuna euskararen alde. Gainera euskara erabiltzera derrigortu egiten da bere enpresan eta hori ez da zuzena.

"Que haya un sistema para que la función comunicativa se siga produciendo. Eso es lo que sería la normalización del euskera. Que en el país vasco cualquiera pueda utilizar cualquiera de los dos idiomas oficiales."

"Si quieres utilizar o no el euskera es una opción, y ya lo tenemos puesto como obligatorio. Cosa que yo no comparto en absoluto."

"Hacia una reflexión... de que... ¿Se es consciente de que va a ser difícil entender por parte de las personas que no hablan euskera ver que se acepta una pérdida de función comunicativa para que el euskera esté presente?"

"Yo soy defensor de que hay que ir hacia el inglés.(...) de hecho, de aquello que tengamos perspectiva que vaya a circular por Francia o Polonia, intentamos hacer en inglés."

"En el consejo social... el tiene el criterio de que cuando el habla, hay cosas que dice en castellano y hay otras cosas que dice en euskera ¿no? y... pero (...) yo no comparto su criterio porque... hay una pérdida importante de función comunicativa."

"Y dices... ¿esta cumpliendo con la función comunicativa?... no, es que no tengo por qué decir lo mismo en un idioma y en el otro... pues entonces... están asumiendo que el hecho de que el euskera

tenga presencia tiene como coste... y lo asumo... perdida de función comunicativa. Para mí... yo no estoy en nada de acuerdo con eso."

"Yo me adapto al criterio de la empresa... como me adapto a otras cosas que no me gustan... pero otro asunto es que este de acuerdo o no, y en este caso no, no estoy de acuerdo."

"En el consejo rector... yo sí que hay lo tenía claro... yo he sido elegido por mis compañeros al consejo rector y yo ahí sí que tenía que entender lo que se decía en las reuniones que... a las cuales yo iba como representante de mis compañeros."

Euskararen normalizazioari dagokionez, enpresa mailan, bere proposamena da euskararen sustapena baino hizkuntza ezberdinen kudeaketa egin behar dela. Euskara beste hizkuntza bat gehiago da, ez besterik. Euskara bultzatzearen arrazoa, funtsean, identitate eta euskal nortasunarekin lotzen du eta alde horretatik ez du zilegi ikusten nortasun hori gizartearen zati batena baita eta ez gizarte osoarena.

"Otra persona y yo (...) hemos estado haciendo reflexiones de como tiene que ser el uso de los idiomas y le hemos mandado al gerente."

"A nosotros nos parecía que a la hora de hacer una planificación lingüística en una empresa... el tratar de poner en evidencia todas las implicaciones que eso podía tener. Una de las implicaciones era la del carácter identitario. En este caso... el euskera se puede considerar como un idioma más... pero es que no es así... el hecho de decir queremos impulsar el euskera... a los ojos de los que hablan euskera y a los ojos de los que no hablan euskera tiene una concepción completamente distinta."

Bestalde, bere irudiko euskararen normalizazioan eman beharreko pausoetan aintzat hartu beharko litzateke norberak nahi duen hizkuntza aukeratzeko askatasuna. Alde honetatik ez zaio zuzena iruditzen euskara lehenestea edota erdaradunekin euskara erabiltzea gaztelaniazko itzulpena tartean ez bada, hala nola emailtan. Era berean ez du egoki ikusten eta ez dago ados lanpostu ezberdinei ezarri zaien hizkuntza eskakizunekin, kasu honetan euskara eskakizunarekin.

"Otro ejemplo es la cuestión de los e-mails, que estén en bilingüe. A mi no me molesta nada... yo hago en castellano y luego me traducen... yo encantado de la vida... y yo digo... porque tenemos el criterio de que el euskera vaya en primer lugar. O sea, yo no tengo idea de si me traducen bien o no me traducen bien,... porque no puede ir mi lenguaje natural en primer lugar. Lo que yo he querido decir lo he dicho en castellano y no es lo mismo como lo han traducido en euskera, porque no pone igual lo que yo he escrito."

"El lenguaje nativo de cada uno en primer lugar, si es en euskera, en euskera, si es en castellano en castellano, si es en ingles en ingles."

"Ahora parece que... con el tema de los e-mails se puede mandar un e-mail en euskera sabiendo que parte de los destinatarios no saben euskera... sé que no hablas en euskera, pero te hablo en euskera. A mí... es que este me esta tomando el pelo o qué... me mandas una cosa a mí en euskera que sabes que no puedo entender..."

"Otra cosa de nuestra normativa, otra cosa impulsada internamente que yo no comparto, pero que ya es norma... los niveles exigibles de euskera para los distintos puestos."

Ilido honetatik, eta goian aipatutakoari jarraiki, euskara plangintzaren ezarpena ez da egokia ez zuzena, egin behar dena da euskara eta gaztelania parekatu. Euskara planak aldiz, bilatzen duena euskara gaztelaniari gailentzea da eta ez du aintzat hartzen enpresaren hizkuntza aniztasuna. Era berean, hizkuntza plangintza, euskara bultzatzearena, poliki egin behar da, naturala izan dadin eta ez inposatua. Bestalde, euskara batzordea beharrean hizkuntzen batzordea egon beharko litzateke bere ustez, non beraien enpresa taldean dauden hizkuntza guztiek beren isla izango luketen.

"El castellano está aquí, y el euskera en cuanto al uso puede estar... a un nivel inferior. Y el objetivo, para mí, dentro de los planes lingüísticos, en este caso del euskera, es que si se quiere potenciar uno de los idiomas, qué este siga donde está y que este se ponga a su nivel, de manera que aquel que quiera elegir su vida en cualquiera de los dos idiomas pueda elegir. Yo creo que no se está haciendo eso. Yo la impresión que tengo es que el euskera se está subiendo pero a costa del uso del castellano. De manera que se está perdiendo la posibilidad de vivir en castellano a causa de que el euskera esta subiendo. Y eso es una de las cosas que yo entiendo que se está haciendo mal. En el sentido de que... si se mantuviese el nivel del castellano la... percepción que podría tener hacia el euskera sería más en positivo que el que tengo."

"Además a mi me parece que cada cosa tiene su ritmo. Esta bien que haya apoyos que apoyo institucional, procedimientos, estructuración un dinero... como lo puede haber en... Pero a veces también tengo la sensación de (...) opresión."

"En ese sentido digo yo que no soy un anti. Que en las instituciones y en las empresas sea un reflejo del ánimo que se tenga en la calle hacia el idioma. Pero que llegue de forma natural y que no sea una opresión."

"Natural es... ayudado por la planificación."

"Yo lo que he puesto de manifiesto desde hace cuatro años es que en nuestra empresa lo que había que haber es una comisión de idiomas y lo que hay es una comisión de euskera (...) donde quedarían reflejados los distintos idiomas que están en los distintos grupos de... España, Francia, Polonia. Y aquí parece que el único idioma que hay es el euskera... solo hay comisión de euskera."

"Estamos defendiendo que haya variedad de idiomas hacia fuera (...) y a mí me parece correcto... pero plantea la pregunta hacia dentro ¿estamos haciendo que haya variedad de idiomas hacia dentro?, no hay esa defensa de la variedad hacia dentro, no es una comisión de idiomas, es una comisión de euskera."

"Tiene que haber una comisión de idiomas... es que... es que... (...) o sea, tú y yo defendemos una determinada cosa... y somos nosotros si vamos a implantar o no... joder, que vamos a decidir si somos nosotros los que lo defendemos. Me parece... vamos... una especie de contubernio... sí, una especie de incesto... hay todo mezclado... bah!"

Mikelen hitzetan, euskara planari bitartekoak zuzentzen zaizkio eta gauza asko egiten dira bertatik. Zentzu honetan enpresako organoak inplikatura daude. Euskara planak euskaldunari euskaraz aritzeko aukera bermatzen dion arren, eta hori ondo baloratzen du, gauzak ez dira behar bezala egiten eta, beraz, ondorio baztertzailerak ditu eta gaitzespen sentipenak sortzen ditu.

"A nivel del grupo... 300.000 euros al año en cuanto recursos económicos... en cuanto al soporte técnico respecto a los distintos grupos y negocios... que hacen funciones de todos estos temas de los *berbatxikis*, todo el tema de las traducciones, el tema de apoyar la oración de los descargos y todas estas cosas, organizar salidas conjuntas de puesta en común de las personas que están aprendiendo euskera, el tema de organizar y buscar los profesores para organizar las clases de euskera... muchas cosas... definir los procedimientos de usos."

"Los órganos de la empresa están claramente implicados."

"Yo creo que parte de segregación... yo creo que por... que se hacen muchas cosas bien con el plan de euskera... pero por no hacer todo lo bien que se puede hacer en el sentido de que no se sienta como opresivo y esa es la parte que... probablemente... pueda ser la más negativa. De rechazo como idioma impuesto."

Arestian aipatu den bezala, Mikelek behin eta berriz adierazi eta azpimarratu duen ideia da euskarak komunikazio hizkuntza izaterik ez duela lan munduan, funtzio hori gatzelaniari dagokio euskal herrian denek hitz egiten duten hizkuntza delako batetik eta Espainiako beste lurralde batzuetako jendeak ez dakien hizkuntza delako (Cadizeko pertsona batek esaterako). Nazioarteko testuinguruari begira aldiz, funtzio hori ingelesak beteko luke. Beraz, euskararen erabilera erdaradunek informatuta izateko eskubideak eta komunikazioa ziurtatu beharrak mugatzen dute.

"Que haya un sistema para que la función comunicativa se siga produciendo. Eso es lo que sería la normalización del euskera. Que en el país vasco cualquiera pueda utilizar cualquiera de los dos idiomas oficiales."

"Una conversación verbal tiene mucha menos vocación de perdurar que un documento... entonces a la hora de pensar en los destinatarios de un documento, hay destinatarios directos y destinatarios segundos. Nos pasa eso con los proyectos fin de carrera... nos pasa últimamente que estamos haciendo todos los proyectos de carrera solo en euskera (...) y si luego viene uno de Cadiz, qué todo eso luego perdido. Y en eso creo que hemos logrado ser imaginativos porque aquel que hace el proyecto solo en euskera pone en otro documento aquellos documentos, que consultándolos, puedes tener la información que viene en la memoria."

"El que esta topando el euskera y el castellano es el ingles... pero por el hecho de intentar que se produzca la función comunicativa. Yo creo que es es un punto clave. Dentro de la empresa cuánto se está dispuesto de perder función comunicativa para que no se pierdan idiomas. Y es una de las cosas más importantes que hay que decidir en esa hipotética comisión de idiomas."

"Yo no estoy topando al euskera por no saber euskera... el euskera se topa por la función comunicativa."

Funtzio komunikatzaile ezaz gain, euskarak duen nortasun zera edo izaera identitarioa ere zalantzan jartzen du. Hots, euskara euskal nortasunaren parte da baina bakarra ez denez ez dio funtzio hori betetzeko zilegitasunik onartzen, bereziki euskara sustatu beharraren arrazoitzat ezaugarri identitario hori jotzen baitu eta hori batzuen ezaugarria izanik bakarrik ez da zuzena.

"Además los de personal... como si fuera algo exigible... como que es algo... que es nuestra identidad. Eso en concreto no lo comparto y es que cuando estoy en esas entrevistas y me tengo que quedar callado... jo es... Yo probablemente estoy muy satisfecho de trabajar aquí pero hay ciertas cosas y varias al rededor del euskera que me ponen fatal. Y eso para ti... igual haces la lectura de anti, pero eso para mí no es anti."

"Lo que está claro que el idioma no es un idioma... está claro que es todo lo que hay detrás."

Beraz, Mikeli gai honekiko arrangura handia nabaritzen zaio, buruhauste asko eman dizkio gaiak eta asko sufritu du. Gainera baztertua sentitzen da eta euskararekiko harremana zerbait inposatua bezala antzematen du, berarentzako gatazka iturri izan delarik batez ere. Ildo honetatik euskaldunon jarrera oldarkorra iruditzen zaio, euskara gaztelaniari gailendu nahi zaiola, gaztelania euskararen etsai ikusten dugula, joera baztertzailea dugula jatorria baldintzatzen hartzen baitugu (zentzu honetan kooperatibak kontratazio politikan zehaztuta dituen hainbat irizpide aipatzen ditu, hala nola kalifikazio maila baxueneko lanpostuetan enpresa kokatuta dagoen eskualdeko pertsonak lehenestearena), gaztelaniaz bizitzeko eskubidea galtzen ari dela euskararen inposaketa edo sustatzearen ondorioz... Zentzu honetan ugariak izan dira egin dituen aipamen zein adierazpenak eta adierazgarria izan da erakutsitako sentiberatasuna:

"Si yo he sufrido con esto lo indecible... si yo soy aquí el distinto con el tema del euskera."

"Para mí el idioma es un elemento de comunicación, no es nada más."

"El euskera es un idioma más. Yo creo que solo veis el euskera... yo creo que... además solo el euskera con el castellano en frente."

"Mi sensación del euskera es... mala... como de lengua impuesta, y me ha causado rechazo desde un

primer momento... y lucho por que no sea así... y voy consiguiendo cosas pero... fríamente... yo cada vez que lo pienso para mí el euskera es una lengua impuesta."

"En la empresa que estoy... a mí me parece... persecución."

"Yo en su momento... en una asamblea de nuestra cooperativa dije que si Arizmendiarrreta hubiese querido venir a trabajar ahora aquí no hubiera podido, porque hacemos una selección... por origen... en mano de obra directa, en lo que son trabajadores de franja uno... se considera condición imprescindible (...) el que seas de la zona."

"Yo digo... si aquí lo potente de lo que estamos haciendo es el concepto cooperativista independientemente de la procedencia que tú puedas tener... estamos haciendo una selección... en este caso por procedencia y... eso de alguna forma impide que uno de Granada, que sienta el cooperativismo como su fe de vida, aquí no le dejemos entrar. Simplemente porque solo puede ser del valle. Y como Arizmendiarrreta era de Markina y no es del valle, no podría entrar."

"Otra sensación... la de exclusión. Si no hablas euskera eres segunda categoría."

"En mi labor de coordinador... eh... puedo decir que ha sido generador de retos pero también generador de conflictos... Hemos tenido X y yo que es la que a cogido los temas de euskera... pues... que resulta que ella es defensora de que pueda haber documentos y cosas que puedan estar exclusivamente en euskera o en euskera con parte en castellano y yo con una visión completamente distinta. De que la función principal de los documentos que hacemos aquí es... una función comunicativa. Y si hacemos que no esté en un idioma o en todos los idiomas para que aquellos que son destinatarios de esos documentos puedan realizar su... función... la función comunicativa lo estaríamos haciendo mal. Entonces... hubo una situación que... además se lanzo... pues... toda una serie de movimientos por parte de X, por parte del gerente (...), que fue que puso un acta de una reunión en euskera y... luego un resumen en castellano. Yo le dije a X, yo soy tu mando, yo quiero conocer todos los contenidos de lo que paso en la reunión ¿no? Y ella me decía que no... que lo que había... que era suficiente lo de castellano y a mí me pareció como un conflicto... no de idioma... sino un conflicto de autoridad. Yo como mando te estoy pidiendo que quiero saber toda la información de la reunión y tú me estas negando dicha información."

"El castellano está aquí, y el euskera en cuanto al uso puede estar... a un nivel inferior. Y el objetivo, para mí, dentro de los planes lingüísticos, en este caso del euskera, es que si se quiere potenciar uno de los idiomas, qué este siga donde está y que este se ponga a su nivel, de manera que aquel que quiera elegir su vida en cualquiera de los dos idiomas pueda elegir. Yo creo que no se está haciendo eso. Yo la impresión que tengo es que el euskera se está subiendo pero a costa del uso del castellano. De manera que se está perdiendo la posibilidad de vivir en castellano a causa de que el euskera esta subiendo. Y eso es una de las cosas que yo entiendo que se está haciendo mal. En el sentido de que... si se mantuviese el nivel del castellano la... percepción que podría tener hacia el euskera sería más en positivo que el que tengo."

"Pero mi realidad es que... tanto dentro como luego en varios sitios de la calle... como en la biblioteca de Mondragón... toda la denominación de los libros en euskera. ¿Y yo... porque yo no puedo utilizar el castellano?"

"Crece el euskera a costa del castellano ¿y por qué?.. Y además es que crea una sensación de rechazo hacia el euskera."

"Al final yo digo... que en esto del euskera... si hacemos mala sangre en esto del euskera... y me están viendo a mí como... cómo me llamaban... un anti... un anti... bueno, pues vale, seré un anti. Yo no me veo como un anti, en absoluto."

"Yo podría tener una actitud mucho más negativa o más belicosa hacia el euskera... y no la tengo... y... esto no quiere decir que las cosas que te estoy diciendo... que me parece que no se esta haciendo la introducción del euskera, la utilización del euskera no se está haciendo con el procedimiento que se debería de hacer. No significa en absoluto que yo sea anti, yo solo defiendo que haya paridad en el uso del euskera y el castellano."

"A mí me hace gracia cuando escriben en un documento el nombre del pueblo y ponen Arrasate... a mí me puede parecer bien que pongas Arrasate-Mondragón... es que cuando está reconocido a nivel del estado y del país vasco, porque es el nomenclátor establecido a nivel de municipios... pues Mondragón desaparecido."

"Es eso lo que queremos... lo que es un elemento de cohesión aquí es un elemento de división. (...) yo creo que es la parte identitaria asociada al idioma, de que da la impresión que aquellos que quieren utilizar el euskera, aunque ya ahora creo que no es así... pero... utilización del euskera nacionalista, no utilización del euskera no nacionalista."

"Yo creo que es mezcla de... de identidades... de conflictos identitarios. Eso aquí está súper claro."

"Yo creo que hay una parte de contaminación... de revanchismo o de sensación de opresión del euskera con el castellano. Yo creo que se tiene la sensación de que el euskera está topado por el castellano (...) y el euskera no está topado por el castellano, el euskera esta topado por la internacionalización (...) en el que el único idioma común es el ingles. Y yo creo que ahí hay un revanchismo del euskera hacia el castellano por una sensación de que el castellano está topando al euskera."

"El tema de la selección por origen que te decía... (...) pones... ingeniero electrónico... nivel del uso del euskera un tres, comprender, hablar y tal... ¿va a venir uno de Córdoba aquí a ver?... pues eso es selección por origen. (...) jo... qué... todos de aquí... donde está la variedad para que tengamos otros puntos de vista."

"Otra cuestión... a la hora de la selección... pone... ¿coges el compromiso de aprender euskera?... no sé si lo aprenderá... pero ¿luego va a querer utilizarlo?"

"Para tener que trabajar aquí tienes que poner como idioma preferente el euskera... jode... pero si eso es una decisión mía. ¿Me están diciendo a mí que me tiene que gustar a mí el amarillo o el rojo, porque es el color de nuestra empresa? Ya elegiré yo el color que me de la gana. Es como establecer que para trabajar en esta empresa me tiene que gustar el euskera... jo... dejame en paz."

"Son cosas que yo le he dado muchas vueltas... a veces de forma agresiva porque... por acusaciones que... yo consideraba que eran injustas... yo creo que en parte he ido aprendiendo a entender otros puntos de vista que antes no entendía... y en cierta medida he ido evolucionando en cuanto a mi visión del euskera... he ido cambiando durante el tiempo."

### 3.6.- RUBEN

Rubenek ere Arrasateko kooperatiba ezagun batean egiten du lan. Enpresako I+G saileko arduraduna da zehazki. Rubenek ama hizkuntza euskara du ere eta etxean lehen hizkuntza dute. Bere kooperatiban jada urte batzuk dira Euskara Planari ekin ziotela eta aurrera pausoak ematen ari direla uste du.

Euskararen egoerari dagokionez orokorrean urrats garrantzitsuak eman direla ikusten du, nahiz eta inguruko hizkuntzen indarra nabarmena den, baina berak Deba ibarrean egoera nahiko txukuntzat dauka.

"Orokorrean... nik uste dot pauso inportanteak eman direla eta uste badoala bide baten... normalizazio batetara edo... baina bueno, beti, uste dot prozesu horiek zailak direla. Gauz alde guztietatik inguratuta eta influentzia hori garrantzitsua da eta suposatzen du beti esfortzu handi bat. (...) gazteek... hemen inguruan behintzat menperatzen dute oso maila onarekin... gero erabilera? Ba bueno... nik uste dot denboran zehar doala gorabeherekin."

"Bai, nik uste dot pausuak eman direla eta ematen ari garela, baina bueno... zaila izango da. Zeren... gaur ikusten dut dela bonbardeo bat alde guztietatik... eta ez bakarrik erdaraz... Baina beno, gure ingurunean behintzat nik uste dut erabilera ere ona dela. Gizarte mailan, gero enpresa mailan beste gauza bat da."

Berak lan egiten duen kooperatiban euskararen erabilera esanguratsua da, ezagutza maila nahiko altua izanik lankideen arteko harremana euskaraz izan ohi da, maila formal batetan bederen, hizkuntza teknikoa tartean sartzean edo lan kontuetaz aritzean gaztelaniarako joera baitaukat. Bestalde, taldean edo bileraren batean daudenean gaztelania da nagusi beti baitago euskaraz ez dakien norbait nahiz eta inoiz euskaraz egiteko aukera izaten duten. Bestetik, kooperatibako komunikazio orokorra, zirkularrak eta, ele bitan da eta lan tresnei dagokionez euskaraz erabiltzeko aukera ematen da.

"Hemen kopurua... euskaldunak eta erdaldunak... erdi eta erdi ibiliko gara. Eta gure artean normalean harremanak euskaraz dira... beno beti dago zerbait teknikoa eta horrela baina bestelakoan beti euskaraz dira. Elkartzen garenean... gaztelania da hizkuntza nagusia zeren beti dago jendea ez dala enteratuko."

"Gure artean euskaraz entzuten da baina bueno... bileretan eta gaztelaniaz izaten da zeren zaila izaten da... beti dago baterenbat ez duena ulertzen. Baina beno, batzutan tokatzen da... gaur danok gaude euskaldunak... eta tokatzen da inoiz bileraren bat euskaraz egitea."

"Denak datoz ele bitan... erdaraz eta euskaraz..."

"programa informatikoak eta defektuz datoz gaztelaniaz...eta ingelesez askotan baina gero norberak



aukeratzen du euskaraz jarri edo ez."

Bestalde, bereziki beraien sailean, ingelesaren presentzia indartsua da, kanpoan lankide asko baitituzte eta sarri lan hizkuntza ingelesa ere izaten da. Dokumentuetan, beraien arteko komunikazioetan, softwaregintzan...

"Gero hemen, zuzendaritzatik eta izan ditugu zalantzak ba... igual ingelesa izan beharko zela... ba... dauzkagu 120 pertsona kanpoan eta haiekin hizkuntza normala da ingelesa. Orduan, dokumentuak eta informeak askotan ingelesez dira. Orduan... batzutan l+Den egokiena izango zen dokumentazio guztia ingelesez egotea, ez?"

"Edukitzen badugu bilera tekniko bat edo... ba beno... zeren hor izaten da... erabiltzen dugun terminologia askotan ingelesez egoten da (...) eta oso teknikoak direnean bai jotzen dugula gaztelaniara... baina beno zaila da... zaila da... horrela, bilera batetan elkartuta... beti egongo da baterenbat arazoekin."

"Badaukagu gero ere beste sistema bat (...) kanpotik etortzen dela informazioa eta ingelesez da gehiena. Baina beno, (...) dokumentazio tekniko eta horrela gaztelaniaz dago."

"Sortzen diren komunikatuak... bertsio aldaketak... hau eta bestea... ingelesez erabiltzen dugu. Eta bueno, gero ditugun prozedimenduak, kalitatetik eta... hori bai, hori gaztelaniaz eta euskaraz ditugu."

Dena den, organoetako eta departamentuko bilera orokorretan, hala nola kontseilutxoetan eta kontseilu sozialean, euskarak badu bere presentzia. Zentzu horretan euskararen erabilera sustatzeko hainbat neurri eta mekanismo ezartzen dituzte: saileko kontseilutxoa bitan banatu, bat euskaraz eta bestea gaztelaniaz, Kontseilu Errektorean gai batzuk euskaraz azaldu... Talde kohesioarekiko eta antolaketarekiko zalantzak sortzen badizkio ere positiboki baloratzen ditu neurri hauek.

"Hemen, saileko departamentuan gogoratzen dut behin, egin genuela aurkezpen bat... hamabi pertsona edo... eta bat-batean... baina beno, denok euskaldunak gara eta... eta egon ginen bi ordu edo aurkezpena euskaraz egiten. Gainera gogoratzen dut, zeren izan zen komentario bat... ba... arazo barik. Nik uste dut... aukera dagoenean erabiltzen dela modu normal batetan."

"Garai batetan ere...gogoratzen dut Kontseilu Errektorean ere egin genuela horrelako saiakeraren bat... zati bat euskaraz... garai baten puntu bat edo bi... eta orain hemengo kontseilutxoan ere egiten ditugu bi. Lehen egiten zen bakarra eta orain bat gaztelaniaz eta bestea euskaraz. Ez daramagu denbora asko horrela... sei hilabete edo... eta bueno nik uste dot ondo. Ea, pasatzen da... kontseilutxo normal bat izanda... ba bueno... azalpen bat eta gero bestea... dudaren bat azaldu eta kitto... baina dagoenean gai interesanteren bat... eztabaidatzea komeni dena... pena bat da egotea departamentua zatituta bitan, zeren galtzen da... batek aportatzen duena bestekoak ziur aski ez da enteratzen eta bueno. Apur bat ere galtzen da departamentuko lotura... hemen gaude ia laurogei pertsona eta kontseilutxoa da momentu bakarra elkartzen garena denok. (...) Gero batzuetan, kontseilutxotan sartzen dugu departamentu gai orokorren bat, zeren askotan ez dakigu zertan dabilen hura eta bestea... eta egiten da bitartean... egiten da kontseilutxo bat gaztelaniaz gero gai hori jarraian eta ondoren euskarazko kontseilutxoa. Bueno, hor aritzen direnak saiatzen dira guzti hori ondo antolatzen eta nik uste dot..."

ondo doala."

Enpresa mailan, euskararen normalizazio prozesuari buruz galdetuta, Rubenek, batez ere, belaunaldi berriengan erreparatu du. Bere ustez irakaskuntza eremutik euskaldunduta etorriko diren gazteek lortuko duten zerbait izango da. Azken batean, euskaldunduta datozen gazteek enpresa edo lan munduan beraientzako naturala ez den egoera batetan aurkitzen dira, beraiek euskaraz ikasi dutenez gero gaztelaniaz aritu beharrak zailtasunak sortzen baitizkie. Horrela bada, lan munduan, gizartean bezala (nahiz eta atzetik ibili), belaunaldi euskaldunduen eskutik etorriko da euskararen normalizazioa.

"Inkorporazio berriek... horiek die lortuko dutenak normalizatzea mundu hau."

"Oso inportantea da... datorren jende berria... gehienak datoz euskararekin oso maila onarekin... horreik euren lana jarraitzea euskaraz... zeren eurentzako hori da elementu naturala eta ziur asko beraientzako elementu onena hor da. (...) ziur asko haienezako hartzen badute dokumentu bat gaztelaniaz oztupo bat izango da beraientzako... orduan, nik uste dot joan behar garela apurka-apurka jartzen hemen ere horientzako era... era... era aproposa."

"Nik uste dot enpresa mailan gabiltzala urte batzuk atzetik. Gizartean izan da inkorporazioa lehenago eta nik uste dut, enpresetan orain ari direla sartzen... jende berria eta gaztea sartzen eta... ba apurka-apurka nik uste dot joango dela normalizatzen... baina nik uste dut denbora apur bat eman behar zaiola prozesu honi, ez?"

"Nik uste dut euskaldunen kopurua gehitzen doala egunetik egunera... eta prozesu horretan erabilera izango da gauza gero eta normalagoa."

"Pausu azkarrak ematea alde horretan izan daiteke arriskutsua. Nik uste dut izango dela prozesu normala... beharko duela bere denbora... apurka-apurka... eta azkenerako onartuko dugula gauza normala bezala, ez? Nire ustez, denbora beharko du."

"Izan dadila gure artean ulertzeko tresna normala... baina hemen oraindik urte batzuk behar dira... eta horrekin esan nahi dotena da... hemen behar dela batzuk erretiratu eta beste batzuk sartu, ez? Zeren gaur egun, dinamika horretan beti geldituko da baterenbat kanpoan edo ulertu gabe... ez dakit zaila da."

"Enpresetan egiten dira gauzak beharrezkoak direnean... gauza bat bihurtzen denean beharrezkoa... egiten da bai edo ez, eta gaude ohituta horrela. Orduan gauza bat ez bada beharrezkoa... ez badugu sentitu ba... gure helburua da produktu ona atera, bezeroak eduki eta urte amaieran emaitza onak izatea. Eta euskara ez denez behar modura ikusi edo sentitu ba ez da... eta beno, ez bada behar hori sortzen zelabait fortzatu egin behar da makina aurrera egiteko. Beno... gaur egun nik uste dut behar hori sortu dela... eta behar hori da inkorporazio berriak ez direla era normal batetan sartzen. Eurak sartzen die eta... eurentzako ez da entorno... erdaraz eta horrela... eta ez daude beraien egoera naturalean."

"Gu ez gara enpresa arrunta, baditugu gure berezitasunak... maila teknologiko altua eta... eta garai batean hemen... fitxaje batzuk eta... dago jende dezente kanpoko. Gaur egun ez dago arazo hori."

Baina bueno... hemen I+D departamentuan dago jende dezente kanpotarrak (...) euren hizkuntza ez dela euskara. Garai batetan kontratuak horrela egin zirelako... kanpoko jendea eta bilatuz jende kualifikatua. Gero, nik uste dot joan dela hori apurka-apurka... gaur egun dago jada jende dezente eta prestatuak... eta gaur egun inkorporazio berriak gehienak euskaldunak dira eta gainera ikusten da beraien lehen hizkuntza euskara dela."

Rubenek normalizazio plana tentuz burutu beharraren gainean ere aritu da. Berarentzat garrantzitsua da erdaradunak aintzat hartu eta aurkakotasunik sortu gabe ematea urrats ezberdinak. Behin baino gehiagotan nabarmendu du euskaradunak ez direnak ere gerturatu edo batu beharraz, beraiek ere euskararen erabilera eta presentzia natural eta "normal" sentitu dezaten. Bere ustez beraz, poliki-poliki, apurka-apurka da bide egokia.

"Nik uste dot normalizazio hori zer izango zen... ba izango zen, niretzat, euskara ez dakitenak ere... ba urreratu baita prozesu hori laguntzera ez."

"Ikusi doten beste joera bat edo... euskara ez dakitenak eta jada adin bat dutenak eta horrela... ez dute ikusten mugimendu normal bat modura. Ez dut esaten traba bezala jartzen dutenik baina... ez zaie ondo iruditzen, zeren azkenerako... enpresa batetan gaude... hemen gaude aurrera ateratzeko, produktu on bat egiteko eta jo... ikusten dute...askotan... bueno nire susmoa da... ikusten da... euskararako jartzen diren medioak, denbora... ez noa esatera denbora galtze bat baina... gauza bat izango balitz... "jode si aquí tenemos que..." eta niri horrek apur bat beldurra ematen dit, zeren inportantea da jende hori ere... normalizatuta egongo zen jende guzti hori hartuko balitz... eurek ere gauza normal modura eta ikusten dut ez dutela hartzen, askotan, gauza normala moduan... hizkuntza gurea da eta erabiliko dugu."

"Nik ez dut ikusten ari garela gauzak gehiegi forzatzen... nik uste dut darabilgula martxa... poliki... edo motel... edo normala. Nire iritzia zan hasierako pausuetan... niri beldurra emuten zuten... forzatu larrei makineria eta horrekin lortu enpresan izatea kontrako joera duen talde bat. Sentitzea... ostia aquí nos están... eta horreik ere lortu gurera hurbiltzea eta azkenerako eurek sentitzea... nahiz eta ez menperatu hizkuntza hau, ikustea gauza normala bezala eta... gurekin eruen, ez? Bestela sortu leike alde baten erresistentzia hori. Eta defentsan jarri eta orduen automatikoki kontra. Hori gertatuz gero izango zen niretzako frakaso bat. Hemen hasten bagara... eta suertatzen bada daudela bi talde... bat alde eta beste bat kontra... ya la hemos jodido. Ez dauko soluziorik."

"Daude batzuk esaten dutena egin behar dela forzatu makineria... eta jendea jarri... esfortzu bat egin eta... baina niretzako dauko arriskua. Lortu leike batzuen artean bai baina... hemen ez badaroiogu danok martxa edo norabide horretan, akabo, zeren azkenean... Beste arlo baten... administrazioan eta nik uste dot behartu egin behar dela... hizkuntza ofizial bat eta... publikoan dagoena eta... hor behartu egin behar da eta hor ez dago... Enpresa mailan ez dauka konponente hori eta orduan... bakarrik falta da enpresa mailan hizkuntza izatea problema bat. Ez ginake joango bide onetik."

"Pentsatu genezake... martxa honetan hau ez doa... eta egin beharrean 20 urtetan beharko dugu 40, ez dakit (...) emaitzak motzera."

"Enpresa ez da gauza arraro bat... enpresa dago gizartean integratuta... kaleko euskararen normalizazioa poliki-poliki badoa, baldin badoa, martxa onean... ba joango da arlo guztietara sartzen. Enpresa maila izan daiteke azkenetariko bat baina apurka-apurka."

Euskara planaren nondik norakoak ez ditu zehatz-mehatz ezagutzen, hala ere, erabilera sustatzeko neurrien gainekoak nabarmendu ditu.

"Beno, ibiltzen gara... nola hobetu portzentajeak... euskararen erabilera... hor ibiltzen dira neurtzen erabilera eta... teknikaria eta hor dabil... baina beno, zaila da."

"Orokorrean... erabilera helburuak egoten dira... alfabetatze lanak... baina ez dut detaile askokin ezagutzen... orokorrean ez."

Bestalde, Euskara planaren egitekoa funtsezkotzat jotzen du, eragin ezean aurrera egiterik ez dago eta bestelakoan beheranzko norabidea hartuko luke euskararen normalizazio prozesuak.

"Ez bada euskara planagatik... egiten da behintzat zerbait ezberdina eta ez bada ezer ezberdina egiten ba... jarraituko dugu aurrerapen barik eta hemen ez bada lortzen aurrerapen hori betik egongo gara... joera izango lasaitu eta okerrera. Euskara planak lortzen duena da hori... mugitu eta zelabait behartu. Eta beti be... orain sei hilabete esaten gauen hauxe eta hauxe eta ez dozue bete... ez dozue egin..."

"Eguneroko egoeran dugun saltsarekin ez da egoten gai hori... lehentasunarekin... zelabait ahaztu egiten da."

"Hemen gaudela eta ari garela adaptatze prozesu baten... eta ari garela prestatzen egoera on bat inkorporazio berrientzako. Euren lana eta jakinduria guztia garatzeko egoera normal baten. Hori prestatu eta lagundu. Hau ez da gizartetik... gauza arraroa."

"Ez badugu zerbait egiten bultzateko... berez hori... esan leike hori badoala beheruntz... orduan zerbait hobetu nahi badugu... hobetze horrek beti suposatzen du esfortzu bat. Gainera... berdintasun hori bestela doa beti handiaren aldera, ez?"

Alde horretatik kooperatibako organoak neurri batetan inplikatura daudela iruditzen zaio baina motz gelditzen direla eta gehiago egiterik badutela uste du.

"Nik esango nuke organoak inplikatura daudela... beno... azaldu beharko litzateke zer den inplikazio hori... gehiago egin leike... ba ziur aski bai ez? Inplikatu niretzako da hori, gehiago egin ez... eta nik alde hortik ez dut ikusten... beno, nire informazioa ez da oso zehatza baina... alde horretatik... ondo ikusten duela, bultzatzen duela, ez dela jartzen oztoporik baina inplikatu... igual askotxo esatea da."

Dena den, euskara plana ezartzeari arriskurik ere ikusten dio, goian aipatutakoaren haritik,

abiadura gehiegi eman eta lankideen artean aurkako jarrerak sortu daitezkeelakoan.

"Horrelako plan batekin makinaria fortzatu eta lortzen badugu sortzea jarrera bat jende baten kontrakoa... ba hori ez zen izango ona. Nik ikusten dot oreka puntu bat bilatu behar dela."

Azkenik, Rubenek euskararen erabilerari muga jakin bat ikusten dio: komunikazio funtzioa. Hau da, bestelakoan, kalean eta gizartean komunikazio funtzioarekiko malgua izaterik badago ere, lan munduan, komunikatzeak eta erdaradunek ere informazioa jasotzeak berebiziko garrantzia du. Noski, gaur egun, funtzio hori gaztelaniak soilik bete dezake.

"Txikitan ere... Euskal Herrian... Katalunian ez dakit baina... hemen txikitan ere, koadrilan eta horrela agertzen bada erdaldunen bat pasatzen gara gaztelaniara... eta gai arruntak dira... eta bueno, norbait ez bada enteratzen ez da ezer gertatzen baina hemen, lantegiko mailan, norbait ez baldin bada enteratzen tema grabe bat da. Beraz ezin da... gaiak dira ezberdinak eta helburu garrantzitsu bat da komunikazioa eta heltzea jendearengana. Hemen ere... kanpotarrekin egiten denean... etortzen dira frantziarrak eta txinatarrek eta horrela eta bilera guztiak ingelesez egiten dira... eta beno zailtasunekin... baina inor ez dadin gelditu... Bilera baten funtzioa zein da?... ba denok adostu... enteratu... eta garrantzitsuena hori da, ez?"

"Orduan... elkartzen bagara mahai batetan sei pertsona eta denok ez baldin badakigu... erdara da... ez dakit nola esan... erdara da hizkuntza denok ulertzeko funtzio hori betetzen duena. Euskara bada balio duena denok ulertzeko... ba hori izango zen egoera... Baina hori lortzeko oraindik falta da."

### 3.7.- EGUZKIÑE

Eguzkiñe 27 urtetako gazte gasteiztarra da, ama hizkuntza gaztelania du eta eskolan euskara ikasi duen arren ez da hizkuntza honetan komunikatzeko gai. Automozio arlora zuzendutako enpresa batean egiten du lan eta taldeko enpresaren batean euskara plana ezarrita dagoen arren bera ari den enpresan ez dago euskara planik.

Euskararen egoera nahiko ona dela iruditzen zaio. Euskararen erabilerak gora egin duela antzematen du eta orain urte batzuetako egoerarekin alderatuta aldaketa nabarmena eman dela.

"Yo lo veo bastante bien, la verdad, yo... cada vez oigo a más gente a hablar euskera. Y eso que yo soy de Vitoria y en Vitoria no se habla mucho pero... sí que se oye hablar más, o sea que yo lo veo bien. Creo que antes se hablaba muchísimo menos, creo. (...) los chavales,... ahora todos saben euskera, cuando nosotros... no sabíamos nada. O sea que... mucha diferencia."

Bere enpresan ere euskara asko erabiltzen dela iruditzen zaio, beti ere lankideen arteko harremanetan. Bestelakoan, lan hizkuntza gaztelania da nagusiki, edo frantsesa kasu batzuetan. Hau da, lan bileretan, lan kontuez ari direnean, bezeroekin... Dena den, enpresako komunikazio orokorretan eta, elebitan aritzeko irizpidea ezarrita dute.

"Cuando he llegado aquí sí, me he dado cuenta de la importancia del euskera, al menos en esta planta."

"Entre compañeros se hace mucho en euskera, mucho, mucho."

"En temas de reuniones nunca se habla euskera, nunca. (...) y en emails tampoco."

"Lo que son conversaciones laborales... profesionales... yo no he visto que nadie te haga en euskera. Alguna vez si que se habla en euskera... pero en general yo creo que es en castellano."

"Las comunicaciones... las circulares... en bilingüe. De hecho tenemos la consigna de que todo lo que se saque al taller tiene que estar en castellano y en euskera. Todas las informaciones... las comunicaciones... todo."

"Los clientes... más bien a nivel del estado e internacional... entonces con ellos (...) en castellano o en francés, vamos."

Alde horretatik, Eguzkiñek uste du beraien enpresan euskararen egoera normalizatuta dagoela, Berak ezagututako beste enpresen aldean bertan euskararen presentzia nabaria delarik (harridura

sortu izan diola ere aipatu du) . Bestetik, normalizazioaz zer ulertzen duen galdetuta, berarentzat normalizazioa nahi duenak bi hizkuntzen artean nahi duena erabiltzeko aukera dela aipatu du.

"Para mí, el euskera en nuestra empresa está normalizado. En esta empresa sí. De hecho es la única que conozco en la que se hable tanto en euskera y la gente esté tan concienciada. (...) en Vitoria el trato del euskera es nulo... por eso para mí aquí me parece... lo anecdótico de hecho. A mí... cuando llegué aquí me llamó mucho la atención."

"Para mí la normalización es... poder hablar ambos idiomas indistintamente. Qué todo el mundo entienda ambos idiomas... que todo el mundo pueda comunicarse en ambos idiomas... Que el que quiera pueda hablar en euskera tranquilamente... y aquí eso se puede hacer tranquilamente."

Euskararen normalizazioan aurrera egitea garrantzitsutzat du, bertako kulturaren parte baita eta hori sustatu eta bultzatu beharra dago. Hala ere, behar hori ez du laneko beharrari lotuta ikusten. Zentzu horretan instituzioetatik edo gobernutik bultzada ematen ari zaiola iruditzen zaio.

"Me parece importante desde el punto de vista cultural, no desde el punto de vista laboral como tal. Desde el punto de vista laboral me parece importante que la gente sepa inglés, o francés en su caso... o cada sector según a lo que se dedique... a los clientes a los que se dediquen. Pero me parece importante para nosotros mismos."

"A mí la sensación que me da es que sí se está haciendo una campaña de apoyo desde el gobierno vasco... una campaña que se está haciendo en todos los sectores. Creo que sí."

Eguzkiñek ere euskararen erabileraren muga komunikazio funtzioarekin lotzen du. Euskararen erabilera zilegi ikusten du baldin eta euskararik ez dakitenek informazio bera jasotzea eta komunikazio egokia ematea bermatzen bada. Alde horretatik euskararen normalizazio prozesua ezagutza hedatzearekin lotzen du, eta hau, denborarekin etorriko dela uste du. Bitartean, beharrezkoa da urratsak poliki eta tentuz ematea kontrako jarrerak sortzea nahi ez bada. Beraz euskara inposatzea ez zaio zuzena iruditzen eta honek ezin egona eta gaitzespena sortzen duela irizten dio.

"El problema es cuando una de las personas no sabe euskera... en ese caso yo creo que hay que darle prioridad a dar la información. O bien en castellano, para que todo el mundo lo entienda, o bien traducir."

"Que nos comuniquemos... es que ese es el objetivo del euskera y de todos los idiomas. (...) y yo creo que lo principal es que se dé toda la información... para llegar a ese objetivo no es privando a ciertas personas durante un tiempo a no entender algo... si no es fomentar el euskera desde antes... para luego llegar a que se pueda hablar en euskera y todo el mundo entienda euskera. Pero no haces... la otra cosa porque eso no tiene ningún sentido."

"Que todo el mundo tenga la misma información... que creo que es lo más justo... hasta que todo el mundo sepa los dos idiomas... que yo no creo que tarde tantos años... yo creo que es lo más justo."

"El que quiere forzar la maquinaria... causa rechazo... pero me causa el mismo rechazo que la persona que no quiere y se niega a aprender euskera y que no entiende que los demás quieren que les hagan en euskera... o sea, que aquí lo que es clave es la comprensión... cada uno habla el idioma... el que tenga suerte de hablar los dos idiomas... pero es comprensible que cada uno quiera hablar en un idioma determinado. Pero eso no quita que... o sea, el tema ese de la imposición en algunos casos me parece absurdo. Y sacar de madre estos temas me parece que no le hace ningún favor al euskera, fíjate. Estas cosas sacan la rabia... la mala leche de ciertas personas... crea un efecto rebote que no beneficia a nadie. Se consiguen más cosas que forzando e imponiendo."

Halaber, hizkuntza eskakizunak ezartzearen inguruan zalantzak ditu. Zilegi iruditzen zaio enpresa edo erakunde pribatu batek lanpostuetarako euskara eskakizunak zehaztea, baina berarentzat, ikuspegi profesional batetik, ez dauka zentzu handirik.

"Me parece... legítimo... por ser una empresa privada. Lo que no me parece es lógico. Si hay que elegir a uno de calidad, a un comercial... pues yo cojo al mejor. Me da igual que hable en castellano o que hable en euskera. Yo lo miro desde un punto de vista profesional... el resto me da igual."

Eguzkiñek, euskara lan munduan normalizatu dadin sumatzen duen zailtasun nagusia ezagutzarena da. Egun euskararen ezagutza ez da behar bestekoa eta gainera helduentzako hizkuntza bat ikasteak esfortzu handia eskatzen duenez eta euskara ikasteko motibazio nahikorik ez dagoenez -azken batean euskarak maila profesionalean ez du balio erantsirik ematen- egun ez da posible lan munduan euskarak egoera normalizatu bat izatea.

"La primera dificultad que le veo... que la gente no sepa euskera. Si yo desde pequeña hubiera aprendido euskera ahora... hablaría euskera, pero como no lo sé... bueno lo entiendo lo justo, más o menos... y el resto de mi entorno no lo hablan porque no lo conocen. Y segundo porque ahora nos movemos mucho... por aspiraciones profesionales... y por necesidad también. Entonces, hoy en día no buscas trabajo solamente en tu casa, aquí en Euskadi, si no puedes, y más ahora con el tema de la crisis. Entonces... el euskera no es un valor añadido... entonces si yo... mi tiempo libre lo tengo que dedicar a estudiar un idioma... como yo que además tengo poco... pues quieres que además de gustarte te pueda servir. De mayor no es como... nativo... y supone un esfuerzo."

Euskara planen berri ere badu eta interesgarritzat jotzen ditu oro har, enpresak lan ildo hori babestea positiboki baloratzen duelarik. Ikusten du euskara plana ezarrita dagoen enpresa batean eta ez duen baten artean aldea esanguratsua dela. Alde horretatik gure kultura bultzatzea eta zaintzea hobesten ditu, eragozpen bakarra izan dezakeen kostu ekonomikoa delarik, bereziki beste lehentasun batzuen gaineratik jartzen baldin bada.



"Del que tiene plan de euskera al que no tiene... hay una diferencia abismal."

"Me parece interesante poner en marcha un plan de euskera, muy interesante. Porque veo que se hacen cosas y se consiguen cosas. (...) valoro que desde la empresa se... se apoye la promoción del euskera."

"La de fomentar y mantener nuestra cultura. Es un tema sobre todo cultural"

"El problema que le veo yo es el tema económico... otro inconveniente no le veo yo. Quitando el económico... inconveniente ninguno."

"Si es una empresa solvente y no tiene ningún problema económico me parece estupendo."

Goian jada aipatu den arren, behin baino gehiagotan argi adierazi du euskarak lan munduan ez duela balio erantsirik eta enpresa batentzako euskararen ezagutza edo erabilera ez dela baliagarria. Alde horretatik lankide batek izan dezakeen euskara gaitasunak ez du pertsona horren profesionaltasun eta eraginkortasuna baldintzatzen. Zentzu honetan Osakidetzako hizkuntza eskakizunen gaia erabili du hizpide. Kasu honetan ulergaitza egiten zaio Osakidetzako lan postu publikoetarako euskararen gaitasunari ematen zaion lehentasuna.

"Si sabes castellano e inglés, sabes dos idiomas, si sabes castellano y euskera sabes... a nivel profesional sabes un idioma. No te aporta nada."

"Esas personas no aprenden euskera... porque las empresas, que yo sepa, no te lo exigen y porque... no tiene valor. Entonces... de hecho estamos hablando de empresas privadas pero si nos vamos al sector público... jo... al final a mí eso sí que... aparte de todo lo que aporta a nivel cultural y la necesidad de que se fomente... por ejemplo con el tema de la sanidad no lo comparto para nada. El hecho de que... lo de Osakidetza... el hecho de que se le de tanta importancia al idioma cuando estamos hablando de profesionales de la sanidad... no lo entiendo. No entiendo el tema de los perfiles lingüísticos... yo creo que están muy mal establecidos. Yo creo que se están priorizando cosas que no son prioritarias. Tú tienes que valorar a la persona por su profesionalidad, por su experiencia, no por saber uno o diez idiomas y que el euskera esté entre ellos. Ni más ni menos, lo importante es que la gente pueda comunicarse... es que en un tema como este lo que la gente quiere es que un médico le cure."

Azkenik, euskaradunek egiten dituzten eskaerak edo aldarrikapenak ulertzen dituen arren beste alderdi batzuk lehenetsi behar direla iruditzen zaio. Euskara ikuspuntu kultural batetik begitantzen du baina hori baino lehen lanerako eskubidea eta langileen profesionaltasuna bezalako gaiak daudelakoan dago. Hots, euskarari lanerako baliagarritasunik aitortzen ez dionez hainbatengan aurkakotasuna sorrarazten du eta, beraz, egokiena pertsonen hizkuntza bat, euskara, borondatez edo nahi dutelako ikastea dela adierazi du, ez derrigorrez.

"Y a mí me da rabia que la gente se esté yendo a Madrid, que se están dando casos, y que... hay un

trasiego de profesionales... que se están concentrando en otras comunidades autónomas... que en este caso... por un tema tan absurdo... que no vengan profesionales... Yo creo que la sociedad vasca se merece la oportunidad de tener los mejores profesionales. Pero... entiendo ambas posturas. Entiendo que el que quiera acceder a un puesto público tenga que estudiar euskera, pero también entiendo que alguien que no sepa euskera le de rabia. Produce malestar. (...) son cosas que... y no sé hasta que punto merece la pena."

"El euskera no es por tema laboral... generalmente... no es que tengas... (...) y además me parece lo bonito del euskera... que la gente que lo aprenda sea por que quiere, que es la mejor forma y la más eficiente para aprender un idioma."

## 4.- EDUKIEN AZTERKETA

Azkenean, aurreikusitako zortzi elkarrizketak beharrean zazpi elkarrizketa burutu ditut, euskararekiko jarrera epela edo aurkakoa izan zezakeen euskaradunik aurkitu, identifikatu eta elkarrizketatzeko zailtasunak medio, ez baitzait posible izan zortzigarren elkarrizketa hori gauzatzea. Hala ere, eta diseinuari dagokion atalean aipatu bezala ageriko jarrerak identifikatzeko orduan aurreiritzi eta bestelakoek izan dezaketen eragina aintzat hartuta, zortzigarren elkarrizketak diskurtsoen gaineko ezaugarri berri edo berezirik ematea zaila izango zelakoan zazpi elkarrizketan jasotakoak aztertzeraz mugatu naiz.

Oro har zazpi elkarrizketetan jasotako iritzi, diskurtso eta argudioak anitzak izan diren arren antzekotasunak ere nabariak izan dira. Atal honetan jasotako edukien artean gakoak izan direnak ekarri eta desadostasunak aztertuko dira.

Lan hau eramangarriagoa egiteko eta irakurterrazagoa izan dadin ondorengo taularen bidez entzundakoen hustuketa laburtua egin dut:

| EUSKARA PLANA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| EUSKARADUNA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   | ERDARADUNA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |
| <p><b>UNAI:</b></p> <p>Euskararen egoera hobera doa</p> <p>Euskararen normalizazioa: euskaradunen eskubideak bermatu behar dira</p> <p>Erabilera: egoerak hobera egin du bere enpresan, bereziki, kontzientziazio mailan.</p> <p>Nazioartekotzea muga edo oztopo bezala.</p> <p>Instituzio publikoetatik ez dago behar besteko laguntza eta bultzada.</p> <p>Euskaradunen jarrera epela / kontzientziazio falta. Gaztelaniarako joera.</p> <p>Aurkako jarrerak erdaradunekin, euskara ez dakitenekin du lotura.</p> <p>Euskara plana garrantzitsua da: egituraketa, plangintza, neurketa, komunikazioa...</p> <p>Enpresako organoen inplikazioa eta euskara planaren erakundetzea funtsezkoa da.</p> <p>Aholkularitza edo kanpoko erakunde baten laguntza</p> | <p><b>ABEL:</b></p> <p>Euskararen egoera hobera doa, bereziki ezagutzari dagokionez.</p> <p>Erabilera: bere enpresan erabilera gora doa besteak beste ezagutza handia baita.</p> <p>Zailtasunak: lan hizkuntza edo hizkuntza teknikoa.</p> <p>Hizkuntza ezberdinen arteko elkarbizitza zaindu beharra.</p> <p>Instituzio publikoetatik laguntza eskasa.</p> <p>Muga nagusia euskararen normalizazioak suposatzen duen kostua.</p> <p>Euskararekiko jarrera ona da oro har.</p> <p>Enpresako organoak euskararekin eta EPrekin inplikaturak.</p> <p>Euskara Plana funtsezkoa da: euskararen normalizazioa, sistematikoki eta era planifikatu batean lantzeko.</p> <p>EPren onurak: lankideen gogobetetzea eta harrotasuna.</p> <p>Euskarak lan hizkuntza izateko zilegitasuna du.</p> |

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>komenigarria.</p> <p>EPren onurak: euskaraz aritzeko eskubidea bermatu eta hizkuntzen kudeaketa.</p> <p>EPren kalteak: esfortzua eta kostua.<br/>Lan munduan euskarak balio erantsi eskasa.</p> <p>Euskara euskal nortasunaren oinarritzko ezaugarria.</p> <p>Hizkuntza gatazka, badago, baina gainditu daiteke borondatea izanez gero.</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          | <p>Euskarak balio erantsi eskasa.<br/>Kooperatibak euskararen normalizazioan eragile izan dira.</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |
| <p><b>RUBEN:</b></p> <p>Euskararen egoerak hobera. Deba ibarrean egoera ona.</p> <p>Bere enpresan euskararen ezagutza nabarmena da eta euskararen erabilera ere adierazgarria da.</p> <p>Ingelesaren presentzia indartsua.</p> <p>Lan hizkuntza nagusia gaztelania (hizkuntza tekniko gaztelaniaz).</p> <p>Euskarak badu presentzia organo eta bilera orokorretan, hala nola kontseilutxoetan.</p> <p>Normalizazioa: euskara eta gaztelania erabiltzeko aukera bermatzea.</p> <p>Normalizazioa euskaldunduta etorriko diren belaunaldi berrien esku.</p> <p>Normalizazioa poliki-poliki, erdaradunak aintzat hartuz eta gatazka ekidinez.</p> <p>Enpresako organoen inplikazioa baxua da.</p> <p>Komunikazio funtzioa, egun, gaztelania betetzen du. Euskarak funtzio hau bete ahal izatea belaunaldi berrien esku.</p> | <p><b>MIKEL:</b></p> <p>Euskararen egoerak hobera egin du.</p> <p>Bere enpresan euskararen erabilera arrunta eta esanguratsua da maila informalean zein formalean.</p> <p>Euskara gatazka iturri.</p> <p>Hizkuntzen erabilerari dagokionez komunikazio funtzioa betetzea da baldintza nagusia.</p> <p>Euskara plana Vs Hizkuntzak kudeatzeko plana.</p> <p>Aukera askatasuna, euskara zein gaztelaniarena.</p> <p>Euskararen erabilera derrigortu edo inposatu egiten da.</p> <p>Euskara gizarteko zati baten nortasun ezaugarria, abertzaleena, ez gizarte osoarena.</p> <p>Lanpostuei egokitutako euskara eskakizunak ez dira zuzenak eta zilegi.</p> <p>Kontratazio politika baztertzailerik egiten da, jatorriaren arabera baita.</p> <p>Hizkuntzen plangintza: euskara eta gaztelania parekatu, ez euskara gaztelaniari gailendu eta inposatu.</p> <p>Euskara plana desegokia da, euskara sustatzen du bakarrik.</p> <p>Komunikazio funtzioa betetzeko zilegitasuna gaztelaniarena da, denok ezagutzen dugun hizkuntza baita.</p> <p>Euskararekiko arrangura nabaria, biktima izatearen sentimendua: hizkuntza inposatua, baztertzailerik, jarrera erasokorra, erdaradunak bigarren mailako hiritarrak, euskaradunen presioa, sufrimendua, gaztelaniaz bizitzeko eskubidearen galera...</p> |
| EUSKARA PLANIK EZ                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
| EUSKARADUNA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             | ERDARADUNA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p><b>JOSU:</b></p> <p>Euskararen egoerak hobera egin du.</p> <p>Erabilera: bere enpresan erabilera oso eskasa, ezagutza maila baxuak eta enpresaren konpromisoak baldintzatuta.</p> <p>Lan munduan euskararen normalizazioan gutxi egin da aurrera.</p> <p>Kooperatibak euskararen normalizazioan eragile eta eredu.</p> <p>Enpresako organoen inplikazio maila eta sentsibilizazio maila baxua da.</p> <p>Oztopoak: euskaltzaletasuna eta abertzaletasunak indar eskasa du bere enpresan.</p> <p>Instituzio publikoetatik laguntza eta babes gutxi.</p> <p>Euskararekiko aurkako jarrerarik ez bere enpresan euskararen presentzia txikia denez.</p> <p>Enpresako organoen inplikazio txikia, euskara folkloreakin lotzen da nagusiki.</p> <p>Euskara plana ezartzea garrantzitsua da eta hau aurrera eramateko kanpoko laguntza komenigarria.</p> <p>Euskara euskal nortasunaren oinarritzko ezaugarri / euskaradun (bertako) - erdaradun (kanpoko) dikotomia.</p> | <p><b>KOLDO:</b></p> <p>Euskararen egoera hobera doa</p> <p>Lan hizkuntza gaztelania da bere enpresan, baina euskararen presentzia zaintzen da (irudia, dokumentuak...)</p> <p>Normalizazioa: euskara eta gaztelaniak maila bera izatea.</p> <p>Normalizazioa etorkizunean emango da belaunaldi euskaldunduen eskutik.</p> <p>Lekuan lekuko egoera soziolinguistikoa aintzat hartu beharra.</p> <p>Zerbitzua egoki eman beharra bezero euskaldunei.</p> <p>Zailtasunak: ezagutza eta gaitasun maila nahikorik ez.</p> <p>Enpresako organoen inplikazioa ez da hain garrantzitsua.</p> <p>Euskarari lotutako neurrien onurak: irudia hobea ematea kanpora begira.</p> <p>EP martxan jartzea onuragarria izan daiteke. Lehentasuna ezagutza.</p> <p>Euskarak balio erantsi eskasa. Bezero euskaldunekiko zerbitzuari lotuta batez ere.</p> <p>Euskara bertako hizkuntza bezala. Nortasun kolektiboaren ezaugarri garrantzitsua.baina gaztelaniarekin batera.</p> |
| <p><b>EGUZKIÑE:</b></p> <p>Euskararen egoera nahiko ona da.</p> <p>Erabilera: bere enpresan lankide arteko harremanetara eta komunikazio orokorretan ematen da nabarmen.</p> <p>Lan hizkuntza gaztelania.</p> <p>Euskararen normalizazioa garrantzitsua, euskara gure kultura baita.</p> <p>Komunikazio funtzioa betetzeko zilegitasun a gaztelaniarena da.</p> <p>Euskararen normalizazioa ezagutzaren bidetik. Poliki-poliki.</p> <p>Euskara inposatu egiten da batzuetan: lanpostuei egokitutako eskakizunak.</p> <p>Euskarak balio erantsirik ez, garrantzitsua profesionaltasuna eta lanerako gaitasuna..</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |

Euskara plana ezartzea interesgarria eta komenigarria.

Euskara euskal kulturaren ezaugarri garrantzitsua. Bertako kulturaren bereizgarria.

Erdaradunen hizkuntza askatasuna bermatu beharra.

EPren eragozpenak: kostu ekonomikoa, beste lehentasun batzuen gainetik jartzeko arriskua.

#### **4.1.- Elkarriketatuek osatutako diskurtsoaren gakoak:**

Goiko taulan ikusi daitekeenez euskarak egun bizi duen egoera modu positiboan baloratu dituzte elkarriketatu guztiek. Ildo honetatik euskararen egoera hobera doala edo ona dela aipatu dute zazpiek. Bestelakoan, gakoak edo giltzarriak izan diren ondorengo ideiak jaso dira elkarriketa ezberdinetan zehar.

##### **4.1.1.- Euskararen erabilera enpresan:**

Norberak lan egiten duen enpresari begira jarrita, Euskara Plana ezarrita duten enpresetako kideek euskararen erabilerak gora egin duela antzematen dute, ñabardurak ñabardura. Zentzu honetan Abelek eta Rubenek, batez ere, enpresako ezagutza maila ona izatearekin lotuta ikusten dutela dirudi. Unaiek, bitartean, euskaldunen artean eta enpresa barruan, Euskara Planak lagunduta, eman den kontzientziazioari egozten dio erabilerak egin duen aurrerapena. Orokorrean euskararen erabileraren aurrera egitea lankideen harremanetan antzematen bada ere, eta ez hainbeste lan hizkuntz modura, organoetako edo bilera orokorretan (Kontseilu Errektorea, Kontseilutxoak, Ohiko Batzar Nagusia...) ere euskarak badu bere presentzia. Eguzkiñek aldiz, euskararen erabilera sendoa beste enpresa batzuetako erabilerarekin alderatzen du nagusiki eta lankideen arteko harreman informaletara mugatzen du. Josuk eta Koldok berriz, beraien enpresetan euskararen ezagutza txikia izanik erabilera oso eskasa dela aipatu dute.

##### **4.1.2.- Euskararen normalizazioa:**

Euskararen normalizazioaz hitz egiterakoan elkarriketatuek iritzi ezberdinak erakutsi dituzte. Unaiek euskararen normalizazioa euskal hiztunen hizkuntz eskubideak bermatzearekin lotzen du batez ere. Rubenek aldiz, euskara eta gaztelania, bi hizkuntzak erabiltzeko aukera ziurtatzea bezala ulertzen du.

Bestalde, Koldok eta bereziki Mikelek normalizazioa euskara eta gaztelaniaren parekotasuna bezala ulertzen dutela aipatu dute. Mikelen kasuan parekotasun hau aukera askatasunaren ideiarekin dago lotuta. Hau da, langile bakoitzak aukeratu dezala zein hizkuntza nahi duen erabiltzea. Ildo honetatik bere enpresan euskararen normalizazioa ez doala bide horretatik uste du, aitzitik,

bilatzen dena euskara gaztelaniari gailendu eta hau inposatzea dela dio, euskararen erabileraren derrigortasuna ezartzen delarik.

#### **4.1.3.- Instituzio edo erakunde publikoen babesa eta laguntza:**

Bestetik, administrazio publiko eta gobernutik euskara lan munduan bultzatzeko egiten denaren inguruko irudi eskasa agertu dute Unai, Abel eta Josuk. Koldok bitartean, administrazio publikoan euskara ikasteko ematen diren laguntza, erraztasun eta baliabideei erreparatzen die.

Eguzkiñek eta Mikelek lan munduari begira baino gobernutik, maila orokor batean, euskararekiko dagoen jarrera baloratu dute. Alde horretatik Eguzkiñek gobernutik egiten diren kanpainak aipatu ditu. Mikelek aldiz, zeharka bada ere, euskara sustatzearen aldeko joeraz hitz egin du, euskaldunen bi herenak abertzaleek osatzen baitute eta hauek euskara sustatu dadin nahi baitute. Ildo honetatik, gobernutik euskararen alde egiten den politikaz aipamenen bat egin du.

#### **4.1.4.- Euskara Plana:**

Euskara Planari dagokionez Unai, Abel, Ruben, Josu, Koldo eta Eguzkiñek plana ezartzearen komenigarritasuna aipatu dute. Unai, Abel, Josu eta Koldok batez ere funtsezkotzat jo dute, beraien enpresan euskararen normalizazio bidean aurrera egiteko Euskara Plan bat ezartzea, bestak beste ondorengo elementu edo ideiak izan dituztelarik hizpide: diagnostikoa, neurketak, komunikazioa, plangintza/sistematizazioa, bultzada... Bestalde, egiteko honetan premiazkoa iruditzen zaie kanpoko laguntza edo aholkularitza, enpresek arlo horretan duten ohitura zein prestakuntza faltagatik.

Eguzkiñeri, bere aldetik, Euskara Plana ezartzea interesgarria iruditzen zaio, bere irudiko lan txukuna egin eta emaitzak lortzen direlako.

Mikelek aldiz, ikuspegi kritikoa erakutsi du bere enpresan ezarritako Euskara Planarekiko, bere irudiko, gauza txukunak ere egiten diren arren, Euskara Planak gaizki planteatuta daude, euskara sustatzea besterik bilatzen ez dutelako eta bere ustetan hizkuntzen kudeaketara zuzendutako hizkuntza plangintza behar du enpresak. Ildo honetatik, behin baino gehiagotan aipatu du Euskara Batzordea beharrean Hizkuntzen Batzordea beharko lukeela enpresak.

Jasotakoen artean ere, Euskara Plana (baita euskararen aldeko neurriak hartzea) enpresarentzat, batez ere, kostua dela izan da aipatutakoenetarikoa. Enpresari Euskara Plana ezartzea edo euskara bultzatzeak sortzen dion kalte nagusia ekonomikoa dela adierazi dute, hala nola, Unaiek eta Eguzkiñek.

#### **4.1.5.- Euskararen balio erantsia:**

Euskarak ez du balio erantsirik, ez bada bezero euskaldunei eman beharreko zerbitzuan. Ideia hau zazpi elkarrizketatuek aipatu dute. Ideia honek goian aipatutakoarekin egiten du bat. Hots, euskararen normalizazioan urratsak eman behar badira ere, honek enpresari ez dio kostua besterik suposatzen eta aldiz ez dio inongo ekarpen edo baliorik itzultzen. Euskarari, gurea delako, bertako hizkuntza delako, kultura delako eta euskaradunen eskubideak edo aukera askatasuna bermatu behar delako egin behar zaio lekua lan munduan, baina beraien irudiko, ez dio beste ezer ematen beraiek lan egiten duten enpresari. Aitzitik, esfortzua, denbora eta lana dira.

#### **4.1.6.- Komunikazio funtzioa:**

Mikel, Koldo, Ruben eta Eguzkiñek ideia honekiko aipamen ugariak egin dituzte. Hots, euskararen normalizazioan eta erabileraren sustapenean eman beharreko pausuek muga argi bat dute: komunikazio funtzioa. Komunikazio funtzioa bermatzea ezinbestekoa da, eta noski gaztelania denez denok ezagutzen dugun hizkuntza, gaztelaniak du nagusiki funtzio hau betetzeko zilegitasuna.

Illo honetatik, euskararen erabilera enpresako komunikazio kanal ezberdinetan onartu badaiteke ere, euskararen erabilerak komunikazio galera ekarri dezakeela adierazten dute eta hori ez zaie zuzena iruditzen euskara ez dakitenek euskaradunek baino informazio gutxiago jasotzeko arriskua baitago, besteak beste. Alde horretatik, euskararekiko hartutako neurri gehientsuenak zorrotzasunez begiratzen dituzte: bileretan erabiltzerakoan, dokumentuetan, aktetan... Azken batean, euskararen erabilera zilegi izango da baldin eta, eta soilik, erdaradunek informazio bera jasotzen baldin badute. Alde honetatik, irizpide hori maiz urratzen dela irizten diote.

#### **4.1.7.- Euskara inposizio bezala:**

Euskara inposatu egiten denaren gainean Mikel aritu da batez ere, baina Eguzkiñek beste maila batean eta Koldo zein Rubenek egin diote erreferentzia kontu honi, ikusmolde ezberdin batetik bada ere. Sakonean euskarak berak gizarte mailan duen irudiaren eta onartzen zaion zilegitasuna daude. Hala, elkarrizketatuetako gehientsuenek euskara bertako hizkuntza dela uste badute ere (Euskal Herriko berezko hizkuntza) edo euskal nortasunaren ezaugarri oinarritzkoenatarikoa, besteak bertan dagoen hizkuntza (gaztelaniarekin batera) bezala ulertzen dute. Alde honetatik euskara hizkuntza bat gehiago da, baina euskal gizartearen zati batek soilik ezagutzen duena. Beraz, euskara euskal kulturaren azpikultura bezala ikusten dute, onartu beharrekoa, zaindu beharrekoa eta sustatu beharrekoa baina besterik ez. Hala bada, gizarteko arlo guztietan komunikazio funtzioa bete dezakeen bakarra gaztelania da, euskara onartzen da soilik gaztelaniarekin batera baldin badoa.



Honi loturik beste ideia bat doa, eta hor kokatzen dira ere Koldo, Ruben eta Eguzkiñeren iritziak: euskararen normalizazioa irakaskuntzaren bidez euskaldundutako belaunaldi berriek gauzatuko dutela. Hau da, kalean (gizartean) lehenik eta azkenik lan munduan, irakaskuntza bidez gazteek euskara ezagutu/ikasiko dutenez, euskara komunikazio funtzioa betetzeko moduan egongo da etorkizun batean eta hori modu natural eta progresibo batean etorriko da.

## 5.- ONDORIOAK

Sakontze egitasmo honetan burututako elkarrizketen bidez nabaria da askotxo esatea litzatekeela Debagoienko eskualdean euskarak lan munduan duen egoeraren gaineko gizarte diskurtsoa osatzea lortu dela, baina argi gelditu da bertan irudikatutako zazpi diskurtso edo kontakizunetan euskal gizartearen dagoen euskararekiko diskurtsoaren inguruko elementu nagusi asko azaleratu edo islatu direla. Era berean ez da, nolabait esatearren, ñabardura esanguratsurik antzeman. Hala ere, nabarmentzekotan, adierazgarria izan da zazpi elkarrizketetako hirutan komunikazio funtzioari emandako garrantzia eta euskaren normalizazio prozesuak gure eskualdeko enpresetan daraman ibilbideari begira eman dioten zentzu eta zentralitatea, ezinbesteko baldintza bezala irudikatzeraino.

Zentzu horretan, badirudi lan honek jada alde zurratik ezagutzen genuen helmugara eraman gaituela. Hala ere, egitasmo honen dimentsioa nabarmen gailendu arren, zazpi elkarrizketa, bizipen, narrazio edo kontakizun hauetan sakon murgilduz gero, akaso, posible izango litzateke bestelako irakaspen edo informaziorik ere aurkitzea. Behinik behin, goian esandakoak onartuta, azken atal honetan hiru ideia nagusi edota iradokizun jasoko ditut.

Lehendabizi lan honen bidez antzeman diren aurreiritzi eta balorazio orokorren gaineko aipamena egin nahi nuke. Lagungarri gerta baitakiguke aurreiritzi edota balorazio orokor hauek aintzat hartzea euskara biziberritze eta normalizazioaren bidean, azterketa honen kasuan, lan-eremuari dagokionez. Besteak beste, honakoak jaso izan dira:

- ✧ Euskararen inposizioa. Euskararen normalizazioaren azken helburua euskara gaztelaniari gailendu eta inposatzea da.
- ✧ Hizkuntza aukeratzeko askatasuna edo eskubidea (kasu honetan euskara ez jakiteko eskubidea) euskaradunen hizkuntza eskubideen aldean garrantzitsuagoa da.
- ✧ Euskara poliki-poliki eta bortxatu gabe normalizatuko da, irakaskuntzari esker.
- ✧ Euskara, nahi bada, hiltzen borondatea badute, berez garatu eta normalizatuko da.
- ✧ Lan eremuan euskara lehenestea edota prestigioa ematea baztertzaila da eta erdaradun elebazarren eskubideak urratzen ditu.

Bigarrenik, elkarrizketetako batean, Mikelekin burututakoan zehazki, luzatutako galdera bat ekarri nahi nuke. Galderaren nondik norakoa ondorengoa da: "jabetzen al gara erdaradunen aldetik ulertzeko zaila izango dela funtzio komunikatiboaren galera ontzat ematen dela euskara presente egon dadin?". Eta noski, horren jarraipen naturala zera izan daiteke: nola eta zer egin dezakegu

erdaradunek ulertzeko eta aintzat hartzeko funtzio komunikatiboaren galera zati bat eman beharra, ematekotan, euskara presente egon dadin?

Azkenik, goian aipatutako bi kontu hauen hariari jarraiki, Joxpiren lana aipatuko nuke. Joxpik bere lanean, besteak beste, pertsuasioaren mekanismoen inguruko azalpenak ematen dizkigu. Pertsuasioa euskaldunontzat berebiziko garrantzia duen kontua izan baitaiteke. Jarrera eta portaeretan eragin nahi baldin badugu, besteak beste, pertsuasioa landu beharko baitugu. Euskara biziberritzeko motibazioa eta nahia edo bulkada hori beharrezko baldin bazaigu, pertsuasioan sakondu beharko da.

Alde horretatik, pertsuasioak baditu hainbat bide, besteak beste, zeharkako bide bat baina baita erdiko bide bat: euskarari buruz gehiago jakin, euskararen gainean gogoeta egin, arrazoiak bilatu eta esperientziak metatu, azken batean pentsamendu edo kognizioa garatu.

Beraz, arestian azaldu ditudan ideia, aurreiritzi, balorazio orokor eta bestelakoei buelta emateko, gehiago jakiten eta jakinarazten lagunduko diguten, aurkako edo jarrera epela duten erdaradun zein euskaldunen pentsamendu eta kognizioan eragiteko baliabideak behar ditugu. Gure buruak eta besteak soziolinguistika eta hizkuntzen gaineko ezagutzaz jantzi eta hausnartzera bideratzea garrantzitsua izan daiteke zentzu honetan. Alde horretatik, interesgarriak izan daitezke Hizkuntzen Ekologiaren gaineko teoriak eskaintzen dizkigun ideia eta eduki ezberdinak, besteak beste:

- ✧ Berdintasunaren printzipioa: : hizkuntzak egoera diferenteetan egongo dira baina hizkuntza guztiak berdinak dira izatez. Euskara ala ingelesa ez da aymara baino hobea, egoera diferenteetan daude, ados, baina izatez hizkuntza guztiak dira berdinak eta gauza bera egiteko balio dute.
- ✧ Hizkuntzen aniztasuna: aniztasuna hobea da hizkuntza elebakartasuna baino, eta denok ingelesez hitz egiten bukatzea baino. Euskara desagertuz gero, komunikazio tresna bat galtzearekin batera aberastasun hori guztia era galduko genuke.
- ✧ Izateko nahia: hizkuntza komunitateak izateko nahian duen indarra da giltza eta horretan euskarak hainbat froga eman ditu historia osoan, bizinahi egoskorra...
- ✧ Nazio linguistikoa: Nazio linguistikoa kontzeptu kultural bat da eta garrantzitsuagoa da hori bestelako ikuspegi ideologizatuak baino. Izan gaitezke estatu ala ez, baina nazio linguistiko seguru bagarela.
- ✧ Eskubide naturala: guk legeaz EAEn, Nafarroan eta Iparraldean eskubide desberdinak ditugu. Egoera legala desberdina da lurralde bakoitzean, baina eskubide naturalak denok ditugu berdinak, denok dugu eskubide berbera gure zereginak gure hizkuntzan egiteko.
- ✧ Erantzukizun etikoa: justiziazkoa da helburutzat hizkuntza gutxitu bat normalizatzea.

## 6.- BIBLIOGRAFIA:

AMORRORTU, E. ORTEGA, A. IDIAZABAL, I. BARREÑA, A. (2009) *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

BERGER, Peter L. Eta LUCKMAN, Thomas (2001); *La construcción social de la realidad* 17. Ed. Buenos Aires: Amorrortu

EMUN KOOP. E. (2010) *HIZNET 5.3. Lan Munduko hizkuntza plangintzak; HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista*. Donostia-San Sebastián. Euskal Herriko Unibertsitatea.

FISHMAN, J. (1991): *Reversing Language Shift. Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages*. Clevedon, Multilingual Matters

IRASTORTZA MADARIAGA, Joxpi (2009). *Lan munduko euskara planetako langile euskaldunen jarrera, portaera eta motibazioak: pentsamendua garatzetik helburuak lortzera*. Eskoriatza: MONDRAGON UNIBERTSITATEA (HUHEZI)

JAUSORO, Nekane (2010) *HIZNET 3.6. Hizkuntzen inguruko gizarte diskurtsoak. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista*. Donostia-San Sebastián. Euskal Herriko Unibertsitatea.

JAUSORO, Nekane; MARTINEZ DE LUNA, Iñaki eta DAVILA, Andrés (1998): *Gazte donostiarren hizkuntzarekiko harremanak* In BAT, Soziolinguistika aldizkaria, 27. zk. Donostiako Udaleko Euskara Patronatoarentzat eginiko ikerketa (1994/95).

JUARISTI LARRINAGA, Patxi (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU/UPV).

MARTÍNEZ, Pepe (2008). *Cualitativa-mente. Los secretos de la investigación cualitativa*. Madril: Millward Brown.

SÁNCHEZ CARRIÓN, José María “Txepetx” (1987): *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del euskera y la teoría social de las lenguas*. Elkar. Donostia.

UNANUE, A. eta INTXAUSTI, N. (2002): *Kooperatibak eta euskara. Historia eta aro berri baten oinarriak*. Arrasate: EMUN Koop. E. eta LANKI Ikertegia (Mondragón Unibertsitatea).